

memoria



mutualia



Mutualiaren 2022ko urteko memoria

Txosten hau egiteko, Mutualiako arlo guztiek hartu dute parte, Komunikazio Zuzendaritzak koordinatuta, eta produkzio-baliabideak eta berezko baliabideak erabili dira bakarrik.

Memoria hau online bistaratzeko diseinatu da bereziki, eta, ingurumen-arrazoiak direla eta, ez dugu inprimatzea gomendatzen. Era berean, txosten hau eskuragarri dago gure webgunean, PDF formatuan, irisgarritasun-irizpideetara egokituta.



Harremanetarako:

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetza duen 2 zk.ko mutua

Egoitza operatiboa:

Henao kalea, 26

48009 Bilbo

94 4252500

www.mutualia.eus

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan helbide elektroniko honen bidez:

dircom@mutualia.es

Memoria hau www.mutualia.eus webgunean dago eskuragarri, Espainiako Red Munduko Ituna ren webgunean ere badago. <http://www.pactomundial.org/informes-de-progreso/>.

Memoria honen hainbat eremutatik zuzenean sar daiteke GRI taulara, kasu bakoitzari dagozkion adierazleak ikusteko. Erreferentzia horiek orrialdeen behealdean daude, ezkerrean, eta saguaren gezia sakatuz nabigatzen da. Hasierako orrira itzul gaitezke, GRI taulan agertzen den orrialdearen zenbakia sakatuta.



01. Adierazpen korporatiboa	4
01.01 Presidentearen gutuna	5
01.02 Zuzendari kudeatzailearen gutuna	7
01.03 Nazio Batuen gutuna	9
01.04 Memoria honetaz eta berorren irismenaz	10
01.05 Memoria prestatzeko printzipioak	11
01.06 Materialtasunaren azterketa	12
02. Gobernu eta Partaidetzako organoak	15
02.01 Organigrama orokorra	16
02.02 Batzar Orokorra	17
02.03 Zuzendaritza Batzordea	17
02.04 Batzorde betearazlea	19
02.05 Beste batzorde batzuk	20
02.06 Zuzendari kudeatzailea	20
02.07 Kontrol eta Jarraipen Batzordea	21
02.08 Prestazio Berezien Batzordea	22
02.09 Zuzendaritza Batzordea	23
02.10 Kudeaketaren Jarraipena	24
03. Nor gara?	25
03.01 Erakundearen profila	26
03.02 Kultura korporatiboa	27
03.03 Non gaude?	28
03.04 Kudeaketa-ereduan mugarri izan diren zenbait gertaera	29
03.05 Ziurtagiriak, sariak eta aintzatespenak	30
03.06 Nazio Batuen Itunarekin bat egitea	31
03.07 Rama Korporazioa	33
03.08 Interes-taldeen konpromisoa eta parte-hartzea	34
04. 2021-25 Plan Estrategikoa	36
05. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herriarren Enpresa	39
05.01 Arriskuen kudeaketa integrala	40
05.02 Kode Etikoa, Arrisku Penalen Prebenziarako Plana eta Politika	42
05.03 Informazioaren segurtasuna eta datuen babesa	44
05.04 Finantza-inbertsioen jokabide-kodea	46
05.05 Kudeaketa ekonomikoaren adierazleak	47
05.06 Baliabideen kudeaketa	50
05.07 Ingurumen-kudeaketa	51
05.08 Mutualiako langileek gizartearekin duten inplikazioa	55
05.09 Gizarteari itzulitako balioaren monetizazioa	57
05.10 Interes-taldeekiko komunikazioa	60
06. Pertsonen konpromisoa indartzea	61
06.01 Pertsonak	63
06.02 Barneko komunikazioa	74
06.03 Bezeroen Eguna	75
07. Berrikuntza zerbitzuetan	76
07.01 Babestutako pertsonak	77
07.02 Osasun-jarduera	78
07.03 Osasun-kudeaketa	82
07.04 Osasun-administrazioa	86
07.05 Prestazio ekonomikoak	88
07.06 Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak	90
07.07 Prebentzioko jarduerak	93
07.08 Bezero bakoitzaren tipologiara egokitutako zerbitzuak	97
07.09 Eraldaketa digitala	99
08. Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea	103
08.01 Prestazio Berezien Batzordea	104
08.02 Eraikinak eta instalazioak	106
08.03 Pertsonak osasun-laguntzaren erdigunean	107
08.04 Asistentziaren kalitatea eta pazienteen segurtasuna	109
08.05 Bezeroen Defentsa Erakundea	111
08.06 Gogobetetze-indizeak	112
09. GRI - Global Reporting Initiative	113
10. Urteko Kontuak eta finantza-analisia	138
11. Eranskinak	157
11.01 2022ko lege-gintza-berritasunak eta arau-esparrua	158
11.02 Glosarioa	163

berrikuntza

01

Adierazpen korporatiboa

01.01 Presidentearen gutuna

Mutualista agurgarriok:

COVID-19ak eragindako baijari dagokienez, pandemia osoko datu altuenekin hasi zen 2022. urtea. Hala ere, eta pandemia amaitu dela dioten aitoren ofizialik ez dagoen arren, haren ondorio neurgarriak oso txikiak dira jada. Eta neurgarriak esan dut, ondorio batzuk neurtzea ez delako erraza; adibidez, COVID iraunkorra eta diagnostikoen falta, esan baitezakegu birusaren bilaketa jada ez dela hain zorrotza.

Nolanahi ere, kontingentzia arruntengatik aldi baterako ezintasunen ondoriozko (KAABE) baje kopuruak eta haien iraupenak gora egitea da kezkarria, 2022a izan baita kontzeptu horren ondoriozko prestazioen kostu handienekoa. Eta, gutun hau idazten dudana bitartean, aurreratzen dizuet 2023ak goranzko joera horrekin jarraitzen duela.

Oso zaila da jokabide horren arrazoiak azaltzea, zalantzarik gabe arrazoi ugari daudelako eta haietako batzuk ondorioekin nahas daitezkeelako. Aurreko urteetako memorietan azaldu izan dut erlazioa dagoela BPGaren bilakaeraren eta KAABEren bilakaeraren artean. Urtero egiten dugu azterketa hori, eta ondorioztatu dugu zenbat eta handiagoa izan BPGa orduan eta altuagoa dela KAABEren intzidentzia. Baina lotura hori beti ez da hain argia. Horregatik, intzidentzia horren kausa gisa identifikatuta geneukan beste aldagai bati erreparatu diogu: enplegu-maila. Datuak kontuan hartuta, ondorioztatu daiteke enplegu-maila altuagoa den neurrian KAABEren intzidentzia altuagoa dela. Baina gerta daiteke, bestalde, zenbat eta altuagoa izan KAABEren intzidentzia ordezkapenak egiteko langile gehiago kontratatzea, eta horrek enplegu-maila altuagoa eragitea. Horregatik esan dut gerta daitekeela kausak eta ondorioak nahastea.

Euskadin 2022an BPGa % 4,3 hazi zen, eta enpleguak % 3,1eko hazkundea izan zuen. Eusko Jaurlaritzak aurreikusten du datu horiek baxuagoak izango direla 2023an eta 2024an; zehazki, BPGa % 1,5 eta % 2,1 haziko dela aurreikusten du, eta enplegua bi urteetan % 0,9 haziko dela. Ez dira hazkunde handiak, baina, KAABEren ondoriozko baje jokabidea ikusita, pentsatzekoa da prestazio horren gastuak portzentaje-hazkunde handiagoa izango duela.

Kausa edo ondorioa diren alde batera utzita, KAABEren intzidentzia handiagorearen eraginez eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek ez dutenez finantziatorik prestazio horietarako, mutua horiek guztiek arrisku ekonomiko handia dute. KAABEren ondoriozko prestazioen zenbatekoak hazten jarraitu du 2013tik, eta, hala, finantziarioak ez direnez erritmo berean hazi, kontingentzia horien defizita maila historiko eta jasanezinetara iritsi da.

“KAABEren finantziarioa hobetzeko beharra dago, eta osasun-langile gutxi daude”


Mutuetan egiten dugun kudeaketaren parte horren egoera kezkarria nabarmendu dut, baina orobat adieraziko dut harro nagoela kontingentzia profesionalei dagokienez egiten dugun kudeaketaz harro. Izan ere, asko dira nire baieztapen hori justifikatzen duten datu positiboak. Gure bezeroen gogobetetze-maila oso altua da, bai osasun-laguntza eskaintzen diegun pertsonena, bai haien enpresena eta aholkularitzena. Baliaezintasungatiko, heriotzagatiko eta biziraupenerako prestazioen kopurua eta kostua murriztu egin dira, istripuen larritasuna murriztu delako. Hori, zalantzarik gabe, enpresetan prebentzioa hobetu delako gertatu da neurri handi batean, eta mutuok ere lagundu dugu horretan. Mutualiaren funtzionamendugastuak jaitsi egin dira, eta horrek esan nahi du baliabide publikoak modu eraginkorragoan kudeatu direla. Datu horiek 2022ko memoria honetan egiaztatzen animatzen zaituztet. Gure

GRI
102
14

GRI
102
15

jarduerari eta genituen helburuen betetze-mailari —ia guztiak gainditu ditugu— buruzko informazio gehiago aurkituko duzue.

KAABEren finantziazioa hobetzeko erronkari (nire ustez, mutuok ezin dugu gauza handirik egin haiek kudeatzen) osasun-langileen kopuru txikia gehitu behar zaio, gure zerbitzuak eskaintzeko gaitasunari eragin baitiezaioke. Gaur egungo erronka bat da, eta etorkizun hurbilean ere erronka izaten jarraituko du. lazko memorian, mutuek soldata lehiakorrak —sektore publikoko soldaten aldean— eskaintzeko ditugun zailtasunen berri eman nuen, eta dagozkion erabakiak hartu behar dituzten sektore publikoko erakundeei ulerberak izateko eskatu nien, gure eskaera kontuan har zezaten. Eta gauza bera egin nuen mutuetako administrazio-langileei dagokienez ere. Mutuek gero eta pertsona gehiago babesten dituzte urtetik urtera, eta, horrekin batera, gero eta prestazio gehiago artatzen dituzte. Zerbitzu horiek ematen dituzten mutuetako langileen kopuruak, aldiz, egonkor jarraitzen du. Premiazkoa da mutualitateetako alor horietan diharduten langileen kontratazioa erraztea.



2021-2025 aldirako plan estrategikoan erronka eta proiektu ugari geratzen dira betetzeko, baina aldia bukatzeko falta diren hiru urte hauetan guztiak betetzeko asmo sendoa dugu.

Gure helburua da pertsonen osasunerako, segurtasunerako eta ongizaterako eskubidea bermatzea Gizarte Segurantzarekin lankidetzan. Mutualiako langileen inplikazioari, hornitzaile eta aliatuen elkarlanari eta Gizarte Segurantzaren beraren lankidetzari esker, gure helburuak betetzen ditugula ikusiko du gizarteak.

Urtsa Errazti Olartecoechea
Presidentea

01.02 Zuzendari kudeatzailearen gutuna

Mutualista agurgarriok:

Mutualiako langileen profesionaltasunari eta beste balio askori esker, esan dezaket 2022an ere helburuak bete direla.

Gure zerbitzu guztietako eta kudeaketako kalitate-ziurtagiri guztiak berritu ditugu, eta iazko memorian iragarri genuena ere gehitu dugu: Segurtasunaren Eskema Nazionaleko ziurtagiria; horrez gainera, Zilarrezko 5S ziurtagiria ere lortu dugu, Euskalitek ematen duena. Gure kudeaketa etikoko eredua garatzen jarraitu dugu, eta dagoeneko definituta eta onetsita dauzkagu elementu kulturalen % 90 baino gehiago; eta egokitzapen etikoko plan bat ere badugu, dagokion prestakuntza-plan eta guzti. Atari Korporatiboa ere martxan dugu dagoeneko, eta etorkizunean haziz joango den datu irekien proiektu baten hasikina ere bai.

Langileekiko konpromisoa sendotzeko ildo estrategikoko helburu eta proiektuei dagokienez, gure trebakuntza-planak egin ditugu, dibertsitate-plan bat definitu eta onetsi dugu, eta fidelizazio-indizea % 99tik gora kokatu da. Urte-bukaeran langileen inkesta egitea falta izan zaigu; orduan egitea aurreikusten zen, baina 2023ko lehenengo hiruhilekoan egin dugu.

Bestalde, berrikuntza-plana onestearen ondorioz, 8 berrikuntza txertatu ditugu gure zerbitzuetan, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eta Osakidetzak gure historia klinikorako irispidea izan dezaten lortu dugu. Erabiltzaileei gure zerbitzuei buruz egin genien inkestan galdetu genien zenbateraino iruditzen zaien Mutualia berritzailea dela, eta emaitza 8,75 izan da, 10etik.

Azkenik, osasun-zaintzaren humanizazioaren, segurtasunaren eta babes ekonomikoaren ildo estrategikoari dagokionez (lotura estuena du gure zerbitzuen prestazioarekin), bereziki nabarmendu nahi dut Mutualiako euskararen mapa amaitu dugula. Horren jarraipen gisa, hizkuntza-ibilbideak diseinatuko ditugu, erabiltzaileek arreta Euskadiko hizkuntza ofizialetako edozeinetan jaso ahal izan dezaten bermatzeko. Erabiltzaileen eta haien enpresen testuinguruan jarraituz, dibertsitate-plan espezifiko bat diseinatu eta onetsi dugu; 2023an hasiko gara plan horren fruituak jasotzen. Eta landutako guztiaren emaitza gisa —honelako gutun batean aurkez daitekeena baino askoz gehiago; txosten honetan egiazta daiteke guztia—, adierazle bakar bat emango dut: erabiltzaileek 8,9 puntu eman dizkigute, 10etik, Mutualiaren eta haren profesionalen gertutasun-mailari buruzko galderan. Humanizazioari buruzko ildo estrategikoaren adierazle onenen artetik hautatu zen galdera hori.

“Berrikuntza-plana onestearen ondorioz, 8 berrikuntza txertatu ditugu gure zerbitzuetan, eta hurrengo erronka da berrikuntza osasun mentalari lotutako patologien prebentzioan eta erantzunean txertatzea”

Memoria honetan zabal azaldu dugu eraginkortasun ekonomikoko helburuen betetze-maila, baina Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek bete beharreko erreserben gehieneko maila (eta gutxienezkoa) murriztu duen araudi berria aipatu nahiko nuke. Zalantzarik gabe, berme eta kaudimen baxuagoa ekarriko die horrek enpresa mutualistei, baina Mutualiak bermatuta dauzka bi alderdi horiek.

GRI
102
14

GRI
102
15


Epe laburrera eta epe luzera begira, erronka batzuk garbi definituta dauzkagu dagoeneko, eta haietako batzuk jada ia beteak ditugu 2023ko garai honetan. Horren adibide dugu salatzailea babesteari buruzko araudirako egokitzapena. Hala, dagoeneko politika onetsi dugu, komunikazio-kanala diseinatu dugu eta dagozkion aldaketak egin ditugu organigraman.

Lehengo ildo estrategikoekin jarraituko dugu, bost urteko planaren hirugarren urtean sartu baikara. Indarrean jarraituko dute, halaber, gure kudeaketaren bikaintasunari eta etikari, jasangarritasunari, gure pertsonetikiko konpromisoari, berrikuntzari eta gure zerbitzuen humanizazioari lotutako helburu eta proiektuek ere. Erronka batzuk nabarmendu nahi ditut, gainerakoen artetik: talentua erakartzea eta atxikitzea (horretarako, lanerako erakunde onenetako bat izan behar dugu), teknologia berriak aplikatzea erabiltzaileekiko gertutasuna galdu gabe, goranzko joera duten patologien —adibidez, osasun mentalari lotutakoak— prebentzioaren eta haien aurreko erantzunaren alorreko berrikuntza, eta baliabide publikoen kudeaketaren eraginkortasunaren hobekuntza.

Azken finean, etengabeko aldaketetara egokitzeko gaitasuna eta Mutualiako interes-taldeek gurekiko duten pertzepzioa dira gure jasangarritasunaren gakoak.



Ignacio Lekunberri Hormaetxea
Zuzendari kudeatzailea



01.03 Nazio Batuen gutuna



Guterres jauna
Nazio Batuen Erakundeko
idazkari nagusia

Guterres jaun preziatua:

Azken 15 urteotan egin dugun moduan, Nazio Batuen Mundu Itunarekin dugun konpromisoa berritzen dugu gutun honen bidez, hura baita guztiontzako gizarte adeitsu, osasungarri eta zuzenagoa lortzeko bidea.

Badakigu beharrezkoa dela Hamar Printzipioak eta gure interes-taldeek lehenetsitako funtsezko GJHak lantzen jarraitzea.

Gure aurrerapen guztiak ezinezkoak izango lirateke Mutualiaosatzen duten pertsona guztien ahaleginik gabe. Izan ere, bizi dugun krisialdi sanitario, ekonomiko eta sozialak agerian utzi dituen arren aurre egin beharreko ahulguneak, ausardiaz eta erabakitasunez eman dituzte gure helburu hau betetzen laguntzeko pauso guztiak: "Gizarte Segurantzarekin lankidetzan pertsonen osasunaz, segurtasunaz eta ongizateaz gozatzeko duten eskubidea bermatzea" eta jasangarritasuna bultzatzea, elementu eraldatzaile global gisa, inor atzean utzi gabe.

Adibide gisa, 2022an ingurumenean dugun inpaktu negatiboa minimizatzen duten ekintza hauek aipatu genituen: prozesuen digitalizazioa, gure erosketa guztietan ekonomia zirkularreko irizpideak aplikatzea eta donazioen sistematika indartzea gure bezeroen artean. Gure inpaktu positiboei dagokienez, aldiz: jasangarritasunari buruzko trebakuntza eman diegu gure sail guztietako erreferentziazko langileei, bizitza osasungarriagoa bultzatu dugu haien artean (elikadurari, estresaren kudeaketari eta etiketen irakurketari buruzko lantegiak eskaini ditugu, besteak beste, mesedegarriak baitira erakunde barruko nahiz kanpoko (mutualistak) pertsona guztien ongizaterako eta osasun emozionalerako) eta erakundeko kideen % 100ek GJHak bete ditzaten lagunduko duten ideia berriak bultzatu ditugu.

Alde batera utzi gabe dagoeneko sendotuak ditugun erronkak.

Adeitasunez,



Ignacio Lekunberri Hormaetxea
Zuzendari kudeatzailea

01.04 Memoria honetaz eta berorren irismenaz

Mutualiak iraunkortasunarekin duen konpromisoa agerian geratu zen 2005ean, urte horretan, Global Reporting Initiative (GRI) metodologiaren arabera egindako urteko lehen memoria argitaratu baitzuen Mutualiak, eta dokumentu bakarrean bildu baitzituen erakundearen urteko informazioa eta iraunkortasunari buruzko txostena.

Memoria hau GRI estandarren gidako jarraibideak betez landu da, eta estandar horien arabera "maila sakona" aukerara iristea izan du helburu.

Dokumentu honen bidez, gure interes-taldeekin dugun konpromisoari erantzuten diogu, konfiantza-ingurune bat sortuz eta haiek modu argi eta eraginkor batean identifikatu duten informazio garrantzitsua emanez.

Memoria honetan, 2022. urtean ekonomia, gizarte eta ingurumenaren arloetan garatutako jarduera guztiak biltzen dira, Mutualiaren jardunbide etikoa eta gobernantza ona oinarri hartuta.

Mutualiaren urteko memoria kanpoko auditoretza-prozesu baten mende jartzen da bi urtean behin, eta urtero egiaztatzen du Itun Globalaren Espainiako Sareak.

Era berean, memoria hau Nazio Batuen Hitzarmen Globalak eskatzen duen aurrerapen-komunikazioaren(CoP)balioakidea da, eta, berorren bidez, ekimen horrekiko gure konpromisoa berresten du, bai eta Garapen Iraunkorrerako Helburuekin, Nazio Batuen 2015ko Goi Bilkuran onartu ziren horiekin, Mutualiak hartutako konpromisoa ere.

GRI adierazleen taulan, adierazle horien eta GIHen konbergentzia jaso dugu, bai eta Munduko Ituneko lehen hamar printzipioekiko bateragarritasuna ere.

Erakundeko arlo guztien ekarpenekin eta informazioarekin landu da memoria hau, eta 2022eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko epeari dagokio. Mutualiako interes-talde guztientzat kontsultak egiteko baliagarria izatea lortu nahi genuke.

2022eko memoria 2023ko uztailaren 15ean egoitza sozialean egin den Batzar Orokorrarekin batera argitaratu da. Batzar horretan, ekitaldiko informazio finantzarioa eta Monetizazio Sozialari buruzko txostena ematen dira; Mutualiak sortzen duen eta gure interes-taldeek hala identifikatzen duten gizarte balio integrala ekonomikoki baloratzen da txosten horretan. Aurreko urteetan bezala, ekitaldi iraunkorretarako Erronka Garbia ziurtagiriaren arabera egin da Batzar Orokorraren bilkura.



01.05 Memoria prestatzeko printzipioak

Oreka

Memorian, Mutualiak erakundearen jardueraren alde positiboen eta negatiboen berri ematen eta islatzen du, horiek sortutako itxaropenak lortzen ez badituzte, horrela, interes-taldeek arrazoizko balorazioa egin ahal izan dezaten.

Alderagarritasuna

Interes-taldeek Mutualiak denboraren poderioz izandako aldaketak azter ditzakete, txostenean agertzen diren datu kuantitatibo guztiak aurreko urtekoekin alderatzen baitira, eta batzuetan aurreko urtekoekin ere bai; hala, aztertu eta alderatu ahal dira erakundeak bere jardura egiten izan dituen aldaketak.

Argitasuna, zehaztasuna eta sakontasuna

Informazioa modu sistematikoan azaltzen da, irakurketa errazten duen indize orokor batekin eta GRI adierazleen indize global batekin, aurkezten diren datuen -bai datu kualitatiboen bai kuantitatiboen- irisgarritasuna eta kokapena errazteko, modu ulergarrian eta, ahal den neurrian, termino teknikoak gure interes-talde guztietara egokituz.

Puntualtasuna

Txostena urtero egiten da, erakundearen ezaugarriak eta Mutualiak egiten dituen jardura guztiak kontuan hartuta, eta bertan jasotzen da erakundearen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jarduerari buruzko informazio finkatua.

Fidagarritasuna

Urteko memoria honetan jasotako informazioa eta datuak gure erakundeak 2022ko ekitaldian egindako jarduerari buruzkoak dira, eta AS/400, SAPR/3, PRISMA, EPSILON, SICOMAT, COGNOS, MIDENET eta antzeko prozesuak kudeatzen laguntzen duen informazio-sistemeekin lortzen dira, bai eta arlo bakoitzak kalkulaturako jardura-adierazleekin ere.

Interes-taldeen informazioa

Mutualiak etengabe identifikatzen eta hitz egiten du bere interes-taldeekin, beren itxaropenak eta interesak ezagutzeko eta haiei erantzuteko.

Iraunkortasunaren testuingurua

Erakundeak ekarpena egiten du toki-, eskualde- eta estatu-mailako ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloko garapenean, ahal duen neurrian, eta beti elkarrekin lotuta. Horretarako, Garapen Iraunkorreko Batzordea du.

Materialtasuna

Mutualiak betetzen ditu erakundearen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloko inpakturik garrantzitsuenak islatzen dituzten alderdiak, edo gure interes-taldeek ebaluazioetan eta erabakietan eragina izan dezaketenak.



01.06 Materialtasunaren azterketa


Plan estrategiko bakoitzaren hasieran, Mutualiak materialtasun-azterketa bat egiten du, erakundearen iraunkortasun-zereginekin lotuta bere interes-taldeek zer espero duten identifikatzeko eta ulertzeko.

2021ean, hausnarketa estrategikoan identifikatutako interes-taldeak hartu zituen oinarritzat materialtasun-azterketak; 2021-2025 Plan Estrategikoa ekarriko zuen hausnarketa horrek. Azterketa hori 2021eko azken hiruhilekoan egin zen, zuzenean emailez bidali zen inprimaki baten bidez bildutako informazioa abiapuntutzat hartuta edota hainbat bideetatik (webgunea, aretoetako euskarriak, QR kodeak, etab.) interes-taldeek eskura jarritz.

Inkesta horretan, 36 gai garrantzitsuri buruzko galderak egin zituen Mutualiak, eta hiru eremu hauei zegozkien batik bat gai horiek: jokabide etikoa eta gobernu ona, ingurumenaren arloko jokabidea eta jokabide soziala. Horrez gain, hiru jardunbide horiek Mutualiak garatzen duen jarduera ekonomikoarekin batzen dituen balioespen bat ere egiten da.

Materialtasunaren azterketa hori egiteko, eguneroko lanerako edo zerbitzuen diseinurako interes-taldeek segmentazio handiagoa erabiltzen bada ere, ikuspegi estrategiko batetik, sei arlotan bildu dira Mutualiaren interes-taldeak: pertsonak, bezeroak, funtsezko aliatuak eta hornitzaileak, gobernu eta partaidetzako organoak, gobernu eta erakunde publikoak, eta gizartea.

Ekonomikoak ez diren Mutualiako jardunetako bakoitzari interes-talde horiek ematen dioten garrantzia erakusten du ondorengo grafikoak.



Jardunbakoitzari ematen zaion garrantziari dagokionez interes-taldeek dituzten lehentasunak aztertu ondoren, ikusi da arlo sozialari ematen diotela garrantzi handiena, interes-talde guztiek oso kontuan hartzen baitute; ingurumen-jardunari dagokio arreta maila txikiena, alde handiarekin, eta, horren arabera, ulertzen dugu, alde batetik, Mutualia ez dela identifikatzen ingurumenean eragin negatiboa izan dezakeen enpresa mota batekin, eta, bestetik, Mutualia aspalditik ari dela arlo horretan lanean, eta kezka hori gaindituta geratu dela, enpresetako iraunkortasun-arlo berrien mesedetan.

Jardun bakoitzean interes-taldeek identifikatutako gai garrantzitsuenak materialtasun-inkestako 36 galderen bidez azalatu dira; galdera horietako bakoitzean, 1etik 5era bitarteko puntuazioa ematen da, eta garrantzitsutzat hartu dira batez beste 4,5etik gorako puntuazioa dutenak.

	Bezeroak	Funtsezko aliatuak eta hornitzaileak	Gobernua eta erakunde publikoak	Gobernu eta partaidetzako organoak	Pertsonak	Gizarte	
							Jarduera etikoa eta gobernu ona Ingurumen-jarduera Gizarte-jarduera Iraunkortasuna jarduerak barne
1							Konpromiso etikoak definitzen dituzten jokabide-kodeak eta politikak
2							Gardentasuna
3							Arriskuen Kudeaketa
4							Betetzea (Compliance)
5							Zibersegurtasuna eta datuen pribatutasuna bermatzea
6							Hornidura-katearen kudeaketa arduratsua (hornitzaileak irizpide etikoetan, sozialetan eta ingurumenekoetan oinarrituta hautatzea)
7							Kudeaketa-prozedurei eta -sistemei buruz kanpoko eta barruko aldizkako auditoriak egitea
8							Interes-taldeekin elkarriketa eta komunikazioa hobetzea
9							Karbono-aztarna eta beste emisio batzuk
10							Energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak
11							Uraren kudeaketa
12							Paperaren erabilera
13							Hondakinen kudeaketa
14							Birziklapena eta ekonomia zirkularra
15							Plastikoen erabilera
16							Zarata
17							Osasuna eta ongizatea
18							Enplegarritasuna
19							Ikerkuntza medikoa
20							Berrikuntza
21							Gizarteratzea eta laneratzea
22							Berdintasuna eta aniztasuna
23							Kultura sustatzea
24							Ingurumenaren babesa
25							Hezkuntza eta prestakuntza
26							Boluntariotza, elkarrekin lankidetzak eta elkartasun-proiektuak
27							Baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra
28							Gizarte Segurantzako Sistemaren iraunkortasunari laguntzea
29							Produktu eta zerbitzuen kalitatea
30							Pertsonen gogobetetzea eta segurtasuna
31							Eraldaketa digitala eta teknologia berrien erabilera
32							Laneko kalitatea eta egonkortasuna
33							Desgaitasunaren integrazioa eta kudeaketa
34							0 Km-ko politikak (tokiko hornitzaileak, azpiegituretako inbertsioak, etab.)
35							Osasuna eta ohitura osasungarriak sustatzea
36							Diskriminaziorik ezaren, aniztasunaren eta aukera-berdintasunaren aldeko politikak

Inkestan landutako item guztiak hartuta, "Baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra" nabarmentzen da: horixe da interes-talde guztiek garrantzitsutzat jotzen bakarra. "Osasuna eta ongizatea" gaiak ere puntuazio handia izan du, 4,5etik gorakoa, sei interes-taldeetatik bostetan.


Interes-talde guztiek lortutako puntuazioak batuta, honako "itu" grafiko hau egin da: garrantzi handienekotzat jotzen diren gaiak zentroaren inguruan kokatzen dira, eta 4,5etik gorako puntuazioa dagokie (grafikoan, zenbakiak dezimal batera biribildu dira). Bederatzi gai garrantzitsuenei lehentasuna emango zaie, bai Mutualiaren kudeaketa eta bai barne- eta kanpo-komunikazioan, 2021. urteko memoria honetatik bertatik hasita.



02

Gobernuko eta Partaidetzako organoak

02.01 Organigrama orokorra



02.02 Batzar Orokorra

Mutualitatearen gobernu-organo goren da Batzar Orokorra. Enpresa elkartuen ordezkariak, atxikitako langileen ordezkariak (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arauzko garapenean zehazten diren balditzetan) eta mutualitateko langileen ordezkariak osatzen dute.

Urtean behin elkartzen da, ohiko izaeraz, aurrekontuen aurreproiektua eta urteko kontuak onartzeko, eta ohiz kanpoko izaeraz, Zuzendaritza Batzordeak horretarako deia egiten duenean, edo beren betebeharrak sozialak beteta dituzten enpresaburu elkartuen % 10ek Zuzendaritza Batzordeari hala eskatzen dionean.

Zuzendaritza Batzordeko presidente, presidenteorde eta idazkariak betetzen dituzte Batzarreko presidente, presidenteorde eta idazkari eginkizunak, hurrenez hurren.

Enpresa elkartu bakoitzak boto bakarra du, eta ordezkaritza eskuordetzeko, beharrezkoa da enpresa elkartu izatea bestea ere; berdinketarik izanez gero, presidentearen botoak berdinketa hausteko balioko du.

02.03 Zuzendaritza Batzordea

Kide anitzeko organoa da Zuzendaritza Batzordea, eta hari dagokio erakundearen zuzeneko gobernua; ordezkaritza osoa izango du, eta zuzendaritza-, administrazio-, xedapen- eta gauzatze-ahalmenak izango ditu erakundearen interesak babestu ahal izateko.

Zuzendaritza Batzordeko kideak honako hauek dira:

- Enpresa elkartuen ordezkariak (10 eta 20 artean); horien % 30 langile gehien dituzten enpresetakoak izango dira, arauak jarraituz finkatzen diren tarteetan arabera zehaztuta.
- Norbere konturako langile bat, atxikitakoa.
- Batzar Orokorrean parte hartzen duen erakundeko langileen ordezkaria.

Zuzendaritza Batzordeko kideen izendapena Batzar Orokorrari dagokio, erakundeko langilearen ordezkariarena izan ezik, Enpresa Batzordeko kideen artetik aukeratuko baita pertsona hori; azken hori izan ezik, eskumena duen ministerioak berretsi beharko ditu izendapen horiek. Zuzendaritza Batzordeak gutxienez urtean lau alditan egingo ditu ohiko bilerak, eta ohiz kanpokoak behar beste alditan, dela presidenteak deia egin duelako, dela kideen herenak hala eskatu duelako. Bilerak erakundearen egoitzan edota Zuzendaritza Batzordeak adierazitako beste edonon egin ahal izango dira.

Ez presidenteak (izaera exekutiborik ez du), ez eta Zuzendaritza Batzordea osatzen duten gainerako pertsonak ere ez dute ordainsaririk jasotzen, otsailaren 4ko TIN/246/2010 Aginduan, Zuzendaritza Batzordeko eta Mutualitateen Prestazio Berezien Batzordeko kideei ordaindu beharreko konpentsazioak finkatzen dituenen, bileretara joateagatik ezarritako konpentsazioak salbuespentzat hartuta.

Zuzendaritza Batzordeak, 2021eko uztailaren 6an, Zuzendaritza Batzordearen Antolamendu eta Funtzionamendurako Barne Araudia onetsi zuen, eta urte horretako bertako uztailaren 16an Mutualiak egindako Ohiko Batzar Orokorraren erabakiak berretsi zuen araudi hori.

Zuzendaritza Batzarraren eraketa

Kargua	Izena	Erakundea
Presidentea	Urtsa Errazti y Olartecoechea	Voestalpine Railway Systems Jez, S.L.
1.presidenteordea	Nerea Garmendia Goñi	Plastigaur, S. A.
2.presidenteordea	Marta Barredo Unamunzaga	Heredit, S. A.
3.presidenteordea	Jone Nolte Uspadicha	Asociación Empresarial ASLE
Idazkaria	Miren Garbiñe Urrutikoetxea Zabala	Fundación del Museo Guggenheim Bilbao
Idazkariordea	Javier Ortega Tapia	CLTPACK Vitoria Gasteiz, S.L.U.
Batzordekidea	Javier Sánchez Pérez	ArcelorMittal Olaberria Bergara, S.L.U.
Batzordekidea	Daniel Rebordinos Miramón	Calcinor Servicios, S.A.
Batzordekidea	José M ^a Armentia Macazaga	Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza
Batzordekidea	Naiara Erauso Sanz	Krafft, S.L.
Batzordekidea	Diego Ricondo Chaves	Kutxabank, S.A.
Batzordekidea	José Ignacio Zudaire Arana	Petróleos del Norte, S.A.
Batzordekidea	Alexia Delclaux Gaytan de Ayala	Prodol Meditec, S.A.
Batzordekidea	Ricardo Eusebio Echave Subijana	Sociedad Alavesa de Inversiones, S.A.
Batzordekidea	José Maria Echarri Campo	Sociedad Financiera y Minera, S. A.
Batzordekidea	Gorka Zubillaga Bereciartua	Supermercados Ercoreca S.L.
Batzordekidea	Álvaro Garcia-Navarro Aguirre	Tubos Reunidos, S.A.
Batzordekidea	Fernando Salamero Laorden	Vinos Herederos Marques de Riscal, S.A.
Batzordekidea	Carolina Pérez Toledo	Representante personas trabajadoras por cuenta propia adheridas
Batzordekidea	Eulalia Iriondo Aizpurua	Representante de las personas trabajadoras de Mutualia



- GRI 102 22
- GRI 102 23
- GRI 102 24

02.04 Batzorde betearazlea

Zuzendaritza Batzordeak Batzorde Betearazlea osatu ahal izango du kideen artean, mutualitatea zuzentzeko, administratzeko eta ordezkatzeko zereginetan lehenbailehen hasi dadin.

Hamar kidek osatzen dute gehienez, eta, ohiko izaeraz, hilean behin biltzen da gutxi gorabehera.

Batzorde Betearazlearen eraketa

Kargua	Izena	Erakundea
 Presidentea	Urtza Errazti y Olartecoechea	Voestalpine Railway Systems Jez, S.L.
 1.presidenteordea	Nerea Garmendia Goñi	Plastigaur, S. A.
 1.presidenteordea	Marta Barredo Unamunzaga	Herdit, S. A.
 1.presidenteordea	Jone Nolte Uspadicha	Asociación Empresarial ASLE
 Idazkaria	Miren Garbiñe Urrutikoetxea Zabala	Fundación del Museo Guggenheim Bilbao

02.05 Beste batzorde batzuk

Zuzendaritza Batzordeak bere kideekin beharrezkoak iruditzen zaizkion batzorde guztiak osatu ahal izango ditu, mutualitatea kudeatzeko alderdi tekniko esanguratsuak kontrolatzeko, jarraipena egiteko eta egiaztatzeke. Alderdi horien artean, ondorengo hauek nabarmendu daitezke: araudia betetzea, arriskuak, inbertsioak, barne nahiz kanpoko ikuskaritzak, eta Kontuen Auzitegiaren fiskalizazioa, eta zuzendari kudeatzailearen eta goi-kargudunen ordainsarien zehaztapena.

Haietako bakoitzeko kideak hiru izango dira gehienez, eta horietako bat presidentea izango da. Hark deituko ditu beharrezkoak diren bilerak, berak eskatuta ala kide gehienek eskatuta; hurrenez hurren, eduki funtzional eta objektiboen arabera egokiak iruditzen zaizkion funtzioak eta ahalak emango dizkio haietako bakoitzari.

Aurreko orrialdeko grafikoak batzordeen organigraman zer kokapen duten erakusten du. Batzorde Betearazleaz gain, osatuta daude honako batzorde hauek ere:

Ordainsarien Batzordea

Kide anitzeko organoa da, funtzio betearazlerik ez duena, eta informatzeko, aholkatzeko eta proposamenak egiteko ahalmena du, zuzendari kudeatzailearen ordainsariari, funtzio betearazleak dituzten pertsonen eta barne-auditoretzako zuzendariari dagokionez, bai eta urteko helburuei dagokienez ere.

Auditoretza Batzordea

Auditoretza Batzordea kide anitzeko organoa da, ez du funtzio betearazlerik, eta informazioa eta aholkuak emateko izaera du, Mutualiaren hirugarren defentsa-ildoaren jarduketaremuaren barnean, arriskuen kontrolean, zehazki.

Batzorde Etikoa

Funtzio betearazlerik ez duen organoa da, eta, oro har, Mutualiaren estrategiak sustatzeko zeregina betetzen du, erantzukizun sozial korporatiboaren arloan, korporazioaren izen onaren arloan eta Gobernu Korporatiboaren Sistema betetzen dela gainbegiratzeari dagokionez. Batzorde honen mende dago Betetze Korporatiboaren Batzordea, eta Gobernu Korporatiboaren Sistemaren funtzionamendu eraginkorra modu proaktiboan zaintzeko ardura du.

02.06 Zuzendari kudeatzailea

Mutualiaren zuzendaritza exekutiboa dagokion organoa da, eta haren helburu orokorrak garatzeaz eta erakundearen zuzendaritza arruntaz arduratzen da; Zuzendaritza Batzordeak eta hango presidentek ematen dizkioten irizpide eta jarraibideen mende dago, eta mutualitatea Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen erakunde gisa kudeatzeko ezarritako araudia aplikatzen du.

Erakundearen estatutuetan jasotzen dira haren ahalmenak, mugak, debekuak eta ardurak. Zuzendaritza Batzordeari dagokio hura izendatzea, eta haren eraginkortasuna eta goi-zuzendaritzako haren lan-kontratuaren eraginkortasuna ministerio eskudunak berretsi behar ditu.



02.07 Kontrol eta Jarraipen Batzordea

Eragile sozialen partaidetza-organoa da, eta, besteak beste, erakundeak hainbat lankidetz modalitatetan egiten duen kudeaketa ezagutzeaz eta horren berri emateaz arduratzen da.

Mutualitatearen kuoten arabera, hamar kidek osatzen dute. Horien erdia erakundeko langile babestuen ordezkari izango da, eta erakundearen jardura-eremuan ordezkari izango den sindikatuen bidez aukeratzen dira; eta beste erdia, berriz, ordezkari izango den enpresa-erakundearen bidez aukeratua den enpresaburu elkartuen ordezkari izango da. 8/2015 LED berriak langile autonomoen elkarte profesionalen ordezkari izango den erakundea bat eransteko du.

Kontrol eta Jarraipen Batzordearen eraketa

Kargua	Izena	Erakundea
Enpresa elkartuen ordezkariak:		
Presidentea	Urtza Errazti y Olartecoechea	Voestalpine Railway Systems Jez, S.L
Batzordekidea	Gonzalo Salcedo Bilbao	CEBEK
Batzordekidea	Monserrat Ruiz Mitjans	CEBEK
Batzordekidea	María José Irastorza Estensoro	ADEGI
Batzordekidea	Fernando Raposo Banda	SEA
Sindikatuaren ordezkariak:		
Batzordekidea	Alfonso Ríos Velada	CCOO
Batzordekidea	Luis Mouliá Mayor	CCOO
Batzordekidea	Leire Heredia Bilbao	ELA
Batzordekidea	Juan Carlos Cárdenas Bonelli	UGT
Batzordekidea	Ibon Zubiela Martín	LAB
Zuzendari kudeatzailea:		
Secretario	Ignacio Lekunberri Hormaetxea	Mutualia

02.08 Prestazio Berezien Batzordea

Organo honi dagokio Gizarte Laguntzaren Erreserbatik eratorritako onurak langile babestuei edo atxikiei emateko eskumena, bai eta azken horien eskubidedunei ematekoa ere, kontingentzia profesionalen estaldura badute, laneko istripu bat edo gaixotasun profesional bat izan badute, eta egoera edo behar bereziko egoera batean badaude.

Onurak aukerakoak izango dira, eta Gizarte Segurantzaren babes-ekintzan sartzen direnekiko loturarik gabekoak.

Hamar kidek osatzen dute: bost enpresa elkartuen ordezkariak dira, eta beste bost langile babestuen ordezkariak.

Presidente, idazkari eta presidenteordearen karguak bi urtekoak dira, eta enpresen ordezkariak eta langile babestuen ordezkariak txandakatuko dira haiek aukeratzeko.

8/2015 LED berriak langile autonomo atxikien ordezkaritza bat eransten du.

Prestazio Berezien Batzordearen eraketa

Kargua	Izena	Erakundea
Presidentea	Jose Enrique Arroyo Villalba	UGT
Presidenteordea	José Hernández Duñabeitia	ASLE
Idazkaria	Alfonso Ríos Velada	CC.OO.
Batzordekidea	Elena Izquierdo Cuadrado	Zayer, S. A.
Batzordekidea	Asier Goitia Torrontegui	LAB
Batzordekidea	Jokin Ganboa Agirre	Gestamp Bizkaia, S.A.
Batzordekidea	Leire Heredia Bilbao	ELA
Batzordekidea	Andoni Larralde Etxarte	ELA
Batzordekidea	Jose María Echarri Campo	Sociedad Financiera y Minera, S.A.
Batzordekidea	Álvaro Plaza Reino	ArcelorMittal Olaberria Bergara, S.L.U.




02.09 Zuzendaritza Batzordea

Mutualiaren zuzendaritza exekutiboaren organoa da, kide anitzekoa, eta haren helburu orokorrak eta operatiboak garatzen ditu, erakundearen zuzendaritza arruntaz arduratzeaz gain.

Zuzendari kudeatzaileak eta goi-zuzendaritzako kontratuekin lotutako gainerako pertsonak osatzen dute, funtzio betearazleak dituzten eta zuzendariaren mende dauden kideek, zehazki, beren muga, debeku eta erantzukizunekin.

Zuzendaritza Batzordearen organigrama




Goi-zuzendaritzaren ordainsariak

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 88.3 eta 4. artikulua; Enplegu eta Gizarte Segurantzako ministroak 2015eko urtarrilaren 2an Jakinarazitako Agindua; 1382/1985 Errege Dekretua, goi-zuzendaritzako langileen izaera bereziko lan-harremana arautzen duena; Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 30. xedapen gehigarria; eta zuzendari kudeatzaileak eta Mutualitatean zeregin betearazleak dituzten goi-kargudunek sinatutako goi-zuzendaritzako kontratuak. Ez dago ordainsaririk akzioetan, ezta dibidendu geroraturik ere, Mutualia ez baita merkataritza-sozietate bat, eta erakundeko goi-kargudunen ordainsaria zorrozki araututa baitago aipatutako araudian. Kaleratzeagatiko kalte-ordaina 1382/1985 EDn aurreikusitakoa da, eta ez dute erretiroko pentsio osagarriko eskubiderik.

02.10 Kudeaketaren Jarraipena

Kudeaketaren Jarraipena kudeaketa operatiborako organo bat da, eta Zuzendaritzako Batzordeko kideek eta arloetako zuzendariak osatzen dute. Hilaro biltzen da, Mutualiaren jarraipen estrategikoa egiteko.



03

Nor gara?

03.01 Erakundearen profila

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. zk.ko mutua erreferentziakoa da Euskadin, % 44tik gorako merkatu-kuotarekin.

Irabazi-asmorik gabeko eta erantzukizun mankomunatuak enpresa-elkartea da Mutualia. Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzen da, enpresei, langileei eta gainerako bezeroei zuzendutako osasun-zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta prebentzioaren hedapena kudeatzen.


Mutualia 2005. urtean sortu zen, Mutua Vizcaya Industrial eta Pakearen arteko bat-egitearen ondorioz. 2007an, La Previsora batu zitzaion, istripuetan lehena eta zaharrena, 1900eko martxoaren 25ean sortua.

Mutualiaren jardura-eremua Estatu osoa da, eta jardura-printzipio hauek ditu: arreta pertsonalizatua, berehalakotasuna, goxotasuna laguntza ematean, osasun-zentroen kalitatea eta profesionalen hurbiltasuna elkartutako enpresa eta aholkularitza laguntzaile guztiekiko.

Estatu osoko Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzen diren lehen mutualitateen artean dago Mutualia, kaudimen-indizeei dagokienez, eta behar bezala hornituta dauzka lege-erreserba guztiak, eraginkortasunez kudeatuta bikaintasunaren alde lan egiteko aukera ematen digutenak.

Mutualia Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. K.ko mutuaren helburu Gizarte Segurantzaren jardura hauek garatzea da:

- Prestazio ekonomikoak eta osasun-laguntza kudeatzea, errehabilitazioa barne, Gizarte Segurantzako laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen kontingentziak babesten dituztenak, bai eta babes-ekintzak sortzen dituen kontingentzia berberak prebenitzeko jarduerak ere.
- Kontingentzia arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa kudeatzea.
- Haurdunaldiko arriskuagatiko eta edoskitze naturaleko arriskuagatiko prestazioen kudeaketa.
- Norberaren konturako langileen jardura uzteagatiko prestazio ekonomikoak kudeatzea, langile autonomoen jardura uzteagatiko berariazko babes-sistema ezartzen duen abuztuaren 5eko 32/2010 Legean ezarritakoaren arabera.
- Minbizia edo bestelako gaixotasun larria duten adingabeak zaintzeko prestazioa kudeatzea.
- Legez esleitzen zaizkien Gizarte Segurantzaren gainerako jarduerak.


GRI
102
2GRI
102
4GRI
102
5GRI
102
6

03.03 Non gaude?

Mutualiaren jarduera-eremua EAE da nagusiki: estaldura ematen dien pertsonen % 94,14 erkidego horretakoak dira, eta horregatik, Mutualiaren beraren laguntza-zentro guztiak Euskadin daude. Urteen joanean, zentroen sare zabala osatu ahal izan dugu, eta erantzun azkarra eta hurbilekoa emandieza iekegu horrela gure beharra duten pertsonei, bai osasunaren arloan eta bai arlo ekonomikoan.

Guztira, 18 asistentzia-zentro ditu Mutualiak, eta horien barnean daude 3 ospitale (autonomia-erkidegoko hiriburu bakoitzean bat), 13 asistentzia-zentro eta 2 administrazio-zentro.

Mutualiaren beraren zentroak, eta banaketa geografikoa



GRI 102 3

GRI 102 4

GRI 102 6

GRI 102 7

Egoitza Operatiboa
 Henao kalea, 26
 48009 Bilbao (Bizkaia)
 944 25 25 00

Sozietatearen Helbidea
 Miraconcha kalea, 7
 20007 Donostia/San Sebastián (Gipuzkoa)
 943 42 65 00

03.04 Kudeaketa-ereduan mugarri izan diren zenbait gertaera

- Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria Bezeroak elementuan, Eusko Jaurlaritzak Euskaliten bidez emana.
- Osasun Asistentziaren Kalitatearen Bikaintasunaren QH 3 Izar ziurtagiria, Osasunaren Garapen eta Integratzearako Institutuak emana (IDIS).
- 2018ko Euskadi Familia Saria, AFAEk (Acción Familiar Euskadik) emana.
- Berdintasunerako Zirgarri saria, Erantzunkidetasun eta Bateragarritasun kategorian, Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBK-k emana.
- Enpresan Bardin saria, enpresa handiaren kategorian, CEBEKe (Bizkaiko Enpresarien Konfederazioak) emana.
- Euskaliten Hazkuntzaren Kudeaketan Jardunbide Egokien Sarian finalista.
- Erronka Garbia zigilua, 2018ko Batzar Nagusia ingurumenaren aldetik iraunkorra den ekitaldi gisa antolatzeagatik.

- UNE 19601 Compliance Penalaren Kudeaketa Sistemaren ziurtagiria.
- EFR ziurtagiria B enpresa proaktiboaren kategorian.
- Q Iraunkorra ziurtagiria Henaoko eta Ercilla klinikako eraikinetarako, Q SOSTENIBLE EVOLUTION EXCELLENCE kalifikazio gorenarekin.
- Erronka Garbia zigilua, 2019ko Batzar Nagusia ingurumenaren aldetik iraunkorra den ekitaldi gisa antolatzeagatik.

- Kudeaketa aurreratuaren Euskal Saria Estrategia elementuan, Eusko Jaurlaritzak Euskaliten bidez emana.
- Q ziurtagiri jasagarria, Evolution Excellence Plus, Mutuialiak Gasteizen duen bereizmen handiko ospitalerako.
- ISO 45001 ziurtagiria, Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistemari.
- Erronka Garbia zigilua, 2020ko Batzar Nagusia ingurumenaren aldetik iraunkorra den ekitaldi gisa antolatzeagatik.

- Finalista Quality Innovation Award (QIA) sarrietan, Euskadiko fasean.
- 5S Digitalen diploma, Antolakuntza eta Arriskuak Kudeatzeko Arloan.
- Q Iraunkorra - Evolution Excellence ziurtagiria, Gernika eta Bergarako zentroei.
- Erronka Garbia zigilua, 2021eko Batzar Orokorra ingurumenaren aldetik iraunkorra den ekitaldi gisa antolatzeagatik.

- 5S zilarrezko diploma Pakea klinikarako.
- EFR ziurtagiriaren maila handitzea, B ziurtagiritik B+ Proaktibora igaroz.
- Segurtasun Eskema Nazionalaren ziurtagiria, AENOREk emana
- Erronka Garbia zigilua, 2022eko Batzar Orokorra ingurumenaren aldetik iraunkorra den ekitaldi gisa antolatzeagatik.

GRI
419
103GRI
418
103GRI
102
12GRI
102
14GRI
307
103

03.05 Ziurtagiriak, sariak eta aintzatespenak

Nor gara?



Pertsonen, Bezeroen eta Estrategiaren Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria, Euskadiko kudeaketaren onarpenik handiena. Aintzatespena pertsonen, estrategian eta bezeroen esparruetan Role Model praktikak garatzeagatik.



Kalitatearen Iberoamerikako Saria, Zilarrezko aitortpena, “Erakunde publiko handia” kategorian.



DIPLOOS saria, Laneko Segurtasunaren Sari Nazionala



“Berdintasuna enpresan” ezaugarria, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak emana. 2018an eta 2017an ere lortu genuen.



Bikaintasunaren Europako EFQM Sarian finalista.



Bai Euskarari Bidean: Ziurtagiriaren Elkarateak emandako ziurtagiria, enpresan euskararen erabilera-maila jakin bat egiaztatzen duena.



Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ziurtagiria, AIS 1/2018 Arauan (Accessibility Indicator System) jasotzen diren zehaztapen teknikoen arabera. Henao, Beasain, Basauri, Gernika, Bergara eta Azkoitia: 5 izar. Ercilla klinika: 4 izar. WEB ingurune digitala, Gardentasun Ataria: 4 izar. Erandio eta lurreta: 3 izar.



Fernando Pascual Amorrortu saria, “teknologia berriak eta irisgarritasuna gorrentzat” kategorian, Euskal Gorrak, Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioak emana.



Hizkuntza Kudeaketako Kalitate Ziurtagiria.



Osasun Asistentziaren Kalitatearen Bikaintasunaren QH 3 Izar ziurtagiria, Osasunaren Garapen eta Integrazioarako Institutuak emana (IDIS).



Osasun Asistentziaren Kalitatearen Bikaintasunaren QH 3 Izar ziurtagiria, Osasunaren Garapen eta Integrazioarako Institutuak emana (IDIS).




Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ziurtagiria, DIGAn (Irisgarritasun Mailaren Adierazlea) adierazitako zehaztapen teknikoaren arabera: Vitoria-Gasteizko EHO: 5 izar. Santurtzi, Zamudio, Laudio, Irun eta Eibar: 3 izar. Madril: 2 izar.



Berdintasunerako Zirgari saria, Erantzunkidetasun eta Bateragarritasun kategorian, Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBK-k emana.



Segurtasun Eskema Nazionalaren ziurtagiria



ISO 27001 ziurtagiria, Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistemari.



ISO 9001 ziurtagiria, Kalitatea Kudeatzeko Sistemari.



Certificación ISO 9001 al Sistema de Gestión de la Calidad.




ISO 14001 ziurtagiria, Ingurumena Kudeatzeko Sistemari.



OHSAS 45001 ziurtagiria, Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistemari.



UNE 179003 ziurtagiria, Pazienteen Segurtasunerako Arriskuak Kudeatzeko Sistemari emana.



UNE 179006 ziurtagiria, Osasun Asistentziarekin zerikusia duten Infekzioen Zaintza, Prebentzio eta Kontrolerako Sistemari emana.



ISO 50001 ziurtagiria Energia Kudeatzeko Sistemari.



EFR ziurtagiriaren maila handitzea, B ziurtagiritik B+ Proaktibora igaroz. Lehen EFR ziurtagiria 2013an.



2021: Q Iraunkorra - Evolution Excellence ziurtagiria, Gernika eta Bergarako zentroei. 2020: Q Iraunkorra - Evolution Excellence Plus ziurtagiria, Vitoria-Gasteizko EHO eraikinarentzat. 2019: Q Iraunkorra- Evolution Excellence ziurtagiria, Henaoko eta Ercilla klinikako gure eraikinrentzat. 2014: Q Iraunkorra - Evolution Plus ziurtagiria, Henaoko eta Ercilla klinikako gure eraikinrentzat.



Erronka Garbia zigilua, Batzar Orokorra antolatzeagatik. 2017., 2018., 2019., 2020., 2021 eta 2022. urteetan lortutakoa.

GRI 419 103

GRI 418 103

GRI 307 103

03.06 Nazio Batuen Itunarekin bat egitea

Nazio Batuek giza eskubideen, lanaren, ingurumenaren eta ustelkeriaren aurkako borrokaren alorretan egindako adierazpenetatik eratortzen dira Mundu Hitzarmeneko hamar printzipioak, eta mundu mailako adostasuna dago haien gainean.

Mutualiak 2009an egin zuen bat Nazio Batuen Mundu Itunarekin, eta hartara atxikita jarraitzen du ordudanik. Hala, itunak bultzatzen dituen eta nazioartean onesten diren 10 printzipioak ezartzeko konpromisoa hartzen du; printzipio horiek giza eskubideei, lanari, ingurumenari eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzkoak dira.


2015eko irailean, NBEk onetsitako Garapen Jasangarrirako Helburuak jendaurrean aurkeztu ondoren, GJHak lortzeko bidean aurrera egiteko konpromisoa hartu zuen erakundeak, eta erantzuna eman zien zenbait helbururi: bere interes-taldeek lehenetsitakoak ziren batzuk; besteak, berriz, hautatu zituen haietan sor zezakeelako inpaktu handiena.

Kontzientziazio horri esker eta jasangarritasuna Mutualiaren estrategian eta gobernantza-sisteman txertatzeari esker, negozio-eredu eraldatuak mantendu ditu erakundeak, eta, gainera, aurrera egin du negozio-eredu horietan eta gaur egun sortzen ari direnetan; testuinguru horretan, ESG irizpideek garrantzi handia hartu dute, eta Mutualiak kontuan izan ditu duela zenbait urtetik.

Erakundeak, Garapen Jasangarrirako Batzordearen bitartez, lanegitendubere jasangarritasun-politika betearazteko eta Jasangarritasun Plana garatzeko eta ezartzeko, GJHei lotutako kanpaina eta jarduerak diseinatu, landu eta zabaltzen ditu, eta jasangarritasunaren kontzeptua konpainiaren egunerokotasunean txertatzen du.

Sail guztietako erreferentziazko langileen eta lantaldeetako koordinatzaileen laguntzari esker, Mutualiak planifikatutako ekimenak erakunde guzti-guztira hedatzen dira. Pertsona

Mutualiak bete beharreko helburuak



GRI 102 12

GRI 102 14

horiek GJHei buruzko prestakuntza jaso dute kanpoko erakunde baten eskutik, eta, gainera, parte-hartze aktiboa izan dute sail bakoitzak 17 GJHetan eta haiei dagozkien 169 helburuetan duen inpaktua identifikatzeko aukera eman dien lantalde batean.

Inpaktu horiek identifikatuta, jasangarritasunari buruzko mintzaira orokor bat zabaldu, gerturatu eta bultzatu da erakundean, zeinak aukera ematen baitu konpromiso bakoitzean egindako ekarpena neurtzeko, identifikatu gabeko erronka eta helburu berriak identifikatzeko eta merkatuaren eta gizartearen eskaera berriei aurrea hartzeko eta erantzuna emateko.

Jasangarritasuna Mutualiaren arabera: Errespetuzko garapena bermatzea gaur, biharko gure biziraupena arriskuan jarri gabe, eta hazkunde ekonomikoaren (asistentzia-prestazioak eta prestazio ekonomikoak, dibertsitatea, gure langile eta interes-taldeen trebakuntza eta gizon- emakumeen arteko berdintasuna modu etikoan kudeatuz), ingurumenaren babesaren (murriztu, berrerabili eta birziklatu) eta gizarte-ongizatearen (gure jarduerarekin eta estrategiarekin bat egiten duten proiektu sozialetan parte hartuz) arteko oreka bermatzea, betiere Mutualiako interes-talde guztiak inplikatur.

Zerbitzua eskaintzen duen ingurune sozialean jasangarritasuna bultzatzeko, BBK Kuna ituneko partaide egin da Mutualia. Garapen jasangarria lortzeko konpromisoa duten erakundeen ituna da, indarrak batu eta mundu hobea bat eraikitzen laguntzeko sortua; lan horretan, gizartearen eragin positiboa duten itun eta proiektuak sortzen dira.

Mutualiaren interes-taldek lehenesten dituzten GJHak



03.07 Rama Korporazioa

Rama Korporazioa lankidetza komuneko proiektu bat da, eta hasieran Corporación Mutua zena osatzen duten mutualitateek eman diote jarraipena. Elkarre hori nortasun juridiko propiorik gabeko entitate gisa formalizatu zen, Gizarte Segurantzaren Antolakuntzako Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko urtarrilaren 13ko Ebazpenaren bidez; ebazpen horretan, Aliantza Estrategikorako Akordioa onartu zen, eta une horretan elkarre osatzen zuten zazpi mutualitateek sinatu zuten.

Era berean, RAMA Korporazioa izena (Mutualitate Elkartuen Laguntza Sarea) eta hura osatzen duten mutualitateen irudi komun bereizgarria erabiltzea onartu zen, eta Patenteen eta Marken Erregistroen Espainiako Bulegoan erregistratu. Oso tresna erabilgarria da Mutualitateek, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten erakunde diren aldetik, legez esleituta dituzten baliabide publikoak ahalik eta hobekien eta eraginkortasun handienez kudeatzeko. Lankidetza eta kooperazioko esparru egonkorra da, mutualitateei atxikitako jarduera eremuetan, hala nola osasun-prestazioak elkarri ematean, kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa kontrolatu eta haren jarraipena egitean, asistentzia- eta administrazio-zentroak eta instalazioak batera erabiltzean, bai eta ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jardueretan ere, laneko kontingentziak murrizteko eta mutualitateek kudeatzen dituzten baliabide publikoen eraginkortasuna handitzeko xedearekin.

Rama korporazioa zifratan



3.800 langiletik gorako
plantilla



184 zentro
5 ospitale propio
Mutua arteko zentro bat
145 asistentzia-zentro
33 administrazio-zentro

Corporaciónrama



2.846.447 pertsona babestu,
besteren konturako langileak eta
norbere konturako langileak



255.551 enpresa
elkarturi eskaintzen
zaie zerbitzua

03.08 Interes-taldeen konpromisoa eta parte-hartzea

Mutualian, interes-taldeak gure erakundearen parte dira, elementu garrantzitsuak izateaz gain. Gure interes-taldeak identifikatzen eta definitzen ditugu, ezagutzeko, komunikatzeko, inplikatzeko eta haiekin elkarreraginean aritzeko, gure jarduera-eremu guztietan bikaintasunez lan egitea lortu dezagun horrela.

Mutualiak bere jarduera garatzen duen inguruan eta ikuspegi estrategikoan konfiantza sortzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu gure jarduerak eragiten dien kolektiboekin dugun harremana, gizarte-erantzukizunaren ikuspegitik.

Horretarako, behar-beharrezkoa da interes-talde guztien eta bakoitzaren inplikazioa, helburuak modu iraunkor batean bete ahal izateko. Inplikazio eta konpromiso hori lortzeko, konfiantza sustatuko duten harremanak eraiki behar dira, haien itxaropenak eta beharrak ezagutu eta erantzun egokia emateko, bai eta Mutualiaz duten pertzepzioa hobetzeko ere.

Harreman hori lagungarria da gure aurrerabiderako, lehiakortasuna handitzeko eta garapen iraunkorrerako.

Mutualiaren estrategiaren definizioa, besteak beste, gure interes-taldeengandik jasotako informazioan oinarritzen da; horretarako, hainbat komunikazio-iturri ditugu, eta aukera ematen digute horiek, modu sistematiko batean, horietako bakoitzarekin elkarriketan aritzeko etengabe, informazioa modu egituratu batean gure hausnarketa-prozesuan txertatu ahal izateko horrela.

Beste informazio-iturri batzuk ere kudeatzen ditu Mutualiak, inguruan gerta daitezkeen aldaketak ulertzeko eta haiei aurrea hartzeko (administrazioa eta erakundeak, merkatua eta bezero potentzialak, edota sektorea). Horregatik, gure erakundea Lan Istripuen Mutualitateen Elkarteko (AMAT) Zuzendaritza Batzordean dago, bai eta Bikaintasunaren Euskal Fundazioan (EUSKALIT) ere; eta, horrez gain, enpresa-elkarteek sustatutako hainbat foro eta lantaldetan parte hartzen du, hala nola ADEGI, CEBEK, SEA eta CONFEBASKek sustatutakoetan.

Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailetza Nagusiak urtero ikuskatzen ditu erakundearen kontabilitateko egoera-orriak, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen erakunde den aldetik, eta, beraz, funts publikoak egoki erabiltzen direla bermatzen du. Era berean, kudeaketaren eraginkortasuna eta gardentasuna bermatu eta indartzeko, Mutualiak hainbat kudeaketa-sistemaren ziurtagiriak ditu, AENOR erakunde ziurtatzaileak urtero ikuskatzen dituenak.

Neurri horiek guztiek Nazio Batuen Munduko Itunaren hamargarren printzipioari erantzuten diote, azkenari, alegia; hala dio printzipio horrek: "enpresek ustelkeria mota guztien aurka lan egin behar dute, estortsioa eta eroskeria barne hartuta".

Mutualiarentzat, garrantzitsua da mezuak garbi eta erraz helaraztea interes-talde guztiei, eta, jakina, haiek zer iritzi duten jakitea nahiz horietako bakoitzak hobetzeko helarazi nahi dizkigun ideiak biltzea. Horregatik, interes-talde horien informazioa bildu eta aztertu ondoren, gogoeta estrategikoaren prozesuan txertatzen da, eta hainbat arlotako urteko ekintza-planen bidez ematen da horren guztiaren berri. Hain zuzen ere, hainbat urtean zehar informazio-iturri horiez egin den azterketa sistematikoak bere isla izan du kudeaketan zuzeneko eragina izan duten estrategia eta ekintzen garapenean.

GRI
102
40GRI
102
42GRI
102
43GRI
102
44

Interes-taldeak eta parte hartzeko ekintzak

Interes-taldea	Interes-taldea
Bezeroak (Enpresa elkartuak, norberaren konturako eta besteren konturako langileak, aholkularitza-etxe kolaboratzaileak)	- Gogobetetze-inkestak (enpresa mutualistak, aholkularitzak, osasun laguntza, prestazio ekonomikoak). - Bilerak enpresa mutualistekin eta aholkularitzekin. - Larrialdien sistema, kexak eta erreklamazioak (Webgunea, extraneta, contact center, MEYSSen bulego birtuala, etab.). - Mutualia Foroan bildutako proposamenak eta ekarpenak. - Focus Group. - Eguneroko harremanak enpresekin, aholkularitzekin eta autonomoekin (kudeatzaile osoa). - Eguneroko jarduera/zerbitzuaren prestazioa. - Materialitate-inkesta
Pertsonak	- Pertsonen gogobetetze-mailari buruzko inkesta. - Arrisku psikosozialen inkesta. - Boga proiektua. - Iradokizunen sistema. - Prozesuko taldeak/Hobekuntzako taldeak/Saio klinikoak. - Langileen legezko ordezkariekin bilerak. - Elkargune, atari korporatiboa. - Diagnostikoa eta berdintasun-plana. - Barne-komunikazioak hilero. - Eguneroko jarduera/harreman zuzena. - Materialitate-inkesta
Gobernu-organoak eta parte-hartzekoak	- Batzar Nagusiaren bilerak. - Zuzendaritza Batzordearen bilerak. - Batzorde Betearazlearen bilerak. - Kontrol eta Jarraipen Batzordearen bilerak. - Zuzendaritza Batzordeko komisioen bilerak. - Materialitate-inkesta.
Funtsezko aliatuak eta hornitzaileak	- Rama korporazioaren bilerak. - AMATen bilerak. - Gogobetetze-inkestak. - Materialitate-inkesta.
Gobernua eta erakunde publikoak	- Gizarte Segurantzako Ordenazioko zuzendaritza orokorrarekin bilerak. - Sektorean aplikatzen den araudia aldatu eta eguneratu. - Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailetza Nagusiaren auditoria. - Materialitate-inkesta.
Gizartea	- Gizartearen gogobetetze-inkesta. - Bilerak aldiro elkarteekin eta antolaketekin. - Materialitate-inkesta.

04

2021-25 Plan Estrategikoa

04.00 2021-2025 Plan Estrategikoa


2020aren erdialdetik aurrera, hau da, aurreko 2018-2020 Plan Estrategikoa amaitu zen urtetik aurrera, 2021-2025 plan berria ekarri zuen hausnarketa-prozesua hasi zen, oraingoan 5 urteko iraupenarekin, eta 2025. urtea jarri zen jomuga gisa, urte horretan 125 urte beteko baititu Mutualiak.

Horrelako prozesu guztietan bezala, amaitutako plan estrategikoaren erronken eta helburuen egoera eta lorpen-maila ebaluatu ondoren, hainbat puntu aztertu dira, beheko irudian ikus daitekeen moduan. Lehenik, interes-taldeak identifikatu dira, eta, horretarako, “Nagusitasun Matrizea” erabiliz; matrize horrek honako oinarri hauek erabiltzen ditu publikoak sailkatzeko: boterea (beren borondatea inposatzeko gaitasuna), premia (berehalako arretaren beharra) eta legimititatea (parte-hartzea egokia izateko arrazoiak). Interes-taldeen zerrenda berria aurreko plan estrategikoan ezarritakoaren oso antzekoa da, eta alderik aipagarriena da orain sei direla, eta ez bost, Mutualiako interes-taldeak; izan ere, talde horietako bat zatitu egin da, eta “gizartea” talde bakar gisa identifikatu da.

Hurrengo urratsa AMIA aztertzea izango litzateke, eskura dauden informazio-iturri guztien arabera, eta, ondoren, agertoki posibleak lantzea, bakoitzari dagokion estrategia mota aplikatuta. Arrakastaren faktore kritikoak identifikatzea prozesu horren parte da, eta erronka eta helburu estrategikoak lortzeko beharrezkoak diren funtsezko zazpi faktore identifikatu dira.

Bosgarren puntuan, kultura korporatiboaren elementuak berrikusten dira, hala nola xedea eta misioa; balioak ez dira berrikusi, hausnarketa-prozesu honen aurretik balio horietan oinarritutako kode etikoa berrikusi zelako eta, beraz, gutxienez 2025era arte indarrean egongo direlako. Hala, bada, ikuspegia definitu da, Mutualiak 2025. urtean zer izan nahi duen azaltzeko.

Hausnarketa estrategikorako prozesuaren laburpena



Hausnarketa estrategikoaren prozesua kudeaketaren jarraipen-taldearen barruan garatu da nagusiki, batez ere testuinguruaren azterketarekin, agertokiekin eta identitate korporatiboaren elementuen berrikuspenarekin lotuta dagoena. Fase horretan, interes-taldeetatik eta beste eragile batzuetatik prozesu honetan parte hartzeko bide eta mekanismo espezifikoek bidez jasotako informazioa ere badugu.

Estrategia hedatzeko fasean, Zuzendaritza Batzordeak eta horren barneko lan-batzordeek esku hartu dute, eta interes-taldeek ere parte hartzen jarraitu dute; planaren zirriborria kudeaketaren jarraipenarekin itxi da.

Plan estrategikoaren zenbait alderdi finkoak dira bost urteetarako, hala nola xedea, misioa, balioak edo ikuspegia, baina beste elementu batzuk urtero berrikusten dira, hala nola AMIA edo agertokiak.

Plan Estrategikoan zehaztutako ikuspegia lortzeko, lau ildo estrategikotan lan egitea erabaki da: Gobernu Korporatiboa eta Herritarren Enpresa sustatzea, Gure pertsonetikiko konpromisoa indartzea, Zerbitzuen berrikuntza, eta Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa gizatiartzea. Lerro estrategiko bakoitzari “etorkizuneko posizio” bat eman zaio, 2025eko ekitaldiari begira, eta 22 makroproiektu gauzatuz lortu ahal izango diren erronkak lotu zaizkio; makroproiektu horiek 90 proiektu eta dagozkien ekintzak sorraraziko dituzte. Plan Estrategikoaren zirriborria lortu ondoren, erakundeko pertsona guztiei jakinarazi zaie, eta partaidetza-aldi bat ireki da. Komunikazio-prozesu hori barne-komunikazioko bileretan eta Elkargune atari korporatiboaren bidez egin zen, eta ideiak biltzeko kanpaina bat abiarazi zen. Ekimen horren bidez 135 ekarpen jaso ziren, eta ideia horietako gehienek proiektu berriak sortu dituzte edo aldeztu aurretik Plan Estrategikoa egiterakoan definitutako proiekturen bati lotu zaizkio.

2022ko ekitaldiaren hasieran Plan Estrategikoa berrikusi da, proiektu guztien egoera eta erronken betetze-maila berrikusi dira, AMIA berrikusi eta eguneratu da eta proiektu estrategiko berriak gehitu dira.

Líneas Estratégicas y retos

Ildo estrategiko	Erronka estrategikoa	Makro-proiektuak	Proiektuak	Ekintzak
IE01 Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa	- Euskadiko erreferentziako erakundea izatea kudeaketa aurreratua dela-eta. - Erreferentziako erakundea izatea kudeaketa etikoa dela-eta. - Erreferentziako mutualitatea izatea kudeaketa iraunkorra dela-eta. - Gure kanpoko interes taldeek (IT) aintzatetsi gaitzaten, gure inguruan sortzen dugun balioa dela-eta.	6	31	...
IE02 Pertsonetikiko konpromisoa indartu	Lanerako leku bikain gisa aintzatetsitako erakundea izatea.	5	19	...
IE03 Zerbitzuen berrikuntza	Mutualitate azkarra eta puntakoa izatea, zerbitzuen prestazioari dagokionez berrikuntza ezartzeko.	4	21	...
IE04 Osasunaren zaintza humanizatzea, segurtasuna eta babes ekonomikoa	Erreferentziako mutualitatea izatea bere hurbiltasunagatik, oinarri dituelarik zentro sare zabal bat eta aniztasunaren arreta.	7	19	...

05

Ildo estrategiko 01:

**Gobernu
Korporatiboaren
sustapena.
Herritarren Enpresa**




05.01 Arriskuen kudeaketa integrala

Mutualiak balio-sorkuntzarekiko eta jasagarritasunarekiko konpromisoa du. Konpromiso horri erantzuteko, arriskuak kudeatzeko politika bat definitu du erakundeak. Hona zein diren politika horren printzipio orokorrak: betetzea, proaktibitatea, independentzia, homogeneotasuna, gardentasuna eta etengabeko hobekuntza.

Politika hori arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistema integral baten bidez gauzatzen da. Sistema hori funtzio eta ardurak mailaka definitzean eta esleitzean oinarritzen da, eta, halaber, sistemako aldi eta jardueretara egokitutako prozedura, metodologia eta laguntza-tresnetan, bermatzeko erakundeari negatiboki eragin diezaioketen mota guztietako arriskuak modu sistematikoan, irizpide uniformeekin eta gure Zuzendaritza Batzordeak ezarritako tolerantzia-mailen barruan identifikatzen, aztertzen, ebaluatzen, kudeatzen eta kontrolatzen direla.

Erakunde guztiaren erantzukizuna da arriskuak identifikatzen eta kudeatzen laguntzea. Jarduera horiek koordinatzeko, Mutualiak Hiru Babes Lineen ereduari jarraitzen dio, egitura honen arabera:

Defentsa-lerroen eskema orokorra



Lehenengo defentsa-lerroa: kudeaketa operatiboa

Sailek osatzen dute, eta arriskuen eta haien kudeaketaren jabeak dira; horrenbestez, haien ardura da barne-kontrol eraginkorra izatea eta arriskuen gainerako kontrolak etengabe gauzatzea eguneroko lanean, eta haien ardura da, halaber, sistemetako eta kontroleko hutsuneei aurre egiteko neurri zuzentzaile egokiak ezartzea.

Bigarren defentsa-lerroa: arriskuen kudeaketa

Arriskuak Antolatzeko eta Kudeatzeko Sailak, prozesu-taldeek eta egiturazko talde eta/edo talde iraunkorrek osatzen dute.

Arriskuak Antolatzeko eta Kudeatzeko Saila; haren funtzio nagusiak dira Mutualiaren arriskuak kudeatzeko sistema definitu eta berraztertzea, arrisku-mapak egin daitezen bultzatzea eta ezarritako ekintza-planen jarraipena egitea, identifikatutako arriskuak minimizatzeke.

Mutualiako prozesu-taldeek ezarritako helburu estrategikoen eta proiektuen jarraipena egiten dute, eta, desbideratzeak baldin badaude, ekintza zuzentzaileak ezartzeko eskatzen diete sailei.

Egiturazko taldeek eta/edo talde iraunkorrek sailek egiten dituzten ekintzen jarraipena egiten dute, haien betetze-maila kontrolatuz eta aplikatu beharreko politika eta araudietan

GRI
102
11GRI
102
14GRI
102
15

ezarritakoa garatuz.

Hirugarren defentsa-lerroa: barne-auditoretza

Barne Auditoretzako Sailak osatzen du, zeina Zuzendaritza Batzordeko Auditoretza Batzordearen mendekoa baita. Haren egitekoa da arriskuen kudeaketa, kontrola eta gobernu korporatiboa independentziaz eta objektibotasunez berraztertzea, barne hartzen dela lehenengo eta bigarren babes-lineen funtzionamendua. Hala, balioa eransten da, eta Mutualiaren funtzionamendua hobetzen.

Eredu horren bidez, kontrol-egitura optimo bat bermatzen dugu arrisku-mailei buruzko informazioa zabal dadin erakundean eta arrisku-maila horiek onargarriak izan daitezen gure helburu estrategikoak betetzeko prozesuan.

2022ko ekitaldian, aurrerapenak egin dira Arriskuaren Kudeaketaren Kultura Sendotzea makroproiektua zabaltzeko lanean. Makroproiektu hori 2021-2025 Plan Estrategikoan jasotzen da, eta alderdi hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- Arriskuen tipologia berriz sailkatzea. Arriskuen tipologiak berriz sailkatuta, arrisku-mapetatik ateratako informazioa hobetu da, txostenak Power BI tresnaren bidez egin baitira. Txosten horiek aukera ematen dute arriskuen-egoera zenbait ikuspegitatik ezagutzeko: eremuen arabera, arrisku-tipologiaren arabera, Mutualiaren arrisku globalaren kalkulua eginda eta abar.
- Ekonomia- eta finantza-saileko eta zerbitzu erradiodiagnostikoko arrisku-mapak, ingurumen-arriskuak eta laneko segurtasuneko eta osasuneko arriskuak berraztertzea.
- Arrisku penal eta moral gisa tipifikatutako arriskuak ebaluatzeke metodologia berraztertzea.
- Aurrerapenak IFKBSren etengabeko auditoretza diseinatzeko eta ezartzeko prozesuan; kontabilitateko eta kontabilitateaz bestelako informazioa trukatzeko programak garatu dira.
- Arriskuen mapan identifikatutako arriskuen ebaluazioari eta kontrolari buruzko iritzia sistematikoki txertatzea auditoretza-txostenetan eta/edo arrisku berriak identifikatzea, haiek bideratzeko eta gero tratatzeko.
- Zuzendaritza Batzordeko Auditoretza Batzordeak onetsitako barne-auditoretzako planaren % 92 bete da. Aldi honetan garrantzi handiagoa eman zaie informazio finantzarioari, informazioaren segurtasunari eta araudia betetzeari lotutako arrisku eta kontrolei, besteak beste.

Sistematika hori, arriskua ebaluatzeke eta gure jarduketak lehenesten laguntzeko aukera emateaz gainera, baliagarria da arriskuen kudeaketako eremu jakinetako ziurtagiriak berritzeko; esate baterako:

- UNE 179003 "Pazientearen segurtasunerako arriskuen kudeaketa"
- UNE 179006 "Osasun-laguntzarekin zerikusia duten infekzioen zaintza, prebentzioa eta kontrola"
- ISO 27001 "Informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema"
- UNE 19601 "Compliance penala kudeatzeko sistema"
- Informazio Sistematarako Segurtasunaren Eskema Nazionalaren arabera ziurtagiria (kategoria ertainekoak)
- Ondoren zehazten diren ziurtagiri hauek ere berritu ditugu. Ez dira espezifiki arriskuei buruzkoak, baina, haien goi-mailako egitura dela eta, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio arriskuen kudeaketari:
 - ISO 9001 "Kalitatea kudeatzeko sistema"
 - ISO 14001 "Ingurumena kudeatzeko sistema"
 - ISO 50001 "Energia kudeatzeko sistema"
 - ISO 45001 "Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistema"

Ziurtagiri horiek puntu garrantzitsua dira arriskuak kudeatzeko gure sisteman, kanpo-erakunde akreditatuek baliozkotutako prebentzio-kontrolak baitira, eta, hala, gure sistemaren eraginkortasunak berme handiagoa hartzen du interes-taldeen artean.

05.02 Kode Etikoa, Arrisku Penalen Prebenziorako Plana eta Politika

Mutualiaren Kode Etikoa, Zuzendaritza Batzordeak onetsia 2015eko uztailaren 13ko bileran eta 2021eko abenduaren 17ko berrikuspenean onetsitako testua dagoela indarrean, erakunde eta pertsona mutualistekiko erantzukizun-ekintza bat da, eta bat dator Mutualiaren balioekin: gertutasuna, eraginkortasuna, taldea, profesionaltasuna, gardentasuna eta abangoardismoa.

Gobernu Korporatiboko sistemaren parte da, eta Mutualiaren egokitzapen etikoko proiektuan txertatzen da, zeina 2021-2025 aldirako Plan Estrategikoaren ikuspegi etikoan eta plan horretako ildo estrategiko batzuetan gauzatzen baita.

Plan estrategiko horren garapenari dagokionez, Zuzendaritza Batzordeak Mutualiaren jokabide profesionalari buruzko arau orokorrak onetsi ditu 2022an. Arau orokor horien oinarria dira erakundearen helburua, xedea, balioak eta Kode Etikoa, erakundearen enpresa-kulturaren oinarritzko elementu direnez.

Halaber, "Interes-gatazketarako prebentzioko, detekzioko eta kudeaketako protokolo orokorra" onetsi du Zuzendaritza Batzordeak maiatzaren 27ko bileran, dagozkion eremu eta kasuetarako. 2022an garatu da, Mutualiaren kontratazio publikoko prozeduran sartu beharreko konfidentzialtasun-konpromisoaren, interes-gatazken prebentzioaren eta debekuen berri emateko dokumentuak eranskin gisa onetsi baitira.

Delituen prebentziorako politikaren (Compliance penala) azken bertsioak –Zuzendaritza Batzordeak onetsia 2022ko urriaren 28an–, Gobernu Korporatiboaren Politikarekin bat etorritik, eredu elementu nagusiak barne hartzen ditu, eta erakundeak araudi penala behar bezala betetzen dela bermatzeko duen asmoari dagozkion helburuak zehazten ditu. Haren edukia ezagutzeko eta betetzeko beharra ezartzen die Mutualiako gobernu- eta partaidetza-organoetako kide eta ordezkari diren pertsona fisiko guztiei –edozein dela ere haien maila hierarkikoa, kokapena eta funtzioak–, baita enplegatu guztiei ere. Mutualiaren izenean eta hura ordezkatzuz diharduten hirugarrenei ere badagokie politika hori. Erakunde barruko komunikazio-atari korporatiboan eta gure webgunean argitaratuta dago, pertsona juridikoaren erantzukizun penalaren prebentziorako Mutualiaren planeko oinarritzko ardatzak diren gainerako dokumentuekin batera.

Betetze Korporatiboaren Batzordeak ekimena eta kontrola egikaritzeko botere autonomoak ditu ezarritako prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betetze-maila ikuskatzeari dagokionez, eta haren erantzukizuna da indarrean dagoen legediak sailei nola eragiten dien aztertzea eta Mutualan eragina duten arrisku penalak identifikatzea (arrisku penalen mapa landuz). 2022ko ekitaldian, arrisku penalaren ebaluazioa etengabe berraztertze lanarekin jarraitu da: Zigor Kodean pertsona juridikoarentzat jasotzen diren delitu-motei lotutako jokabideak aztertze metodologiatik eta sailetan ezarritako kontrolak egokitu dira, eta garrantzi handiko prozedurak onetsi dira; besteak beste, sexu-jazarpena prebenitzeko protokoloa.

Hala, hauek dira Mutualan ezarritako pertsona juridikoaren erantzukizun penalaren prebentziorako planeko oinarritzko ardatzak: Kode Etikoa, Compliance penaleko politika, arriskuen mapa (jardueraren bilakaerarekin eta lege-aldaketekin eguneratua), arrisku penalei buruzko betearazte- eta prebentzio-eskuliburua (2022ko urrian berrikusia eta onetsia), Interes-gatazketarako prebentzioko, detekzioko eta kudeaketako protokolo orokorra, eta Komunikazio-kanalerako eta salaketarako prozedura. Plan horren xedea da delitu-arriskua prebenitzeko edo modu esanguratsuan murrizteko zaintza- eta kontrol-neurri egokiak barne hartzen dituen antolamendu- eta kudeaketa-eredu bat ezartzea eta eraginkortasunez egikaritzea.

GRI
102
16

GRI
102
17

GRI
205
103

Betetze Korporatiboaren Batzordeak etengabeko gaikuntza-programa bat eskaintzen die kideei. Betetze Korporatiboko zuzendaria da batzorde horren presidentea. 2022an egindako jardueren artean, nabarmentzekoa da foro, biltzar eta eguneratze-jardunaldi batzuetako prestakuntza. Hirugarren aditu baten aholkularitza eta lankidetzak juridiko-teknikoa jasotzen du Batzordeak, eta Mutualia Espainiako Compliance Elkarteko (ASCOM) kide da, haren prestakuntza-programa zabalerako sarbidea izateko eta nobedade guztien berri jasotzeko. 2022ko ekitaldian, halaber, nabarmendu beharrekoa da Europako 2019/1937 Direktibaren azterketa; Espainiako Ordenamendu Juridikora transposizioz moldatuta, 2/2023 Legea sortu da, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena.

Prebentzio penalari buruzko aldizkako prestakuntzaren eta barne-komunikazioaren plangintzaren testuinguruan, urteko bigarren seihilekoan Zuzendaritza Batzordeko eta Kudeaketaren Jarraipenerako Batzordeko kideentzako prestakuntza-ekintza bat egin da. Hauek izan dira prestakuntza-ekintza horretako eduki esanguratsu eta zeharkakoak: 2019/1937 Direktiba, interes-gatazkei buruzko protokolo berria eta 10/2022 Lege Organikotik eratorritako aldaketak. Urte-amaieran, "Whistleblowing Direktiba"ri buruzko bideo bidezko prestakuntza-jarduera bat planifikatu zen, eta hartan parte hartzeko deialdia egin zitzaion langile guztiei.

AENOREk –Ziurtapeneko Erakunde Nazionalak (ENAC) akreditatua Compliance penaleko kudeaketa-sistemen UNE 19601 Arauaren araberrako ziurtagiriak egiteko– Mutualiaren sistemaren auditoretza egin du abenduan: erakundearen elementu guztiak egiaztatu ditu zehaztutako eskakizunei dagokienez, eta 2019ko abenduan lortutako ziurtagiria berritu du 2023ko urtarrilaren 17an; 2026ko urtarrila arte izango da indarrean.

GRI
205
2GRI
418
103

05.03 Informazioaren segurtasuna eta datuen babesa

Mutualiak, bere izaera juridikoa eta eskaintzen dituen zerbitzuak direla eta, datu pertsonalen zenbait kategoria tratatzen ditu, legeetan datu pertsonalen kategoria berezitzat jotzen direnak barne hartuta; halakoak dira, adibidez, osasunari buruzko datuak.

Datuen Babeserako Espainiako Agentziako Kabinete Juridikoaren 17302/2018 txostenaren arabera (kabinetearen aurreko 189/2008 eta 350/2009 txostenetan jasotako irizpideak berresten ditu), Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek legez egozten zaien jardueran kudeatzen dituzten datu pertsonalen tratamenduaren arduradunaren izaera dute.

MUTUALIA erakundea hauen mende dago, eta bermatu behar du zorrotz betetzen dituela: apirilaren 27ko Datuak Babesteko (UE) 2016/679 Erregelamendu Orokorra (DBEO), Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (DBEDBLO) eta haiekin lotura izan dezaketen eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

Mutualiak araudi hori betetzeko duen eredia elementu hauetan oinarritzen da:

- Datuen Babeserako ordezkaria (AEPDren datuen babeserako ordezkarien eskemaren arabera ziurtatutako abokatua).
- Segurtasun-arduraduna (Informazio Sistemetak Zuzendaritza).
- Segurtasun Batzordea eratzea eta etengabeko funtzionamendua.
- Segurtasun Batzordeari laguntzeko kanpo-aholkularitza, datuen babesean espezializatua.
- Erakundeko Arriskuen Kudeaketako Sistema Orokorra.
- Diseinu estrategikoko prozesuko arriskuei buruzko txostena eta kudeaketa.
- Segurtasuneko eta Datuen Babeseko Politika Orokorra.
- Datuen babesari buruzko arauak betetzeko eskuliburua.
- DBEOko prozedura, arau eta jarraibideak txertatzea kudeaketa-prozesuetan.
- Tratamendu-jardueren erregistroa.
- Datuen babesari eta konfidentzialtasunari buruzko kontratuak tratamenduaren arduradunekin.
- DBEOko klausulak eta konfidentzialtasuna komunikazioetan, gune elektronikoetan, dokumentuetan eta kontratuetan.
- Etengabeko prestakuntza, hedatzea eta sentsibilizazioa erakundeko langileen artean.
- AEPDren eta CEPDren irizpideetara eta jurisprudentziara egokitzea etengabe.
- Datuetara irispidea izateko, haiek zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, haien eramangarritasunerako eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak gauzatzen direla zaintzea.
- Arriskuen mapara egokitutako segurtasun-neurriak ezartzea.
- DBEOko arriskuak modu jarraituan ikuskatzen dituen Barne Auditoretzako Saila.
- Datuak babestea diseinutik bertatik eta lehenespenez.
- Datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioak (DBEE) AEPDren giden arabera beharrezkoa den tratamenduetan edo proiektu berrietarako arriskuen azterketak gomendatzen duenean.
- Interes legítimoaren ebaluazioa/haztapena legitimazio-oinarri honetako kasuetan.
- AEPDri alde zurretiko kontsultak egiteko beharra DBEEtik hondar-arrisku altua ondorioztatzen bada.
- AEPDri segurtasun-etenen berri emateko betebeharra.

Araudia betetzeko, neurri tekniko eta antolakuntza-neurri egokiak ditu Mutualiak, ARRISKUAK KUDEATZEKO sistema integral bat barne dela, arriskuari dagokion segurtasun-maila egokia bermatzeko, nolanahi ere sistema, zerbitzu eta datuen irisgarritasuna, osotasuna, erresilientzia, erabilgarritasuna, benetakotasuna, trazabilitatea, kontserbazioa eta konfidentzialtasuna bermatuta, haien eraginkortasuna egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesuekin.

Mutualiak INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA kudeatzeko sistema integral bat dauka, ISO/IEC 27001 nazioarteko estandarraren arabera. Gure erakundeak estandar horren arabera eta ENACek ziurtatutako erakunde batek emandako ziurtagiria dauka, eta barne-auditoretzak eta kanpo-auditoretzak egiten dira aldizka.

2022an, Segurtasunaren Eskema Nazionalaren (ENS) neurri tekniko eta antolamenduko ziurtagiria jaso du Mutualiak ENACek ziurtatutako kanpo-auditoretzako entitate batengandik.

2022an, DBEO erregelamenduak Mutualian duen inplementazioa ziurtatzeko auditoretza-prozesu

bat egin da, berariaz horretarako kontratatutako auditoretza-erakunde baten bidez.

Araudi hori ez dute jarraibide estatiko hutsek osatzen, izaera dinamikoa, aldakorra eta kasuistika ugarikoa baita. Horregatik, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNEN ETA DATUEN BABESEKO BATZORDEA (aurrerantzean, Segurtasun Batzordea) sortu da organo espezifiko eta espezializatu gisa, MUTUALIAko Arriskuen Kudeaketako Sistemako bigarren babes-linean txertatuta, zeinak Erakundearen jardueren informazioaren segurtasunarekin eta datu pertsonalen babesarekin zerikusia duten alderdi guztiak zaintzen, bultzatzen, sustatzen, bideratzen, informatzen eta kontrolatzen baititu eta haiei buruzko zalantza eta galderei erantzuten baitie. MUTUALIAko Segurtasun Batzordeko kide iraunkorrak dira Segurtasuneko arduraduna, Informazio Sistemetako Zuzendaritza, Antolamenduko eta Arriskuen Kudeaketako Zuzendaritza eta Datuen Babeseko ordezkaria.

Pertsonak babesteko ITUN DIGITALarekin (Datuen Babeserako Espainiako Agentziarena) bat egin du Mutualiak 2022ko otsailaren 22an.

2022an, MUTUALIAko Datuen Babeseko ordezkariaren eta Segurtasun Batzordearen jardueraren barruan, hauek nabarmendu dira:

- Tratamendu Jardueren Erregistroa (TJE) berrikustea
- Datuen babesari eta informazioaren segurtasunari buruzko arriskuen maparen berrikuspena.
- Auditoretza-txostenen jarraipena eta haietatik eratorritako ekintzak.
 - ARRISKUEN AZTERKETAREN - DBEEREN prozedura birdefinitzea (DISEINUKO ETA LEHENESPENEZKO PRIBATUTASUN-prozedura).
 - Datuak GORDETZEKO EPEAK birdefinitzea.
 - Interes legitimoaren tratamendua legitimazio-oinarri honetan ebaluatzeko prozedura eguneratzea.
 - Tratamendu-arduradunak homologatzeko prozedura eguneratzea.
 - ESKUBIDEAK GAUZATZEKO prozedura berrikustea:
 - TRATAMENDU-JARDUEREN ERREGISTROA (TJE) Gardentasun Atarian argitaratzea.
- BIDEOKONFERENTZIETAN/BILERA TELEMATIKOETAN/WEBINAR moduko prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonen irudia/audioa grabatzeko protokoloa onestea.
- TELEMEDIKUNTZAko ekintzen (kontsulta medikoetarako bideokonferentzia bide telematiko bitartez) jarraibide bat onestea, datuen babesari eta informazioaren segurtasunari buruzko neurriak barne hartzen dituen.
- 2022ko maiatzaren 25etik aurrera indarrean jarraitzeko aurreikuspena duten tratamendu-arduradunen kontratuak berrikustea, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren BOSGARREN Xedapen iragankorraren arabera.
- Datuen babesaren erabilera egokiari eta ekipamendu, gailu, aplikazio eta sistemen erabilera egokiari buruzko arauak eguneratzea.
- Mutualia erakundearen datuen babesarekin zerikusia duten lege berriak (10/2022 Lege Organikoa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa) ezartzeko neurrien azterketa eta jarraipena.
- Proiektu berrietan arriskuen azterketa egitea, eta, hala badagokio, datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa ikuskatzea.
- Datuen babesari buruzko eskubideak gauzatzeari buruzko espedienteen jarraipena.
- Barruko prozedura, arau eta jarraibideak egiteko prozesua bultzatzea, ikuskatzea eta aholku ematea.
- Kontratuzko eta informazioa emateko klausula eta ereduak egiteko prozesua bultzatzea, ikuskatzea eta aholku ematea.
- Lege-oharrak, datuen babesari buruzkoak eta webgune korporatiboaren pribatutasunari buruzkoak eguneratzea.
- Datuen babesari eta/edo informazioaren segurtasunari buruzko gorabeheren jarraipena.
- AEPDk eta CEPDk urtean ateratako irizpideen/txostenen/giden azterketa.
- Trebakuntza- eta kontzientziazio-ekintzak sustatzea. Zibersegurtasunari buruzko nahitaezko trebakuntza-ekintzak egin dira.
- Datuen babesari dagokionez erakundeko sailetan dauden erreferentziazko pertsonetikiko elkarriketak.
- Datuen babesaren inguruko kontsulta eta galderei buruzko aholkularitza Goi Zuzendaritzari eta sailei.
- DBEO erregelamenduari eta informazioaren segurtasunari dagokien barne-auditoretzako neurri zuzentzaileen betetze-mailaren jarraipena.

05.04 Finantza-inbertsioen jokabide-kodea

“Irabazi asmorik gabeko erakundeek baloreen merkatuan aldi baterako finantza-inbertsioak egiteari buruzko Jokabide Kodea” betetzen du Mutualiak. Kode hori Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren Kontseiluak 2019ko otsailaren 20an hartutako Erabakiaren bidez onetsi zen, eta BOEn argitaratu zen 2019ko martxoaren 5ean.

Mutualiak finantza-inbertsio guztietara hedatu ditu kode hori zuzentzen duten printzipioak. Horretarako, erakundearen izaerari egokitutako inbertsio-politika definitu du, barne-kontrolako funtzioa du, aginte eta independentziarekin, inbertsio-politika betetzen dela egiaztatzeaz arduratzeko, eta Finantza Inbertsioen Batzorde bat sortu du, behar diren ezagutza teknikoak dituzten zuzendaritzako langileek osatua eta, aldi berean, hirugarrenen aholkularitza profesionala duena.

Inbertsioen Jokabide Kodea betetzen dela kontrolatzeko adierazle hauek zehaztu dira, eta 2022eko ekitaldian balio hauek aurkeztu dira:

Inbertsioen adierazleak

Adierazlea	2021	2022
Epe laburreko likidezia (Egokia 1 eta 1,5 artean; 2 baino gehiagok Diruzaintzako soberakina adierazten du)	1,7132	1,8559
Segutasuna (onartutako gutxienekoa S&P-ren arabera)	BBB	BBB
GS errentagarritasuna (Gizarte Segurantzaren Kudeaketako Diruzaintzako guztizkoa)	%1,64	%0,97
OH errentagarritasuna (Ondare Historikoaren Kudeaketako Diruzaintzako guztizkoa)	%0,08	%0,04
Eragiketa espekulatiboen zenbakiak	Bat ere ez	Bat ere ez

Aurreko Jokabide Kodea alde batera utzita, Mutualiak azaroaren 14ko 1622/2011 Errege Dekretuaren 30. artikuluan ezarritakoa ere bete du. Errege Dekretu horren bidez, Mutualitateak Kudeatzeko Lankidetzari buruzko Erregelamendu Orokorra aldatu zen. Lege horrek finantza-inbertsioak eta erreserba eta funts propioak gauzatzeko modua arautzen ditu, eta 2022eko ekitaldian egindako finantza-inbertsioen eskuratze eta besterentze guztietan aplikatu da.

Azkenik, prozedura gardenagoa izan dadin eta Finantza Inbertsioen Jokabide Kodeari berari jarraituz, Mutualiak “Jokabide Kodearen betetze-mailari buruzko Inbertsio Batzordearen txostena” egiten du urtero. Txosten hori Zuzendaritza Batzordearen onespeneren mende jartzen da, eta horren berri ematen zaie enpresaburuei Ohiko Batzar Orokorrean.




05.05 Kudeaketa ekonomikoaren adierazleak

Gizarte Segurantzaren eta Ondare Historikoaren jasagarritasun ekonomikoa eta baliabideen kudeaketaren optimizazioa lortzeko, beharrezkoa da kudeaketa aurreratua eta etikoa izatea.


Erakunde kaudimenduna izateko, erreserba-estaldurak maila egokietan egon behar du. Erakundeak erabiltzeko moduan dituen baliabideetan oinarrituta egiten duen kudeaketa orokorraren emaitza dira atal honetan jasotzen diren adierazle ekonomikoak. Baliabide horiek beti ez dira nahikoak prestazio bat behar bezala estaltzeko. Adibidez, kontingentzia arruntagatiko aldi baterako ezintasunaren kasuan, kontingentzia hori finantzatzeko sartzen diren 100 euroko, 158,59 euro bideratzen dira prestazioak ordaintzeko.

Memoria honetako 10. atalean xehetasunez jasotzen da informazio ekonomiko eta finantzario guztia.

Gizarte Segurantza kudeatzeko kontuaren adierazle garrantzitsuak



Ondare Historikoa kudeatzeko kontuaren adierazle garrantzitsuak




(1) 2022ko ekitaldirako aldatu egin da Kontingentzia Profesionalak Egonkortzeko Erreserbarako gehieneko estalduraren muga, eta % 45etik % 30era igaro da (gutxieneko muga % 20 da). Abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 25. azken xedapenaren bederatzigarren zenbakiak sartu zuen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 35. xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua), eta testu bategin horretako 95.2 (erreserbak), 96.1 (soberakina) eta 118.3 (soberakina Erreserba Funtsean sartzea) artikuluetan xedatutakoa betez –31/2022 Legearen azken xedapenetako 25. apartatuetako bat, bi eta zazpi zenbakiak emandako idazkera berrian–, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen 2022ko urteko kontuen likidazioa aplikatuko da.

GRI
102
2GRI
102
7

Prestazioetako zenbatekoak

Prestazioak	2021	2022	▲▼ %
Kontingentzia arruntengatiko Aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak	138.463.405 €	161.495.570 €	%16,63
Kontingentzia profesionalengatiko Aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak	35.351.128 €	42.994.127 €	%21,62
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua	15.548.803 €	16.027.164 €	%3,08
Kontingentzia profesionalen ondoriozko sekuelak eta heriotzak	26.936.411 €	26.080.638 €	%-3,18
Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea	4.033.962 €	4.816.771 €	%19,41
Langile autonomoen jarduera etetea	7.940.408 €	8.665.802 €	%9,14
COVID-19a	69.356.677 €	60.691.663 €	%-12,49
LAJE COVID: Ezohiko LAJE	31.067.669 €	1.576.714 €	%-94,92
Guztira	328.698.463 €	322.348.449 €	%-1,93

Prestazioen banaketa 2022eko ekitaldian



(1) Ohiko eta ezohiko jarduera uztea araudi bakoitzean

Prestazioen zenbatekoen %, horietako bakoitzean sartutako kuotei dagokienez

Prestazioak	2021	2022
Kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak	%163,02	%158,50
Kontingentzia profesionalengatiko aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak	%13,12	%15,04
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua	%5,77	%5,61
Kontingentzia profesionalen ondoriozko sekuelak eta heriotzak	%10,00	%9,12
Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea	%1,50	%1,69
Langile autonomoen jardura etetea	%102,54	%120,16
Kuoten inguruko prestazioen ratio orokorra	%63,03	%65,85

Kontingentzia profesionalaren adierazleak

	2021	2022	▲▼ %
Bajaren batez besteko iraupen ekonomikoa (egunak)	38,68	38,28	%-1,03
Baja ekonomikoaren eragina	38,52	36,16	%-6,13
Egun ekonomikoak langile afiliatu bakoitzeko	1,52	1,59	%4,61
Ezbehar-kopuru osoa x 1.000	81,10	83,21	%2,60
Baja duten ezbeharrak x 1.000	35,51	38,11	%7,32

Kontingentzia arruntaren adierazleak


	2021	2022	▲▼ %
Alta-prozesuen batez besteko iraupena (egunak)	53,28	40,57	%-23,86
Eragin ekonomikoa (‰)	124,7	139,7	%12,03
Alta-proposamenak	4705	5581	%18,62

05.06 Baliabideen kudeaketa

2022ko ekitaldian, Baliabide Kudeaketako sailaren helburu nagusia izan da kudeaketaren efizientzia eta efikazia hobetzen jarraitzea, bai baliabideei dagokienez, bai barruko eta kanpoko bezeroei eskainitako zerbitzuei dagokienez. Helburu hori lortzeko, ekintza hauek egin dira, besteak beste:

- Kontratazio-prozedurak sakon aztertzea, hobekuntza posibleak identifikatzea eta sailen inbertsio-eskaerei erantzutea.
- Sailtako arduradunei trebakuntza eta laguntza administratiboa eskaintzea, kontratazioari buruzko ezagutzak eta gaitasunak hobetzeko.
- Hornitzaileekiko harremana sendotzea, Kontratatu Mutualiarekin plataformaren bitartez, eta tokiko enpresek kontratazio-prozeduretan parte har dezaten bultzatzea, betiere berdintasunaren, gardentasunaren eta ez diskriminatzearen printzipioak errespetatuz.
- Kontratuen egikaritze-mailaren etengabeko jarraipenarekin eta kontrolarekin jarraitzea, betetzen direla ziurtatzeko eta emandako zerbitzuen kalitatea bermatzeko.
- Komunikazio jarraitua izatea Mutualiako sailekin, haien beharrei eraginkortasunez erantzuteko eta haien jardueretarako behar dituzten ondasun eta zerbitzuak jaso ditzaten.
- Asistentzia-prozesua humanizatzeko proiektuarekin bat etorriz, eraikinak egoera onean izateko behar diren mantentze-lanak, obrak eta konponketak egitea.

2022ko ekitaldian 41 milioi euro kudeatu dira. Zenbateko horretatik, % 80,40 EAEko hornitzaileekin kontratatatu da, honela xehatuta:



Fakturaturako guztizko hori 97 lizitazio-espeditetan eta 62 kontratu txiki eta zuzeneko erosketa-eskaeratan banatu da. Haietatik 1.825.068,89 €-ko errentagarritasuna lortu dugu, gehieneko tarifak jaisteari eta prezioei eusteari esker; alderdi horiek batzuetan eragina izaten dute hurrengo ekitaldietako emaitzetan.

- GRI 102 9
- GRI 204 103
- GRI 306 103
- GRI 308 103
- GRI 410 1
- GRI 414 103
- GRI 414 1

Ekitaldi honetan gastu publikoa hobeto kudeatzeko egin diren lizitazio-espeditenteei dagokienez, ekintza hauek nabarmentzen ditugu: Mutualia guztiko garbiketa-zerbitzuaren datozen lau urteetarako kontratuak espediente bakar batean bateratzea, Gasteizko Zerkabarren kaleko lokala material sanitario eta administratiboa behar bezala gorde ahal izateko eraberritzea eta historia klinikoen digitalizazioa (jada ez dira gordeko paperean).

Gainera, Informazio Sistemen sailarekin lankidetzan, espediente hauek bultzatu ditugu, hobekuntzak eta berrikuntzak ezartzeko:

- **Sailerako dokumentu-kudeatzaile berri bat**, kontratuen eta eskaeren dokumentazio esanguratsuenaren erabilgarritasuna eta irispidea hobetzeko eta, halaber, sailetik kanpoko eskaerei erantzuteko denbora murrizteko.

Horri esker, SAPen gordetzen den dokumentazioa sortzen diren eskaera eta/edo kontratuei lotuko zaie, halako moldez non Erosketak eta Kontratazioa saileko eta sail ekonomiko eta finantzarioko langile guztiek izango baitute kudeaketarako, jarraipenerako eta ordainketarako behar duten dokumentaziorako irispidea.

Halaber, dokumentu-kudeatzaile horrek auditoretzako eskakizunak beteko ditu, sail eta departamentuetako langileen lana arinduko du, eta paper-kontsumoa eta biltegiartzeko lekua murriztuko ditu; eta, hari esker, beste sail batzuetako langileek beren kabuz kontsultatu ahal izango dituzte beren kudeaketetako dokumentuak.

- **Emate-agirien kudeatzaile bat**, farmaziako biltegietatik datozen gorabeheren kudeaketa arintzen duena. Gorabeheretarako mezu elektronikoak erabili orde, haiei buruzko datuak Share Pointen berariaz diseinatutako aplikazio batean sartzen dira. Horri esker, errazagoa da gorabeherak kudeatzea eta haien jarraipena egitea ixten diren arte, eta, gainera, ez da paperik erabiltzen eta akats posibleak saihesten dira.
- **Kontratu txikiak argitaratzeko aplikazio bat**, aukera ematen diguna Mutuialiak izapidetutako mota horretako kontratuei buruzko datuak formatu ireki eta berrerabilgarrian argitaratzeko betebeharrak betetzeko. 2022ko laugarren hiruhilekoko kontratu txikiei buruzkoa izan da modu horretan egindako lehenengo argitalpena.

05.07 Ingurumen-kudeaketa

Gure baliabideen kudeaketako ingurumen-alderdiei dagokienez, erosketa eta kontratazio arduratsuak egiteko, printzipio hauek betetzen jarraitzen dugu:

- Gure ingurunean inpaktu handia duten materialak **GUTXIAGO** erostea eta erabiltzea.
- Ingurumen-irizpideak aplikatzea eta beharrak aztertzea **EROSTEKO GARAIA**.
- Sortutako hondakin guztiak **KUDEATZEA**.
- **BERRERABILTZEA**, "baztertze" baliabideak sailen eta langileen eskura jarritz.
- Mutuialian eta gure etxeetan egin ditzakegun ekintza eta ekimenen bidez **SENTSIBILIZATZEA**.

Alderdi horiek guztiek sailerako eta Mutuialiarako duten garrantzia dela eta, Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030 ekimenarekin dugun konpromisoa berritu dugu 2022an, IHOBerekin. Hala, gure kontratazioetan neurri sozialak eta ingurumenekoak aplikatzea bultzatu dugu, gure kontratuen esleipendun izan nahi duten erakundeentzat nahitaezkoak izango baitira.

Neurri sozialei dagokienez, gure hornitzaile guztiek gure jokabide-kodea onartu beharko dute, eta, gainera, espedienteetan txertatu dugu 50 langile baino gehiago dituzten enpresek Berdintasun Plana —behar bezala erregistratua— aurkezteko eskakizuna. Halaber, zerbitzuak

GRI
303
103GRI
302
103GRI
301
103GRI
306
103GRI
306
2

eskaintzeko langileak kontratatzeako beharra eragiten duten espedienteetan, gizarte-bazterketako arriskuan dauden emakumeak kontratatzea baloratzen da, bai zerbitzua emateko, bai baja-egoeretan eta oporraldietan ordezkapenak egiteko.

Ingurumen-kudeaketari dagokionez, ingurumenaren errespetuarekin eta babesarekin dugun konpromisoa sendotzen jarraitu dugu, eta, legezko betebeharrak betetzeaz gainera, lan egin dugu poluzioaren prebentzioan, baliabideen kudeaketa eraginkorrean eta plastikokontsumoaren murrizketan.

Hala, 2022an jasangarritasunari buruzko ziurtatzeak egin dira BEASAINgo zentroan, eta Evolution Excellence Q Jasangarria lortu da; horrez gainera, eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak lortu dira Mutualiako zentro guztietan, eta ikuskaritza energetikoak berritu dira.

Co2-emisioak murrizteaz, energia berdea sustatzeaz, bilgarrietako plastiko-kantitatea murrizteaz eta Mutualiako baliabideen eta altzarien balio-bizitza luzatzeaz ari garela, alderdi hauetan hobekuntza espezifikoak egiteko espedienteak kudeatu dira:

- Produktuetako plastikoa murriztea; adibidez, 2022/042/01 "Maskaren hornikuntza" espedientearekin, zeinean lizitatzailerei exijitzen baitzaie bizi-ziklo guztian ingurumen-irizpideak betetzen dituzten produktuak eskaintzeko eta haiek fabrikatzeko erabiltzen diren produktu eta akaberak eta bilgarriak plastikorik gabeak eta ingurumenerako bestelako substantzia arriskutsurik gabeak izateko.
- Eraginkortasun energetikoa; adibidez, 2022/038/01 "Ekipamendu informatikoaren hornikuntza" espedientearen bitartez: lizitatzailerek entregatu beharko dituzte eskaintako produktuen ingurumen-balioa, energia aurrezteko aukera ematen duten funtzionamendu-moduak, bero-disipazioko ezaugarri onenak, substantzia kaltegarrien emisio-mailak ez gairiditzea, etab. bermatzen duten ziurtagiri edo ezaugarriak. Eta 2022/090/01 "EAEko pazienteen lekualdatzea" espedientearen bitartez balioesten da ibilgailu-flota hibridoa eta bi fuelekoa izatea, gidariek gidatze ekologikoari buruzko prestakuntza izatea eta ikuskaripeneko eta jarraipeneko sistematikak, ikuskatzeen edukiak, kontrolerako formularioak eta ingurumen-kudeaketari buruzko neurriak ezartzeko programak kontuan hartzea ingurumen-inpaktua murrizteko beharra.
- Klima-alaketarena urkakoborrokan laguntze ahiri irisgarrien bitartez; esate baterako, 2022/007/01 "Tolosaldeko ospitale bateko osasun-zerbitzuak" espedientearekin eta 2022/033/01 "Neurofisiologia klinikoa Gasteizen" espedientearekin: esleipen-irizpide gisa jasotzen dute garraio publiko bidez instalazioetara erraz joan ahal izatea. Hala, hirietako zirkulazioa arintzen eta garraio publikoa bultzatzen laguntzen da.
- Kontsumo arduratsua; adibidez, 2022/028/01 "Mutualiako zentroetarako garbiketa-zerbitzua" espedientearen garbiketa-produktuetan eta produktu kontsumigarrietan kontsumo arduratsuak bultzatzen dituzten esleipen-irizpideak ezartzen dira; 2022/091/01 "Ibilgailuen alokairua" espedientearen balioesten dira CO2-emisioak neutralizatzeko eta kontsumo-ratioak optimizatzeko ekintzak; eta 2022/095/01 "Igogailuen mantentze-lanak" espedientearen igogailuen energia-kontsumoren murrizketa balioesten da. Gainera, dokumentazioa sortzen duten espedienteetan, dokumentazio hori formatu elektroniko eta telematikoan kudeatu, bidali eta gorde behar da, eta, horri esker, nabarmen murrizten da paperaren erabilera.

GRI
306
2

GRI
306
103

Taula hauetan, elementu birziklagarrien kontsumoa, hondakinen sorrera, energiaren eta beste hornidura batzuen kontsumoa, etab. jasotzen dira.

Energia eta uraren kontsumoa

Kontsumoa	2021	2022	▲▼ %
Elektrizitatea	%58,21	%59,89	%2,89
Gas naturaleko	%29,41	%26,92	%-8,47
Biomasa	%11,64	%13,19	%13,32
Ura M³	8.699,00	9.054,85	%4,09

Energia-kontsumoa iturriaren arabera

Kontsumoa	2021	2022	▲▼ %
Elektrikako gigajouleak (berdea)	8.687,33	8284,95	%-4,63
Gas naturaleko gigajouleak	4.388,81	3692,95	%-15,86
Biomasa-gigajouleak	1.737,58	1823,97	%4,97
Gasolio-gigajouleak¹	80,50	0	%-100,00
Baterako sorkuntzako gigajouleak	30,02	31,5	%4,93
Guztira	14.924,24	13.833,37	%-7,31

(1) Donostiako Camino administrazio-zentroaren eta Pakea klinikaren arteko pertsonen garraio-linean erabilitako mikrobusak kontsumitutako gasolioa.

Paper, kartoi eta tonerren kontsumoa

Kontsumoa	2021	2022	▲▼ %
Paper- eta kartoi-kilogramoak ^b	7.648,01	7729,55	%1,07
Paper- eta kartoi-kilogramoak pertsonako¹	11,78	12,06	%2,36
Toner-kilogramoak ^b	837,00	940,00	%12,31
Kilogramos de toners por persona¹	1,29	1,47	%13,68

(1) Batez besteko plantilla kontuan hartuta
(b) birziklatzea

GRI 301 1

GRI 306 2

GRI 306 103

GRI 204 1

GRI 302 1

GRI 302 5

GRI 303 1

Hondakinak

Hondakinak	2021	2022	▲▼ %
Paper- eta kartoi-kilogramoak ^b	26.463,20	20.038,55	%-24,28
Paper- eta kartoi-kilogramoak pertsonako ¹	40,78	31,26	%-23,34
Toner-kilogramoak ^b	358,50	606,50	%69,18
Toner-kilogramoak pertsonako ¹	0,55	0,95	%72,03
Argiteria-kilogramoak ^{*b}	49,63	9,50	%-80,86
Argiteria-kilogramoak pertsonako ¹	0,07	0,01	%-80,00
Pila-kilogramoak ^{*b}	148,00	181,00	%22,30
Pila ² -kilogramoak pertsonako ¹	0,22	0,28	%27,27
Plastiko-kilogramoak ^b	1.536,00	1.708,00	%11,20
Plastiko-kilogramoak pertsonako ¹	2,37	2,66	12,43
Kutsatutako biosanitario-kilogramoak ^{*e}	2.416,85	1.728,55	%-28,48
Kontsulta bakoitzean kutsatutako biosanitarioen kilogramoak ³	0,017	0,01	%-45,87
Baztertutako sendagaien kilogramoak ^{*e}	216,00	196,50	%-9,03
Kontsulta bakoitzean baztertutako sendagaien kilogramoak ³	0,00150	0,00105	%-30,26

(1) Batez besteko plantilla kontuan hartuta
(2) Mutualian erabiltzen diren pilak, erabiltzaileek gure bilketa-puntuetan emandakoak
(3) Kontsultak: Lehenengoak, hurrengoak eta ebakuntza kirurgikoak (2022: 187.834)
(*) Hondakin arriskutsua. (b) birziklatzea. (e) erraustea.



GRI 306 103

GRI 301 1

GRI 306 1

GRI 306 2

GRI 306 3

GRI 306 4

GRI 306 5

05.08 Mutualiako langileek gizartearekin duten inplikazioa

Gizartea presentzia handiko interes-taldea da Mutualian. Hala, interes-talde gisa identifikatu da plan estrategiko berrian. Jarduera gauzatzen den inguruneari balioa emateko eta kausa sozialen alde borrokatzen den "herritarren enpresa" gisa jarduteko, beharrezkoa da erakundeko taldeen bitartez eta modu sistematikoan ingurunearekin interakzioan aritzea, egin beharreko ekintzak identifikatzeko eta ahalik eta eragin handiena izan dezaten lortzeko.

Memoria honetako 3.8 "Interes-taldeen konpromisoa eta parte-hartzea" atalean jasotzen dira informazio hori jasotzeko mekanismoak.

Aurreko urteetan bezala, 2022an Mutualiaren Monetizazio Soziala kalkulatzeko jarraitu da. Hurrengo atalean jasotzen dira horren xehetasunak.

Gure erakundearen izaeraren ondoriozko beste jarduera batzuk egiteaz gainera, erakundeko pertsona guztien zuzeneko eta zeharkako parte-hartzearekin ere lagundu dio Mutualiak garapen sozialari, bai proiektu jakinetara bideratutako ekarpen ekonomikoekin, bai borondatezko jardueretan parte hartuta.

EIAS taldea

Mota horretako ekarpen ekonomikoak eta borondatezko ekintzak Ekimen eta Jarduera Sozialen Taldearen bidez bideratzen dira (erakundean ezagunagoa da EIAS izenez). Talde horren helburua da beste erakunde batzuen ekimen solidarioei buruzko informazioa ematea erakundean eta sentibilizatzeko; Mutualiaren xedearekin eta erakundearen politikekin harreman estuena duten proiektu eta kanpainak hautatzen dituzte. Ekintza horiekin, Mutualiari gutxiago falta zaio lehenetsitako GJHetako batzuk lortzeko, 3.6 puntuan azaldu denez.

Mutualiaren xedeari jarraituz, helburu horiekin lortu nahi da osasuna, ongizatea, berdintasuna, dibertsitatea... hobetzea; hau da, politiketan jasotzen diren konpromisoekin zerikusia duen guztia. Politika horiek borondatezkoak eta publikoak dira.

EIAS taldearen jarduerak biatal hauetan banatzen dira: Zabalkundeak-Kanpaina, Boluntariotza eta Dohaintza.

Zabalkundeak-Kanpaina

Langileei informazioa ematen zaie, sentibilizatu egiten dira eta dirua biltzea sustatzeko kanpainak proposatzen zaizkie, aukeratutako proiektuak aurrera ateratzen laguntzeko.

Osasuna, ongizatearen, berdintasunaren, dibertsitatearen eta pobrezia-egoerak hobetzearen alde egiten duten erakundeetan zentratzen dira ahaleginak, hala nola:

- Umeekin (Minbizia duten Haurren eta Nerabeen Gurasoen Elkarleen Euskal Federazioa), zeinak Euskadiko ASPANAFOA, ASPANOVAS eta ASPANOGLI elkarteak biltzen baititu (Osasuna eta ongizatea).
- ALBOAN (Berdintasuna, pobrezia eta osasuna eta ingurumena).
- ELIKAGAIEN BANKUA (Pobrezia eta osasuna eta ongizatea). GURUTZE GORRIA (Osasuna eta ongizatea, klima-aldaketa, pobrezia).
- BERAKAH (Pobrezia).
- BAT (Osasuna eta ongizatea, pobrezia, ingurumena).



Boluntariotza - Boluntalia

Boluntalia proiektua sortu da Mutualiako langileen artean beste errealitate batzuk bultzatzeko eta sentsibilizatzeko, boluntariotza korporatiboaren bitartez. Haren helburua da mutuako langileen parte-hartzea lortzea, haien denbora, gaitasunak eta talentua irabazi-asmorik gabeko erakundeen proiektuei eskaini diezazkieten. EIAS taldeak aldeztu aurretik aukeratzen ditu boluntario-taldearen beharretara egokitzen diren proiektuak. Modu horretan, kudeaketa errazten dute, eta harremanetan jartzen dituzte langileak eta hautatutako jarduera aurrera eramaten duten elkarteak. Boluntario-taldeko kide bakoitzak bere dedikazio-denbora, ezagutzak, gaitasunak eta talentuak eskaintzen ditu. Parte-hartze aktibo horri esker, modu zuzenagoan eta bitartekaririk gabe jakin daiteke zer proiektuk ematen duten mota horretako lankidetzarako aukera, eta premia-egoeran dauden pertsonen hainbat modutan laguntzea lortzen da, ekarpen ekonomiko hutsak egin gabe.

Dohaintzak

Mutualiako langileek badakite ohiturak aldatu behar dituztela planetaren osasunari kalte gehiago ez egiteko eta pobrezia-arriskua minimizatzen laguntzeko. Hala, ekonomia zirkularra sustatzen da.

Mutualiak erabiltzeari uzten dion baina aprobetxatzeko moduan dauden ondasun eta higiezinak eta pazienteek beren lesioetatik osatu ondoren itzultzen dituzten baliabideak (belaunetakoak, paxak, botak, etab.) ematen dira dohaintzan; elkarteak arduratzen dira haiek esterilizatu eta berregokitzeaz.

Erakundeak zuzenean erabili izan dituen objektuen kasuan, baloratzen da berriro erabil daitezkeen eta Mutualiako langileek nahiko ote lituzketen erabilera pertsonalerako; halakoetan, enkante bidez biltzen da dirua. Horren adibide dira, besteak beste, berritzen diren mugikorrak eta ordezkatzeko diren bizikleta estatikoak.

Ondasun horiek ez badira Mutualiako langileen interesekoak, dohaintza Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak kudeatzen du. Hala, Mutualiarekin aritzen diren elkarte eta GGKE guztiek Mutualiaren jokabide-kodean betetzen dutela bermatzen da.

Hona hemen horietako elkarte batzuk: ICLI-Mufungaren Adiskideak fundazioa, Goicuria Mufungaren Adiskideak, EMAUS Araba, ROKPA Euskadi, Sahara Lagunen Elkartea Gipuzkoa eta Sahara Lagunen Elkartea Araba.

EMAN hitz gutxiren bidez azalduta, hau esan nahi du:

- **E**rretiratu behar den materiala ez dadila bihurtu zaborra.
- **M**aterialen bizitza erabilgarria luzatzea, 2. BIZITZA ERABILGARRIA.
- **A**rrisku-egoeran dauden pertsonak babesten dituzten elkarteei (osasuna, gizarte-laguntza, hezkuntza...) baliabideak ematea
- **N**abarmendu kontsumismoaren aurka.



05.09 Gizarteari itzultako balioaren monetizazioa

Mutualiak konpromiso sendoa dauka bere interes-taldeekin, eta "Gizartea" haietako bat da. Testuinguru horretan, garapen ekonomikoari eta ongizateari laguntzen die, bai zerbitzuak eskainita, bai erakundearen jardura ekonomikoaren bitartez. Horregatik, jardun finantzarioan ez ezik, gizarteari egiten zaion ekarpenean ere zentratzen da erakundeak ekonomiari buruz duen ikuspegia.

Balio sozialaren monetizazioaren kontzeptuak garbi islatzen ditu Mutualiak gizartearekin duen konpromisoa eta hartan eragiten duen inpaktua. Neurketa horrek, zeinak oinarri sendoak baititu ekonomia sozialean, erakundeak gizartean duen eragin biderkatzailea nabarmentzen du. Mutualiak, erakunde gisa, ikusten du bere funtzioa eragiketa komertzialak egitea baino gehiago dela, eta mutuako langileek ahalegina egiten dute harekin harremana duten kolektiboek onurak ekarriko dizkien balio jasangarria sortzeko.

Azken urteetan, COVID-19aren pandemiak inoiz ez bezalako erronkak ekarri ditu. Mutualiaren oinarritzko ardatzetako bat lankidetzarako bokazioa denez, premia eta ohiz kanpoko neurri ugari hartu dira. Bakartzeagatik edo gaixotasunagatik baja hartzen duten langileen babes soziala bermatzeko neurriez ari gara: kolektibo zaurgarrien babesa indartzen dute, eta bereziki eragin handia jasan duten langileei laguntzen diete.

Horregatik guztiagatik, GEAccounting irabazi-asmorik gabeko interes ekonomikoko kolektiboaren (zenbait unibertsitate eta erakunde osatua) lankidetzari esker, Mutualiak gizarteari itzultzen dion balioa kuantifikatzen hasi ginen 2018an.

Horretarako, azterketa ekonomiko eta finantzarioa modu esanguratsuan sakondu behar izan zen, eta interes-taldee (eta, besteak beste, gizarteari) itzultzen zaien balio erreala identifikatu ahal izan zen.

Informazio ekonomiko eta finantzarioa zabaldu da, interes-taldee egiaz itzultzen zaien balioa identifikatu ahal izateko. Hona zein diren proiektu hori aurrera ateratzearen helburu nagusiak:

- Legitimazio soziala.
- Balio diferentziala ikusgai egitea; Mutualiaren antolamendu-kulturak bere mutualistei eta oro har gizarteari nola laguntzen dien ikusaraztea.
- Mutualiak eragiten duen inpaktua neurtzea, hura hobetzeko eta areagotzeko ekintzak martxan jartzeko.
- Talentua erakartzea.
- Mutualiako langileak harro sentiaraztea, egiten duten lanaren bidez inguruneari nola laguntzen dioten jakinda.
- Mutualistek jakitea Mutualia mutua jasangarria dela eta egunetik egunera zerbitzu hobeak eskaintzeko lan egiten duela.

Funtsean, balio sozialaren monetizazioa balio handiko tresna da ekonomia sozialean, eta Mutualiak garbi erakusten du erakunde batek eragin positiboa izan dezakeela gizartean, bere jardun finantzariotik harago. Funtsezkoa da enpresa gehiagotara zabaltzea ikuspegi hori, haien inpaktu soziala kuantifikatzeko eta hobetzeko lan egin dezaten, hala ekonomia zuzen, inklusibo eta jasangarriago bat bultzatuko baita. Ahalegin horrekin, gizarteari balio jasangarria emateko konpromisoa berresten da, eta garbi geratzen da ekintzak, ekonomia sozialaren barruan, lagungarriak izan daitezkeela interes-talde guztientzat eta oro har ongizate sozialerako.


GRI
203
103

GRI
203
2

Balioa sortzen eta neurtzen duen eredu bat

Mutualiak garatutako ereduak aukera ematen du balio soziala objektiboki monetizatzeko, eta, hala, beste erakunde batzuen ereduarekin konpara daiteke. Interes-taldeek esanguratsutzat identifikatu dituzten balioetan zentratzen da Mutualiaren ereduak, eta erakundeak balio sozialtzat jotzen duen hori kuantifikatzeko helburua du.

Gizarte Balio Kontsolidatua kalkulatzeko metodologiaren eskema



Hiru osagai horien baturak "Balio sozial sendotua" osatzen du. Mutualiak gizarteari itzultzen dion ekarpen totala biltzen du adierazle horrek.

Interes-taldeen interesak aztertuta, Mutualiak sortzen duen balioaren aldagai garrantzitsuenetako batzuk zein diren ikus daiteke; besteak beste:

- Arintasuna prozesuetan eta prestazioen ordainketan.
- Bizkortasuna proba medikoak egiteko.
- Gure zentroetan bertan ospitaleratzeko ahalmena.
- Gertutasuna eta irisgarritasuna, gure zentroen sare zabalarari esker.
- Arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta prestakuntza.
- Informazioa eta aholkularitza tramite juridiko eta fiskaletan.
- Komunikazio eleaniztuna gure kanal guztietan, erabiltzaileekin tratatu gertuagokoa izateko.
- Tramite errazagoak gure web-plataformaren eta aplikazio mugikorraren bitartez.
- Osasun-arloan eta arlo administratiboan lagun egitea eskaintzea.
- Arreta pertsonalizatua, tratatu humano eta profesionalarekin.
- Akordioak unitate espezializatuarekin, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.
- Gure instalazioen kalitate handia.
- Prestakuntza sanitario eta laboralerako prestakuntza-ikasgelak.
- Enplegu egonkorren eskaintza.
- Lana eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak.
- Gure osasun-arloko langile eta administrazio-arloko langileen eta teknikari eta zuzendarien etengabeko gaikuntza eta espezializazioa.

Horrekin guztiarekin, 2022ko ekitaldiko datu itxiak erreferentziatzat hartuta datu horiek monetizatu ondoren, esan dezakegu Mutualiak gizarteari egiten dion balio-ekarpena 579,5 M € dela. Diru-sarrera globalekin (476,12 M €) zatituta, 1,22ko indizea ematen du; hau da, Mutualiak hartzen duen euro bakoitzeko, 1,22 € itzultzen ditu gizartera.

Gizarte Balioa kalkulatzea (eurotan)

	Gizartea	Bezeroak pazienteak eta hartzaileak	Enpresa bezeroak	AP	Mutualiako Inagileak	Horni- tzaileak	Enpresak atxiki
Merkatuko Gizarte Balioa	472.776.893	370.399.903	0	96.868.124	23.722.118	214.540	-18.427.793
EZ Merkatuko Gizarte Balioa	106.725.758	104.045.202	100.961.526	103.290.377	3.103.249	0	0
A. Gizarte Balio Integratua	579.502.651	474.445.105	100.961.526	200.158.502	26.825.367	214.540	-18.427.793
B. Diru-sarrera orokorrak	476.176.233						
(A/B) Balio Gizarte Erantsiaren Indizea	1,22						

Beste era batera esanda, 579,5 milioi euro itzuli dira gizartera. Merkatu-balio gisa, 472,8 milioi euro, mutuaren zuzeneko jardueratik eratorriak; eta 106,7 milioi euro ez-merkatuko balio gisa; 106,7 milioi euro, interes-taldeek nabarmendutako balioen monetizaziotik.

Ikuspegi ekonomikotik, ikusten da Mutualiaren balio bereizgarriak eta antolamendu-kulturak zuzeneko eragina dutela elkartekideengan. Ekarpen horren eraginak zerbitzu-eskaintzan eta bezeroen ongizatean ikusten dira, eta, halaber, administrazio publikoei aurrezki esanguratsuak ekartzen dizkie.

Nabarmendu beharrekoa da sortutako aurrezkia ez dela onura ukiezina, zuzeneko eragin kuantifikagarria baitu ekonomian oro har. Aurrezki horiek bestelako arlo sozial kritiko batzuetan inberti daitezke berriro, eta horrek are gehiago zabaltzen du Mutualiaren eragin sozioekonomikoa.



05.10 Interes-taldeekiko komunikazioa

2022ko ekitaldian normaltasuna berreskuratu da gutxika, eta, komunikazioari dagokionez, oso garrantzitsua izan da berriro ekitaldi presentzialak egitea; esate baterako, Mutualia foroak, Prebentzio-ikasgelak eta Mutualia sariak.

Aldi berean, ekitaldi eta biltzarretan zuten partaidetza eta ordezkaritza berreskuratu dituzte Mutualiako pertsonak, pandemiaren aurretik egiten zuten jardueraren antzekoa berreskuratu baitute.

2022an Mutualiaren webgunea eguneratu da: diseinua erabat berritu da, eta segurtasuna eta irisgarritasuna hobetu dira. Gardentasun Ataria ere berritu da, eta Atari Korporatibo berria sortu da, kultura korporatiboari, gobernu-organoei, txostenei, ESG jardunari eta beste alderdi batzuei buruzko informazio guztia jasotzen duena. Atari Korporatiboan sartu diren elementuen artean, Open Data da interesgarrienetako bat. Izan ere, interes-taldeek aukera dute han jasotako txostenetako zuzeneko informazioa lortzeko Mutualiaren datu-baseetatik.

Mutualiaren argitalpen digitalen (“Mutualia i” eta “MutuaLEX”) tiradak gora egin du –11 eta 58, hurrenez hurren–; hartzaileen kopuruak ere gora egin du, eta irekitze-tasa % 25 ingurukoa da. Prebentzioko newsletterren irekitze-tasa % 26,3ra igo da

Social mediari eta sare sozialen erabilerari dagokienez, aipagarriak dira Linkedineko eta Youtubeko igoerak. Hala, sendotu egin dira Mutualiak bere publikoekin komunikatzeko dituen sare sozial nagusi gisa.

2022an, Mutualiak lanean jarraitu du berarekin harremanetan dagoen publikoaren hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Helburua ez da mugatzen erakunde gisa berdintasun linguistikoa lortzera indibidualki. Izan ere, beste erakunde batzuekin batera lan egin nahi da, helburua kolektiboa izan dadin eta esparru horretan hain aurreratuta ez dauden beste erakunde batzuei baliagarriak izango zaizkien sinergiak aprobetxatzeko. Euskarazko zerbitzuen prestazioari eta erabilerari buruzko hizkuntza-ziurtagiriak berritzeari eta hedatzeari dagokienez, ziurtagiria berritu duten zentroak (Gernika, Azkoitia eta Bergara) eta Henaokoa gainbegiratu dira, ziurtagiriek eskatzen dituzten irizpideak bete ditzaten seinaleek, kartelek eta gainerako elementuek.


Sare sozialak


Adierazlea		2021	2022	▲▼ %
Twitter	Argitalpenak	995	956	%-3,92
	Jarraitzaileak	1.025	1.048	%2,24
Linkedin	Argitalpenak	342	362	%5,85
	Jarraitzaileak	2.365	2.736	%15,69
Youtube	Argitaratutako bideoak	5	31	%520,00
	Ikustaldiak	54.958	77.241	%40,55
WEB	Saio kopurua	323.355	208.780	%-35,43
	Orrialdeetako bisita kopurua	599.660	406.581	%-32,20

06

Ildo estrategiko 02:

Pertsonen konpromisoa indartzea





%99,7

Fidelizazio-indizea




7,15 (10etik), laneko giroari buruzko azken ink



442

Kontziliazio-neurriak



42,8

Pertsonako prestakuntza-orduen batezbestekoa

06.01 Pertsonak

2021-2025 aldirako Plan Estrategikoa indarrean den bigarren urte honetan, aurrera egin da langileen konpromisoa sendotzeko ildo estrategikoari lotutako proiektuetan, zeina erakundearen kudeaketako funtsezko elementuetako bat izan baita.

Mutualiak 2022an egin duen langileen kudeaketari buruzko adierazle eta datu esanguratsuak jasotzen dira datozen orrietan.

Pertsona-kopurua

	2021	2022	▲▼ %
Urtean lan egin duten pertsonen batez bestekoa	651	641	%-1,54
Plantilla abenduaren 31n	646	645	%-0,15
Emakumeak	468	471	%0,64
Gizonak	178	174	%-2,25
Lanaldi osoko batez besteko plantilla	600	605	%0,83

Pertsonen banaketa adin-tartearen arabera

	2021	2022
30 urtetik beherako pertsonak	%9,6	%10,0
Emakumeak	%7,0	%7,1
Gizonak	%2,6	%2,9
30-45 urteko pertsonak	%29,7	%27,6
Emakumeak	%23,7	%22,3
Gizonak	%6,0	%5,3
45 urtetik gorako pertsonak	%60,7	%62,4
Emakumeak	%41,8	%43,6
Gizonak	%18,9	%18,8

GRI 102 7

GRI 102 8

GRI 401 103

GRI 405 1

Pertsonen banaketa genero eta kualifikazioaren arabera

Tadea ¹ / Maila ¹	Kualifikazioa	% Emakumeak		% Gizonak	
		2021	2022	2021	2022
G0N0	Goi mailako tituluduna	33,33	33,33	66,67	66,67
G1N1	Goi mailako tituluduna	39,29	40,74	60,71	59,26
G1N2	Goi mailako tituluduna	52,05	56,72	47,95	43,28
G1N3	Goi mailako tituluduna	61,40	62,07	38,60	37,93
	Erdi mailako tituluduna	66,67	100,00	33,33	0
	LH	66,67	66,67	33,33	33,33
G2N4	Goi mailako tituluduna	55,56	52,78	44,44	47,22
	Erdi mailako tituluduna	85,34	84,26	14,66	15,74
	LH	55,55	60,00	44,45	40
G2N5	Goi mailako tituluduna	75,00	85,71	25,00	14,29
	Erdi mailako tituluduna	80,00	83,33	20,00	16,67
	LH	73,81	76,19	26,19	23,81
	Kualifikaziorik gabe	100,00	100,00	0	0
G2N6	Goi mailako tituluduna	82,35	85,00	17,65	15
	Erdi mailako tituluduna	82,35	81,25	17,65	18,75
	LH	84,00	80,77	16,00	19,23
	Kualifikaziorik gabe	66,67	57,14	33,33	42,86
G3N7	Kualifikaziorik gabe	100,00	100,00	0	0
G3N8	LH	0	0,00	100	100
	Kualifikaziorik gabe	25,00	0,00	75,00	100

(1) Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten aseguru, berraseguru eta mutualitateen sektorerako estatu mailako hitzarmen kolektibo orokorrari dagozkion taldeen eta mailen sailkapena.

Pertsonen banaketa kontratu-motaren arabera

	2021		2022	
	kopurua	%	kopurua	%
Mugagabea	583	%90,4	584	%90,54
Behin-behinekoa	62	%9,6	61	%9,46

Pertsonen banaketa kontratu-denboraren arabera

	Emakumeak		Gizonak	
	2021	2022	2021	2022
Mugagabea	%72,77	%72,95	%27,23	%27,05
Lanaldi osoa	%72,88	%73,12	%27,12	%26,88
Lanaldi partziala	%70,00	%69,23	%30,00	%30,77
Behin-behinekoa	%69,35	%73,77	%30,65	%26,23
Lanaldi osoa	%64,71	%74,5	%35,29	%25,49
Lanaldi partziala	%91,67	%70	%8,33	%30,00

Pertsonen errotazioa

	Emakumeak		Gizonak	
	2021	2022	2021	2022
Kaleratzeak	0	0	0	0
Borondatezko bajak	11	2	0	0

Kontratazioaren alorrean dauden mugak gorabehera eta aplikatu beharreko araudiari jarraituz, pertsonen kudeaketako politikaren helburua da haiek fidelizatzea. Kontratazioari dagokionez, 2022an, behin-behinekotadun tasa murriztu egin da, 22 kontratu mugagabe izatera igaro ondoren; kontratu horiek 16 emakumeri eta 6 gizonezkori dagozkie, eta totalaren % 72,7 dira. Hala, behin-behinekotasun tasa % 9,45 izan da ekitaldian (61 langilek zuten aldi baterako kontratua, 645etik), eta 2021ean % 9,75 izan zen (63 langilek zuten aldi baterako kontratua, 646tik). 2022an kontratatu diren pertsonetatik, % 80 emakumeak izan dira.

Mutualiako plantillaren egonkortasun- edo fidelizazio-tasak oso altua izaten jarraitzen du; hain zuzen, % 99,69 da. 2022an % 0,31 izan da errotazio-indizea, 2021eko % 1,7ren aldean (barne hartuta borondatezko bajak eta kaleratzeak, eta eszedentziak kontuan hartu gabe). Emakumeen borondatezko bajak guztizkotik % 100 izan dira (2tik 2) 2022an; 2021an berdina izan zen ehunekoa.



Lanera ez agertzea

	Emakumeak		Gizonak	
	2021	2022	2021	2022
Lanera ez agertzea	%4,75	%5,17	%1,31	%0,82
Lan-istripua eta gaixotasun profesionala	%68,79	%83,06	%31,21	%16,94
Kontingentzia arrunta	%79,75	%86,99	%20,25	%13,01

2022ko absentzia-indize totala % 5,99 izan da, 2021ekoa (% 6,07) baino apur bat baxuagoa.

Ordainsariak

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen eta aseguru- eta berraseguru-erakundeen estatuko hitzarmen kolektibo orokorra dagokie Mutualiako langileei. Horri esker, oinarritzko kontzeptuetan gizonen eta emakumeen artean soldata-arrakalarik ez izatea bermatzen da.

Hala ere, hitzarmeneko oinarritzko soldatak % 5eko murrizketa dauka 2010etik, Mutualiaren jarduera estatuko sektore publikoan txertatu zenetik eta Estatuko Aurrekontu Orokorren legeetan sektore publikorako lege ezarritako aurrekontu-mugak aplikatu ondoren. 2021ean % 0,9 igo zen, eta 2022an, % 3,5. Soldataren izozketak eta Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako soldata-masen baimenei lotutako soldaten mugek areagotu egin dute osasun-langileek osasun-zerbitzu publikoko langileekin zuten soldata-arrakala. Hala, erakundearentzat zailagoa da profil kritiko horietako talentua erakarri eta mantentzea. Horregatik, ordainsari-sistema lehiakor bat eta karrera profesionaleko sistema bat ezartzea funtsezko proiektuetako bat da Mutualiarentzat; sistema horiek diseinatzeko lehenengo urrats gisa, estatuko osasun-sektoreko soldaten azterketa konparatibo bat egin da.

Mutualiako batez besteko soldataren aldean, gehieneko soldataren ratioa 3,6 da (legez araututako parte aldakorra barne hartuz gero, 4,5 da). Gehieneko soldataren ratioa gutxieneko soldataren aldean 6,20 da Mutualiako langileen artean (legez araututako parte aldakorra barne hartuz gero, 7,75 da).

Oinarritzko soldata berdina da gizonen eta emakumeen artean (oinarritzko soldata, bermatua, esperientziagatiko osagarria eta plusak).

902/2020 Errege Dekretua aplikatuz, erakundeko ordainsari-erregistroa egiten da, eta langileen ordezkariak igortzen zaie. Erregistro hori egiteko, Berdintasun Ministerioaren ordainsari-erregistrorako tresna erabiltzen da, eta % 25eko eta hortik gorako soldata-diferentziarik badago, azterketa bat ere bidaltzen da erregistroarekin batera; kontuan hartzen dira soldata globalak eta talde eta mailen arabeko soldatak, eta barne hartzen dira soldatako eta soldataz kanpoko kontzeptu guztiak.

Soldata-arrakalaren azterketan ondorioztatzen denez, 2022ko soldata globaletan ez dago % 25eko diferentziarik, ez batezbestekoetan, ez egiazko ordainsariko medianetan, ez ordainsari parekatuan.

GRI 102 38

GRI 102 39

GRI 405 2

Berdintasuna eta kontziliazioa

Gure VI. Berdintasun Planaren barruan, alderdi hauetan egin dugu aurrera ekitaldian:

Kontziliazioa

Urruneko lana % 30en azpitik mantendu da hiru hilabetez malgutasun-neurri gisa, gure kontrol- eta zaintza-organoak langileen legezko ordezkariekin negoziatutako urruneko lanari buruzko esparrua onartzeko itxaron bitartean. Gainera, kontziliazioa araudian ezarritako neurriez harago hobetze aldera, bestelako neurri hauek ere hartu dira, besteak beste:

- Gure Berdintasun Planetik eratorritako barruko neurriekin jarraitu dugu Mecuida planari dagokionez, zeinak indarrean jarraitu baitu 2022ko ekaina arte (ez eskatzea ziurtagiririk norbait zaindu behar denean, eta eskaera telematikoa, zeinak baimena emateko izapideak aritzen eta errazten baititu).
- Jardunaldi-murrizketak legezko gutxienekoa (jardunaldiaren 1/8; hau da, % 12,5) baino gutxiago murrizteko aukera; askotan, adingabeen oporraldietan pilatzen dira, edo urteko egun jakin batzuetan.

Dibertsitate Plana lantzea

Pertsonen Dibertsitate Plana landu da, eta haren parte bat Berdintasun Planeko ekintza eta helburuetan txertatu da.

2022ko ekitaldian, ziurtagiri hauek berritu dira eta indarrean jarraitu dute:

- 2022ko azaroaren 23ko komunikazioa, Emakumeen Institutuarena (Berdintasun Ministerioaren mendekoa), enpresaren Berdintasun Bereizgarriaren (2022ko martxoan igorri zen eta Mutualiak 2021ean egindako jarduerari dagokio) jarraipenari buruzko txostenari dagokiona, zeinaren bidez gogorarazten baita urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuan —berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen— eta urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretuan —ordainsari-berdintasunari buruzkoa— ezarritakoa betetzeko betebeharra.
- EFR ziurtapena: AENORek, 2022eko irailean, kontziliazioa kudeatzeko sistemaren kanpo-auditoretza prozesua egin zuen, EFR 1000-1 arauaren 5.1 edizioan oinarrituta. Han lortutako puntuazioa kontuan hartuta, Mutualiak ziurtagiri hori berritu du, eta, gainera, maila igo du, B mailatik B+ Proaktibora igaro baita.



Gizarte-onurak


Mutualian, enpresa-hitzarmenen bidez, urtean 28 lanordu murrizten dira dagokion hitzarmenaren aldean. Hala, urteko lanaldia 1.662 ordu da.

Hitzarmen horien ondorioz, Mutualiako langileek onura sozial batzuk dituzte, eta horrek ordainsari hobeak ekartzen dizkie. Alderdi horri 8,31 puntu eman zizkioten (10etik) azken gogobetetze-inkestan, 2019an.

Gizarte-onurak

Lansarien taularen gaineko hobekuntzak	
Eskolako laguntzak ¹	Hurtzaindegi eta ikasketetarako bekak eta laguntzak.
Ikasketak ²	Matrikulen % 100era arteko eta langile finkoen (14 pertsona) ikasketa-tasen % 50era arteko ordainketa.
Osasun-asegurua ²	Osasun-aseguruaren kuoten ordainketa.
Ezkontzagatiko eta jaiotzagatiko saria ²	Jaiotza edo adopzioagatiko laguntza ekonomikoak eta aparteko hilabete bat kobratzea ezkontzeagatik/izatezko bikotea izateagatik/bizikidetzagatik.
Desgaitasuna dutenentzako laguntzak ²	Mutualiako pertsonentzako laguntza ekonomikoa (minusbaliotasuna= $\geq$ % 33)
Osasun-laguntza	Laguntza mediko kirurgikoa eta errehabilitazioa instalazioetan, langilearentzat eta bere familia-unitatearentzat.
Lizentziak eta baimenak	Beste hiru egun ezkontzeagatik edo izatezko bikotea izateagatik. Beste egun bat seme-alaben jaiotzagatik, bigarren gradura arteko ahaideen heriotzagatik edo gaixotasunagatik. 3 hilabete arteko baimen ordaindu gabea. Urtebeteko eszedentzia, lanpostua gordeta. Lanpostua gordetzea hiru urtez, seme-alabak zaintzeko eszedentzietan.
Bizi- eta istripu-asegurua	69.000 euro arteko estaldura duen bizi-asegurua.

(1) Aldi baterako langileek hiru urtetik beherako seme-alabentzako laguntza baino ez dute.
(2) Langile finkoak bakarrik



Prestakuntza eta ezagutzaren kudeaketa

Ezagutzaren kudeaketa funtsezko mekanismoa da proiektu estrategikoak hedatzeari eta garatzeari dagokienez, eta haren bilakaerak lotura estua du teknologiaren garapenarekin. Horregatik, Mutualiako langileek prestakuntzara eta jakintzara duten irispidea aldatuz joan da, eredu presentzialetik bideokonferentzietara eta e-learningera igaro baita; izan ere, tresna horiek funtsezkoak dira taldeak etengabe haztea bermatzeko. Onlineko edukien garapena eta erizaintzako profilerako eta erizaintzako zainketa osagarrien teknikarientzako profilerako jardunaldi presentzialak bultzatu dira 2022an.

Ezagutza hainbat mekanismoren bidez garatzen da Mutualan, hala nola lantaldeen, saio klinikoan, saileko saioen eta simulazio-ikasgelen bidez eta kanpoko jardunaldietan eta biltzarretan parte hartuta. Gainera, ildo estrategikoekin eta definitutako proiektuekin bat datorren trebakuntza-plana dauka erakundeak.

Trebakuntza-ekintzen kopurua % 12,44 areagotu da (466tik 524ra), eta trebakuntzako inbertsioak ere gora egin du; 25.000 ordu baino gehiago eskaini zaizkio trebakuntzari.

Trebakuntza ez-presentzialak behera egin du, biltzarrek, jardunaldiek eta ikastaro presentzialek berriro indarra hartu dutelako.

Plataforman edukiak sortzea bultzatu da 2022ko ekitaldian, eta nahitaezko ikastaroak sortu dira profil eta lanpostu jakin batzuetarako: compliance penala, pazienteen segurtasuna, langile berrientzako harreraren garapena, etab.

2022an, barne-ezagutza hedatzeko jardunaldiekin jarraitu da, Boga proiektuko Elkar Ezagutu ekimenaren bidez.

Prestakuntzako datu garrantzitsuak

	2021			2022		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Egindako prestakuntza-ekintzak	343	123	466	395	129	524
Bertaratutakoak, guztira	2.012	733	2.745	2.300	774	3.074
Prestakuntzako inbertsioa (milaka €)			175.558 €			198.812 €
Pertsonako prestakuntza-orduen batezbestekoa ¹			43,49			42,79
Prestakuntza orduak, guztira	21.901	4414	26.315	19.603	5.858	25.461
Barne-prestakuntzako jardunaldien kopurua			94			113
Pertsonako barneko prestakuntza-orduen batezbestekoa ¹			7,13			9,9
Prestatzaile-kopurua			58			51

(1) Batez besteko plantilla kontuan hartuta

GRI
404
103

GRI
404
1

GRI
404
2

Boga proiektua

Borondatez edo erakundean duten erantzukizunagatik balioen arabera jardun eta zuzendu behar duten pertsonen hazkunderako eta garapenerako gune bat da Boga Hona zein diren Boga proiektuaren helburuak:


- Plantillan ahalik eta lider gehien izatea; horretarako, haien hazkundera bultzatuko da, eta lider berriak sortuko dituzten giroa eta kultura erraztuko dira. Erakundeko pertsona guztiei emango zaizkie aukerak.
- Mutualian lideratzeko modua adostu eta homogeneousatzea. Erakundeak duen lider kontzeptuaren eta balioei egokituko zaie.
- Mutualiako lanpostu erabakigarrietan epe ertaineko edo luzeko liderrak izatea.
- Mutualiako langile guztien ibilbide profesional eta pertsonala erakargarri eta aberasgarriagoa izateko aukera ematea.

Bogalari-taldetan antolatzen da espazioa, erakundean duten lidergo-posizioaren arabera.

2022ko ekitaldian 211 langilek parte hartu dute Boga proiektuan; hau da, batez besteko langile-kopuruaren % 32,7k.

2022an, etikako prestakuntzaren lehen fasearekin amaitu da, eta barruko lanaldiak indartu dira; 24 jardunaldi eman dira, eta horrek guztiak 820 prestakuntza-ordu baino gehiago ekarri ditu. Era berean, bi saio egin dira pertsonen gainerako erantzukizuna duten pertsonekin (B4), liderren balioetan autoebaluatzeko gida berrikusteko, 2023ko ekitaldian hedatzeko.

Lidergo-profilak Bogan



Laneko segurtasuna, osasuna eta ongizatea

Laneko segurtasunari eta osasunari lotutako jarduerak laguntzen dute istripuak murrizten, gaixotasun profesionalak prebenitzen eta langileen ongizatea eta osasuna bultzatzen. Hala, bizi-kalitatea hobetzea lortzen da.

2022ko ekitaldian, pandemiaren azken fasean, COVID-19a kudeatzeko eta ez zabaltzeko neurriak murriztu ahal izan dira. Beraz, ohiko prebentzio-jarduerak eta langileen ongizatea bultzatzera bideratutako jarduerak berreskuratzen hasi ahal izan gara.

2022an baja eragin duten 6 lan-istripuetatik, 4 COVID-19ak eragindako kutsatzeen ondoriozkoak izan dira oraindik. Hala, ezbehar-kopuruaren adierazleek gora egiten jarraitu dute, baina ez dut onartzen datu horiek pandemiaren aurretik izan genituen intzidentziarik gabeko ekitaldiekin konparatzerik.

Laneko arriskuaren prebentzioaren alorrean nabarmendu beharreko jarduera batzuk:

- Arriskuen ebaluazioa: Mirakontxako zentro berrian (zentro bat ireki da), Larrialdi Planarekin batera. Horrez gainera, aurreikusitako arrisku-ebaluazioak, larrialdi-planak, autobabeseko planak eta lan-baldintzen ikuskapenak (neurketak eta azterketa espezifikoak...) egin dira zentroetan.
- Eremu elektromagnetikoekiko esposizioaren ebaluazioa.
- CO2-neurgailuak jarri dira pertsonen jarduerak aireztapen-mailan eragin dezakeen lantokietan.
- 10/2021 Legea, Urrutiko Lanarena, ezarri da, eta onlineko trebakuntza-ekintza bat ere txertatu da Mutualiaren Prestakuntzako Atarian, zeina ezinbesteko eskakizuna baita lan-modalitate horretan aritu ahal izateko.
- Babes berezia behar duten kasuetako bakoitzaren kudeaketa eta azterketa: 6 babes berezi haurdunaldiagatik eta edoskitzeagatik, arrisku jakin batzuekiko bereziki sentikorrak diren 12 pertsona eta osasunaren zaintzari buruzko ohiko kudeaketa (langile berrien azterketa medikoak, aldi baterako ezintasunaren ondoriozkoak eta aldizkakoak eta COVID-19aren eta gripearen aurkako txertaketa-kanpainak).
- Osasuna bultzatzeko dibulgazio- eta sentsibilizazio-jarduerak: 7 prestakuntza-ekintza egin dira (Ariketa sendagaia da, Suizidioaren prebentzioa, Prebentzio kardiobaskularra...), eta 119 langilek parte hartu dute haietan. Horrez gainera, langileak animatu dira Laneko ingurunean ongizate emozionala lortzeko entrenamenduari buruzko programaren VIII. edizioan (AMATek egina) indibidualki parte hartzera.

Ezbeharren adierazleak

Adierazlea	2021	2022
Lan-istripuak (lanaldian eta bajarekin)	9	6
Baja duten in itinere istripuak	4	6
Baja-egunak (guztira, in itinere barne)	401	438
Ikertutako gertaerak	50	76

GRI 403 103

GRI 403 1

GRI 403 2

GRI 403 3

GRI 403 4

GRI 403 5

GRI 403 9

GRI 403 10

GRI 404 103


GRI 404 2

Ezbehar-indizea, sexuaren arabera

Indizea sexuaren arabera	2021		2022	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Baja duen Kontingentziaren indizea	17,09	5,62	12,74	0,00
Kontingentzia osoaren indizea, bajarekin eta bajarik gabe	51,28	28,09	87,05	103,45

Ezbehar-indizea, lurraldeka

Adierazlea lurraldearen arabera	2021				2022			
	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	UT4	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	UT4
Baja duen Kontingentziaren indizea	22,81	6,33	0	0	11,63	12,77	0	0
Kontingentzia osoaren indizea, bajarekin eta bajarik gabe	59,88	31,66	35,33	0	63,96	83,01	11,36	0



Familia, bizitza pertsonala eta lana uztartzea

2022ko ekitaldian, 442 kontziliazio-neurriri bide eman zaie. Haietatik, 344ren hartzaileak (% 77,82) emakumezkoak izan dira, erantsitako koadroan jasotzen denez. Hala, ikusten da oraindik ere batez ere emakumeek eskatzen dituztela mota honetako neurriak.

Antolamenduaren malgutasunari dagokionez (bai denbora, bai tokia aintzat hartuta), lanaldiaren malgutasunarekin lotutako neurriekin jarraitu da. Horri esker, langileek ez dute lanaldi-murrizketarik eskatu behar izan, eta, hala, neurri horiek erabili dituzten pertsonen erosteko ahalmenari eusten lagundu da; batez ere emakumeengan dute eragina, haiek eskatzen baitute lanaldi-murrizketa gehien. 2022ko ekitaldian, 247 pertsonak erabili dituzte ordutegi-, antolamendu- eta sail-malgutasuneko neurri horiek, pandemia dela-eta lana urrunetik egin duten langileak kontuan hartu gabe.

Bateragarritasun-neurriak

	2021			2022		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Lanaldi-murrizketak	49	3	52	51	3	54
Lanaldi-murrizketak + murrizketa metatzea	5	1	6	21	3	24
Soldatarik gabeko eszedentziak eta baimenak	50	11	61	83	12	95
Edoskitzaroa metatzea	7	4	11	11	4	15
Guraso-baimena						
Guraso izateagatik kontratua eteteko hobaria						
Lantokia aldatzea eta etxera hurbiltzea	8	1	9	3	4	7
Antolaketa-malgutasuneko neurriak (ordutegi-malgutasuna, nahierara lan egitea, etab.)	170	76	246	175	72	247
Guztira	289	96	385	344	98	442

Bateragarritasunari laguntzeko esleitutako beste baliabide batzuk

Baliabideen erabilera	2021	2022
Ondorengoa jaiotzeagatiko hobari ekonomikoa	3.600,00 €	2.600,00 €
Langileen seme-alabentzako eskola-	91.041,96 €	87.937,91 €
0-3 urteko langileen seme-alabentzako laguntza	3.078,50 €	3.517,41 €
Guztira	97.720,46 €	94.055,32 €



06.02 Barneko komunikazioa

Mutualiaren kultura korporatiboa ez litzateke gauza bera izango barne-komunikazioko estrategiarik gabe, langile guztien kolaborazioa, gogobetetzea eta partaide izatearen harrotasuna bultzatzen baititu.

Idea horrekin eta langileak eta zentroak eremu geografiko mugatu batean daudenez, komunikazio zuzen eta pertsonala lehenesten da. Hala, barne-komunikazioko bilerak egiten dira hileroko. Bilera horietan, kudeaketaren segimenduko bileretan lantzen den informazio guztiaren berri ematen diete arduradunek beren taldeei. Gainera, komunikazioa bi noranzkoko da bilera horietan, eta egunerokotasuneko zenbait gai ere lantzen dira.

2022ko ekitaldian, pandemiak nolabaiteko protagonismoa izaten jarraitu zuen; batez ere, lehenengo hilabeteetan. Hala ere, barne-komunikazioaren ikuspegitik, ia normaltasuna berreskuratu dela esan daiteke, pertsonak bilera presentzialetan izandako parte-hartzea pandemiaren aurrekoaren antzekoa izan baita. Krisialdi Batzordearen jarduerak oso urria izan da 2022an. Osasun-larrialdian sortu zen batzordea, eta haren jarduerak oso balorazio positiboak jaso ditu laneko giroari buruzko azken inkestan.

Mutualian, komunikazio presentzialak du balorazio onena (Mutualiako barne-komunikazioari buruzko inkestaren arabera –2018–), eta, eredu horren barruan, arduradun bakoitzak hileroko bere taldearekin izaten duen zuzeneko komunikazioa nabarmentzen da. Aldizkako komunikazio horietan, komunikazioa bi noranzkoko izatea bultzatzen da, eta enpresaren emaitzei eta egoerari buruzko informazioa emateko tresna hutsa baino gehiago dira. Bilera horien edukia eta agenda Komunikazio Sailak diseinatzen du, eta pertsonen parte-hartzea eta haien irismena neurtzen dira. 2021ean hasi ginen adierazle hori neurtzen, eta emaitza desberdinak lortu ziren aztertutako sailaren arabera. Hala, administrazioko sailetan zuzeneko komunikazioa langileen % 80,36ra iritsi zen, eta osasun-arloetan, % 25,77ra bakarrik. Emaitza horiek ikusita, Komunikazio Sailak 2022rako erronka nagusi gisa ezarri zuen arduradunengandik zuzeneko komunikazioa jasotzen zuten Osasun Arloko langileen kopurua areagotzea. 2022ko emaitzek erakusten dutenez, adierazle horrek hazkunde handia izan du, “aurrez aurreko” komunikazioa Osasun Arloko langileen % 71,14ra iristea lortu baitzen.

Beste komunikazio-kanal batzuez ari garela, 2022an Elkargune barneko atari korporatiboa berritu da: orain “atseginagoa” da, eta gailu mugikorretan erabiltzeko aukera ematen du. Bertsio berri honetan protagonismo handiagoa eman zaie lantaldeek egiten dituzten argitalpenei. Helburua da, albiste eta edukiak argitaratzeaz gainera, ataria parte hartzeko gune bat ere izatea, horretarako aukera ematen baitute iruzkinek, likeek eta inkestek.

Bestalde, barneko komunikazio-kanalak dira Yammer eta Teams tresna kolaboratiboak. Elkargune atarian eta Microsoft 365 ingurunean txertatzen dira, eta parte hartzeko aukera eskaintzen diete langileei.



06.03 Bezeroen Eguna

Urtero, urtarrilaren amaieran, eta Mutualiako egutegietan benetan markatutako egun batean, "Bezeroaren Eguna" barne-ekitaldia egiten da, gogorarazteko beti hobetu daitekeela bezeroei eskaintzen zaien esperientzia eta zerbitzua, bezero horiek enpresak, langile autonomoak, besteren konturako langileak, aholkularitzak, etab. direla ere. Konpainiako langile guztiak helburu horretarabideratzea Mutualiaren izateko arrazoietakoa bat da, eta helburu korporatiboa lortzeko modurik onena ere bai.

2022ko otsailaren 4an, hamaikagarren "Bezeroaren Eguna" egin zen, pandemiak baldintzatuta artean, urte-hasieran egin baitzen. Oraingo honetan, bezeroei buruzko galdera batzuk egin zitzaizkien Mutualiako langileei: Mutualia da behar dutena?, haien beharrei adi dago erakundea?, badakigu zer espektatiba dituzten?, Mutualia balioesten dute?, sumatzen dituzte Mutualiaren balioak haiekin erlazionatzeko duen moduan? Galdera horiei erantzuteko, ez da nahikoa egun hori. Horregatik, jardunaldi horretako helburua izan zen langileak animatzea etengabeko lana egitera bezero-esperientzia hobetzeari buruzko talde, lantegi eta gainerako esperientzien bidez.

Ekitaldi bakoitzean, azken ekitaldiko gertaera nabarmenak azaltzen dira, jasotako kexak eta esker onak aztertzen dira, erronkak markatzen dira eta, batez ere, erakundeko langile guztien ahalegina eskertzen da.

Bilera presentzial edo telematikoetan, kudeaketa-taldeko langileek aurkezpenak egiten dizkiete sailetako langileei, eta iritzi eta iradokizunak jasotzen dituzte.

Ekitaldiak oso harrera ona izaten du Mutualiako langileen artean, eta "Iradokizun onenaren saria" emateko aprobeztatzen da. Urteko azken hiruhilekoan egiten da deialdia, bezeroek iradokizunak egin ditzaten, Mutualiak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea hobetze aldera.



07

Ildo estrategiko 03:

**Berrikuntza
zerbitzuetan**




07.01 Babestutako pertsonak


Mutualiak, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua gisa, zerbitzu sanitario eta ekonomikoak eskaintzen ditu eta prebentzio-jarduerak egiten ditu berekin elkartutako enpresentzat eta mutuara atxikitako besteren konturako langileentzat eta Langile Autonomoen Araubide Orokorrera atxikitako langileentzat (norbere kontura dihardutenak).

3. ildo estrategikoaren erronka da “mutua arin eta puntakoa izatea zerbitzuak eskaintzeko prozesuan berrikuntza txertatzeari dagokionez”. Baina Mutualiak zer kolektibori eskaini behar dizkie zerbitzuak?

Pertsona babestuak. Batez besteko afiliazioa Kontingentzia Profesionalean (KP)




Pertsona babestuak. Batez besteko afiliazioa Kontingentzia Arruntean (KA)



Mutualiak babesten duen kolektibo guztiak du kontingentzia profesionalerako babesa. Hala ere, % 56,12k baino ez dute kontingentzia arrunta Mutualiarekin babestua; kasu horretan, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) estaltzen du kontingentzia hori.

Mutualiak babestutako kolektiboaren % 94 Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) dago, eta biztanleria afiliatua osatzen duten 423.018 pertsonak honela banatzen dira lurraldeka:

Kontingentzia profesionalen babestutako pertsonak, lurraldeen arabera banatuta



07.02 Osasun-jarduera

2022an, osasun-jarduera orokorrak % 10,54ko hazkundera izan du aurreko ekitaldiaren aldean: 2021ean 323.397 osasun-jarduera egin ziren, eta 2022an, 357.498. Igoera horrekin ere, osasun-jarduera 2019ko ekitaldian (pandemiaren aurreko erreferentzia-urtea) baino % 3,7 beherago dago; gainera, esan beharra dago babestutako pertsonen kopuruak % 5,7ko hazkundera izan duela urte horren aldean. Osasun-jarduera indibidualizatuari dagokionez, nabarmena da proba diagnostikoen eta fisioterapia-saioen igoera (% 19,16 eta % 15,20, hurrenez hurren).

Osasun-jarduera orokorra

jarduera	2021	2022	▲▼ %
Lehenengo kontsultak	52.705	56.402	%7,01
Hurrengo kontsultak	123.277	129.871	%5,35
Ebakuntza kirurgikoak	1.755	1.561	% -11,05
Proba diagnostikoak	46.982	55.984	%19,16
Fisioterapia-saioak	98.678	113.680	%15,20
Guztira	323.397	357.498	%10,54

Osasun-jarduera Kontingentzia Profesionalean


jarduera	2021	2022	▲▼ %
Lehenengo kontsultak	41.924	43.678	%4,18
Hurrengo kontsultak	111.097	114.847	3,38%
Ebakuntza kirurgikoak	1.697	1.526	% -10,08
Proba diagnostikoak	45.721	54.631	%19,49
Fisioterapia-saioak	96.058	111.496	%16,07
Guztira	296.497	326.178	%10,01

COVID-19ak jarduera sanitarioetako eta soziosanitarioetako langileengan eragindako patologiek diagnostiko ohikoenen taulan jarraitzen dute, laneko istripuen atalean.

Infografia honetan, datu hauek jasotzen dira: kontingentzia profesionaleko diagnostiko ohikoenak, diagnostiko bakoitzaren ehunekoa kasu guztien aldean, indemnizatutako egunekiko ehunekoa —hau da, baja-egoera baten ondoriozko prestazio bat zenbat egunez ordaintzen den— eta, azkenik, diagnostiko bakoitzeko batez besteko baja-egunak.



Diagnostikoen taula, kalte-ordaina jaso duten egunak eta batez besteko iraupena



Osasun-jarduera Kontingentzia arruntean

jarduera	2021	2022	▲▼ %
Lehenengo kontsultak	10.781	12.724	%18,02%
Hurrengo kontsultak	12.180	15.024	%23,35
Ebakuntza kirurgikoak	58	35	%-39,66
Proba diagnostikoak	1.261	1.353	%7,30
Fisioterapia-saioak	2.620	2.184	%-16,64
Guztira	26.900	31.320	%10,54


Kanpoko osasun-laguntza

Kanpoko Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren helburua da Mutualiatik kanpoko instalazioetan artatzen diren pazienteek mutuaren baliabide propioek ematen duten asistentzia-kalitatearen antzeko kalitateko asistentzia jasotzea. Osasun-zerbitzu publikoek, beste mutua kolaboratzaile batzuek eta, neurri txikiagoan, osasun-zentro pribatuak ematen dute kanpoko asistentzia hori.

Batez ere bi motatako pazienteak artatzen dira zerbitzu horietan: alde batetik, EAetik kanpo lan egiten dutenak; eta, bestalde, Euskadin lan egiten duten eta Osakidetzan artatzen dituzten pazienteak (lesioen larritasunagatik, normalean).

2022an, zuzendaritza honetako langileek kanpoko osasun-hornitzaile horiekiko lankidetzan sakontzen jarraitu dute, bai asistentziari dagokionez, bai fakturazio-irizpideei dagokienez; besteak beste, Gurutzetako ospitaleko fakturazioko taldearekin egindako bilerak, Mutua Montañesarekin izandako bilerak eta sistema espezifiko bat definitzea eta EAetik kanpoko osasun-garraioko enpresa batekin egindako kontratua.

2022ko ekitaldian, 7.806 asistentzia egin dira Mutualiatik kanpoko zentroetan; honela xehatzen dira:



Hirugarrenentzako osasun-laguntza

Asistentzia-baliabideak optimizatzen laguntzeko, Mutualiak osasun-arreta zabaldu du babestutako biztanleriaren kolektiboetatik harago, eta osasun-zerbitzuak eskaini dizkie hirugarrenei, beste mutualitate batzuei edo Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.

Hirugarrenei emandako osasun-laguntzaren fakturazioa

jaurdera	2021	2022	▲▼ %
Juridikoak/Trafiko istripuak	605.153,24 €	715.091,88 €	%18,17
Gizarte Segurantzarekin lankidetza duten beste mu- tualitate batzuk	429.822,18 €	400.953,35 €	%-6,72
Rama Korporazioaren mutualitateak	235.932,46 €	216.999,25 €	%-8,02
EJren Osasun Saila/Osakidetza	184.834,76 €	46.452,34 €	%-74,87
Enpresa autoaseguratzaileak	156.608,10 €	169.828,57 €	%8,44
Beste batzuk	23.265,18 €	41.375,61 €	%77,84
Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (GSIN)	6.715,70 €	3.623,20 €	%-46,05
Guztira	1.642.331,62 €	1.594.324,20 €	%-2,92



07.03 Osasun-kudeaketa

Osasun-kudeaketa Osasun Kudeaketako Zuzendaritzaren (OKZ) bidez zentralizatu eta koordinatzen da, eta bertan sartzen dira osasun-arlo osorako zeharkakoak diren proiektu eta ekintza guztiak.

OKZk barne hartzen du eraginkortasun eta kalitate asistentzialeko lerroen ikuskapena, hau da, kontingentzia arrunta, kontingentzia profesionala (BHB, KAABE, HEA, HAZA) eta osasun-arloko batzordeak.

Osasun-arloko batzordeek egindako lanak Mutualiaren zeharkako beharrei erantzuten die, eta, kasu jakin batzuetan AENORen auditorien eta barne-auditoretzek agerian utzi dute haren premia.

Osasun Arreta Pertsonalizatzeko Batzordea (OAPB)

Mutualiak konpromiso sendoa du bere zentro guztietarako gizarte- eta osasun-arreta humanizatua sustatzeko, eta, horretarako, Mutualiaren Osasun-laguntza Pertsonalizatzeko eta Humanizatzeko Plana diseinatu da. Horren ondorioz, Osasun Laguntza Pertsonalizatzeko Batzordea (OLPB) eratu da, diziplina anitzeko talde batek osatua, eta 2022an hainbat ekintza egin ditu proiektuaren oinarriak ezartzeko.

Mutualiak Osasun Laguntza Pertsonalizatzeko Plana egituratzeko nahi dituen funtsezko ardatzak zehazteko, hitzarmen bat sinatu du Humans Fundazioarekin, helburu hauekin:

- Mutualia pertsonetikiko eta profesionaletikiko tratuan erakunde lider eta eredugarri gisa kokatzea eta bereiztea.
- Taldeko profesionalak humanizazioaren bikaintasun-prozesuan ziurtatzea, metodologia ematea eta inplikatzeko.
- Pazienteek zein profesionalak duten kalitate-pertzepzioa handitzea.
- Erreferentziazko eredu bat sortzea, gerora hobekuntzak ezartzea erraztuko duena.

Irakaskuntza, Prestakuntza eta Ikerketa Batzordea (IPIB)

Batzorde honen xedea da osasun-arloko pertsonen prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa sustatzea. Helburu nagusietako bat da Mutualiaren ekoizpen akademikoa eta irakaskuntza-arlokoa partekatzea, ezagutza maila guztietan zabalduz.

2022an, prestakuntza-plan komun bat egin da Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, planifikatutako prestakuntza-ekintzak betez.

Barne-prestakuntza ere lehenetsi da: guztira, 32 prestakuntza-saio eta 31 saio kliniko egin dira, eta barneko 46 profesionalak eta kanpoko 7k hartu dute parte haietan.

Nobedade gisa, 2022an, erizaintzako zerbitzuak Ezagutzak Eguneratzeko Saioak egin ditu lehen aldiz.

Batzorde hauosatzen duen diziplina anitzeko taldeari esker, Mutualiako klinika eta zentroetan presta daitezkeen ikasleen trebakuntza landu da, unibertsitate eta eskolekin prestakuntza-hitzarmen berriak egin ahal izateko.

2022ko ekitaldian, Mutualiaren Prestakuntza Ataria jarri da martxan, ezagutza gorde, partekatu, erabili eta kudeatzeko oso erabilgarria den plataforma bat.

Trebakuntza-arloko beste proiektu berritzaile bat Educator da. Programaren helburua da osasuneko eta higie- eta osasun-arloko ezagutzak zabaltzea enpresei eta haietako langileei, jakin dezaten nola jokatu lan-istripu bat gertatzen bada, eta pazientei eta haien laguntzaileei, beren osasun-prozesuan modu aktiboan parte hartzera bultzatzeko.

2022ko ekitaldiko prestakuntza-, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduera hori guztia Mutualiaren Zientzia eta Irakaskuntza Memorian jasota dago.

Transfusioen eta Giza Ehunen Batzordea (TGEB)

Batzorde honen jarduera nagusia da Mutualiako hiru ospitaleetan jokaera homogeneo bat koordinatzea, sistematika eta dokumentazio komun bat definituz. 2022an, ehun osteotendinosoa ezartzeko jarduerarako seroteka egin da, paziente bakoitzeko inplante-erregistro batekin. Gainera, transfusioen maneiuari eta segurtasunari buruzko prestakuntzan sakondu da.

Infekzioetako Batzordea

2022an, urtero bezala, hala eskatzen zuten gidak berrikusi eta eguneratu dira, eta adierazleen jarraipena egin da (ebakuntza aurreko mikrobioen aurkako profilaxia, ebakuntza-gelako giroa kontrolatzea, osasun-laguntzarekin erlazionatutako infekzioak...).

“Gehitu” historia klinikoaren aplikazioaren barruan, infekzioen orria hobetu da, paperezko formatua baztertzeko.

Horrez gain, beste oztopo bat erantsi da Gehitu-n, infekzio aktiboak itxi gabe gera ez daitezen. Pazientearen alta medikoan, infekzio horrek irekita jarraitzen duela adierazten duen abisu bat agertzen da; beraz, osasun-langilea behartuta dago infekzio hori berrikustera.

Eskuen Higie Batzordea

2002a eskuen higienari dagokionez normaltasunera itzultzeko urtea izanda, eta pandemiaren ondorioz lortutakoa modu normalizatuan eta pertsona guztientzat eskuragarri mantentzeko ideia landu da. Horrela, jarri ziren leku guztietan mantendu dira hidroalkoholaren guneak, eta honako hauek ere eutsi zaie: eskuen higienaren eguneratzei buruzko jakinarazpenak, Eskuen Higienaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna eta erakundearen saio klinikoetako eskuen higienari buruzko aurkezpenak.

Emaitza positiboa da; izan ere, hidroalkohol berrien eskaerek berdintsu jarraitzen dute, eta horrek adierazten du pertsona gehienek ohitura gisa barneratu dutela eskuen higiea.

Larrialdietako Batzordea

2022ko ekitaldian, kudeaketa-plana hedatzen, zentro asistentzialetako langileei prestakuntza ematen eta jarraibide nagusiak berrikusten jarraitu du.

Arriskuak Kudeatzeko Unitateko (AKU) batzorde iraunkorra

2022ko pazienteen segurtasun-adierazleak erakutsi dute pazienteen kalitate-eta segurtasun-helburu guztiak lortu direla (egiaztapen kirurgikoen zerrenda, baimen informatuak, erorikoak, presioagatiko ultzerak).

2022an, Mutualiaren Gasteizko Erabakimen Handiko Ospitalea sartu da honakoen adierazleetan: erorikoak, akutuen ospitalerako lekualdatzeak eta egonaldi ertain eta luzeko ospitalerako lekualdatzeak.

Horrez gain, pazientearen segurtasunarekin lotutako 3 gida kliniko berri hauek egin dira:

- I 42.07/15 Material kirurgikoa paketatzea, biltegiatzea, manipulatzeko eta garraiatzea 2022/06/02.
- I 44.02/21 Ingresatutako pazientearen min akutuaren tratamendua 2022/03/23.
- I 45.02/19 Lagungarrien erabilera minaren tratamenduan 2022/06/16.

AKUk pazienteen segurtasunari buruzko prestakuntza-edukiak garatzen jarraitu du Prestakuntza Atarirako, eta Osakidetzako Pazienteen Segurtasunari buruzko onlineko ikastaroa ere sartu du, erakunde publiko horrekin akordio bat sinatu ondoren.

2022an pazienteen segurtasunaren inguruan egindako beste ekintza batzuk:

- Pazienteen segurtasuneko solaskideen eta pazienteen segurtasuneko lurralde-arduradunaren arteko aldizkako bilerak ezartzea.
- Segurtasun-errondak
- Alarma bat abian jartzea akutuen ospitaletarako lekualdatzeetarako.

Dokumentazioko eta Historia Klinikoko Batzordea

Mutualiako Historia Klinikoko Batzordearen izaera eta helburua da Zuzendaritza Asistentzialeko organoen aholkularitza-, kontsulta- eta informazio-organoa izatea. Jarraian ageri den erakundeko arlo/estamentu bakoitzeko arduradun edo ordezkari batek osatzen du Batzordea:

- Zuzendaritza Asistentziala
- Administrazio eta Dokumentazio Klinikoko Zerbitzua (ADKZ)
- Zentro asistentzial periferikoen zuzendaritza
- Erizaintzako zuzendaritza
- Gai Juridikoen Zuzendaritza edo Aholkularitza Juridikoa
- Informazio-sistemak

Batzordearen eginkizuna da historia klinikoarekin zerikusia duten alderdiei buruzko erabakiak, gomendioak, gidalerroak, dokumentuak eta/edo jarraibideak aztertzea, eztabaidatzea eta aholkatzea eta/edo Zuzendaritza Asistentzialari proposatzea, onar ditzan, gero Mutualiako osasun-arloari jakinarazteko eta zabaltzeko.

Eskumen horien esparruan, batzorde honek aurrerapen hauek egin ditu 2022an:

- Mutualiaren Historia Klinikoa Erabiltzeko Eskuliburua eguneratzea, behar bezala betetzen dela eta garatzen dela bermatzeko, historia kliniko elektronikoa izateak dakartzan aurrerapen teknologikoetara eta datuak babesteko araudi berrira egokituta (2016ko DBEO eta 2018ko DBEDBLO).
- Osasun-datuak dituen dokumentazioa maneiatzeko eta entregatzeko jarraibideak

eguneratzea, osasun-dokumentazioa eskatzeko ereduaren berrikuspenarekin batera; izan ere, ohikoa da pazienteak historia klinikoaren kopia, txosten medikoak edo irudi erradiologikoen kopia eskatzea Mutualiako edozein zentrotan, bai kontingentzia profesionalari bai arruntari buruzko dokumentazioari dagokionez.

- Mutualiaren historia kliniko elektronikorako sarbideei buruzko jarraibideak, (Gehitu).
- Kontingentzia profesionaleko osasun-laguntzagatik eta kontingentzia arrunteko mediku-azterketengatik sortutako garraio-, mantenu- eta ostatu-gastuak konpentsatzeko jarraibideak.
- Mutualiako historia klinikoan pazienteen irudiak (argazkiak/bideo-grabazioak/dokumentazio grafikoa) atera, erabili eta maneiatzeko buruzko jarraibideak.
- Mutualiaren artxibo pasiboa osatzen duten paperezko formatuko historia klinikoak digitalizatzeko prozesuaren arriskuen balorazioa eta gomendioa.

Farmaziako Batzordea

2022. urtean, Farmazia Batzordeak Gida Farmakoterapeutikoa eguneratu du, sendagaien eskuragarritasunaren eta pazienteentzat hautemandako beharren arabera aldaketetan oinarrituta.

Bestalde, zenbait gida berrikusi dira (Gastrobabesa, arrisku handiko sendagaiak) eta antibiotikoen informazio-orriak eguneratu dira.

Gehitu-n eta ospitaleratze-gunean preskripzio farmakologikoa ezartzen lagundu da.

Osasun Arloko Proiektu Informatikoetako Batzordea

2022. urtean ezarritako proiektu informatiko nagusiak:

- Preskripzioa-Agindu medikoak Gehitu webean.
- Aldaketak ebakuntza-gelaren aplikazioan (norberarena eta besteena), bai eta beste aldaketa batzuk ere hirugarrenei fakturatzea errazteko.
- Informazio-trukea Mutua Montañesa eta Mutua de Navarrarekin.
- Konstante biologikoen dorreak Gehitu-n integratzea.
- Idonia PIN automatikoa
- Machine learning proiektuari hasiera ematea kontingentzia arrunterako.
- Kontingentzia arruntetako probak eta tratamenduak eskatzea.
- Sorbalda aztertze proba biomekaniko berria.

Irudi bidezko Diagnostikoko Batzordea

Batzorde honen helburu nagusia da 2022-2023 biurtekorako erradiodiagnostikoko unitate asistentzialetarako Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria lortzea, zeinak 46 estandar betetzen diren ebaluatzen baitu. Bide horretan, 2022an egindako lanak funtzionamendu-sistematikak egokitzea izan du ardatz, 2023ko ekitaldian ziurtagiria lortzeko. Gainera, batzorde hau gai asko eztabaidatzeko foro gisa erabiltzen da, eta Mutualiaren 3 ospitaleetako erradiologia-unitateen arteko komunikazioa eta protokoloen estandarizazioa indartzen ditu.

07.04 Osasun-administrazioa

Mutualiaren 18 zentroetatik, 16 osasun-jarduera garatzen duten zentroak dira, 3 ospitaleak eta 13 zentro asistentzialak. Guztiek arau orokor batzuk betetzen dituzte lan-metodologiei, prozedurei eta protokolo klinikoei dagokienez, eta, aldi berean, nolabaiteko autonomia propioa dute barneko lan-antolamenduan.

Jardueraasistentzial horretan, paziente bakoitzarekin sortzen diren prozesu administratiboak garrantzitsuak dira, pazientearen historia klinikoaren kudeaketak barne hartzen duen laguntza-prozesu hutsa eta klasikoa bezain garrantzitsuak. Eskumen administratibo horien kudeaketa Osasun-administrazioaren eta haren Administrazioko eta Dokumentazio Klinikoko Zerbitzuaren (ADKZ) antolamenduaren arlokoa da.

Mutualia mailan helburu eta lan-ildo berberak dituen ADKZ bateratu bat bultzatzeak garrantzi handiagoa hartu du 2021etik aurrera, Mutualiaren antolamenduan Osasun Administrazioaren Zuzendaritzaren figura aitortu baita Mutualiaren lurralde-unitateetako (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba) ADKZen zuzeneko arduradun gisa. Haren helburu nagusien artean, prozedurak bateratzea eta lan-sistematiketan bat egitea dago, emaitzetan balioaniztasun- eta eraginkortasun-kultura oinarri hartuta.

Helburu horrekin, Mutualiak ADKZ egitura bat dauka zentro asistentzial bakoitzean. Bereziki, hiru ospitaleetan (Ercilla Klinika Bilbon, Pakea Klinika Donostian eta EHO Gasteizen) berrikusten eta/edo egiten dira adostutako prozedurak eta jarraibideak, eta, ondoren, zentro asistentzial periferikoetan zabaldu eta ezartzen dira. Hedapenez, ospitaleetako ADKZen arduradunak lurralde-unitate bakoitzeko (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba, hurrenez hurren) zentro asistentzialen arduradunak dira.

Prozesu administratiboaren kudeaketa osorako, Osasun-administrazioaren arloak 57 pertsonaz osatutako talde bat du, inplikaturik dagoena Mutualiak pazienteen eta haien senideen osasunarekin eta bizi-kalitatearekin hartutako konpromisoarekin. Horrez gain, zerbitzurako bokazioa du, eta bere asistentzia-prozesutik eratorritako harreman administratiboa erraztu nahi du Mutualiako zentroetako zerbitzu asistentzialekin, tratu profesionala, hurbilekoa, pertsonalizatua eta gizatiarra eskainiz, gure pazienteen historia klinikoa ahalik eta errespetu eta konfidentzialtasun handienarekin kudeatuz.

2022an izandako gertakari nabarmenen artean honako hauek daude:

- Osasun Administrazioko Arriskuen Mapa sortzea, zeinak Erakundeari arrisku-egoerak identifikatzea ahalbidetu baitio, arrisku horiek ezabatzeko edo minimizatzeke ekintzak garatzeko.
- Mutualiak gaur egun kanpoan gordeta daukan artxibo pasiboaren zati diren paperezko historia klinikoak digitalizatzeko eta Mutualiaren Historia Kliniko digitalean integratzeko urtekako faseen arabera planteatutako prozesuaren hasiera. Horrek, 1. fasean, guztira 78.040 espedienteri eragiten die, eta, beraz, 1.322.046 orri digitalizatu behar dira. Horri esker, kontingentzia profesionalagatik artatutako Mutualiako pazienteen historia klinikoa osoa, fidagarria, ordenatua eta segurua izango da paziente bakoitzaren informazio klinikoari dagokionez, betiere historia kliniko bakarra izateko duten eskubidea errespetatuz, zeinak osasun-laguntza errazten baitu osasun-datu beti eguneratuen eta osoen bidez, eta hori onuragarria da pazienteen segurtasunerako ere.
- Mutualiaren historia klinikoaren dokumentu-moten katalogo bat sortzea, Newfile dokumentu-kudeatzailean kanpo-dokumentazioa digitalizatzeko, eskaneatzeko postu guztietan aplikatzeko irizpide bateratuekin.
- Pazienteen Onarpen Digitalaren proiektua abian jartzea eta, haren bidez, pazienteak

fluxuen eta asistentzia-zirkuituen kudeaketaren erdigunean jartzea, beharrezkoak ez diren ilarak saihestea eta zita edo proba osagarri programatua duen kontsultara bideratzea modu erraz eta intuitiboan. Horrekin batera, informazio-pantailak jartzen dira aretoetan. Pantaila horietan, paziente bakoitzarentzako kode anonimoak bistaratzen dira, soinu bidezko abisua duen sistema batez lagunduta. Horri esker, pazienteen intimitatea bermatzen da kontsultetan artatuak izateko deian.

- Osasun-langileei COVID-19aren aurkako txertoa jartzeko jarraibideen antolamendua eta administrazioa.
- Gure paziente mutualistei kontingentzia profesionalagatik emandako osasun-laguntzako gastuak berreskuratzea, gertatutako trafiko-istripuaren hirugarren arduradun bat (aseguru-etxeak) dagoenean. 2022an berreskuratutako kopurua 715.000 €-koa izan da. Zehazki % 18,17 igo da zenbatekoa 2021eko ekitaldikoarekin alderatuta.
- Hirugarrenei fakturatzeko aplikazioa berritzea, fakturazio fidagarri eta automatiko baterako (eskuzko aldaketak ahalik eta gehien saihestuz), horretarako informazioa duten gainerako aplikazioekin lotuta. Parametro hauek izango dira aplikazio berriaren oinarri: eraginkortasuna, fidagarritasuna, malgutasuna eta laburtasuna. Horren emaitza faktura erraz, ulergarri eta argi bat izango da. SAE automatikoak ezarri dira; lehen eskuz egiten ziren eta orain emandako laguntza-mota batzuekin lotuta daude.



07.05 Prestazio ekonomikoak

2022ko ekitaldian, Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoen 342.420 eskaera kudeatu dira guztira, 2021ean baino % 23,60 gehiago. Igoera handi hori kontingentzia arruntek ekarritako aldi baterako ezintasunagatiko prestazioek eragin dute batez ere, % 39,85eko igoera izan da horietan.

Ondorengo tauletan, artatutako prestazioen kopurua eta kontingentzia profesionalagatiko prestazioen espedienteen xehetasunak agertzen dira, hala nola baliaezintasuna, heriotza edo biziraupena (BHB), haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua (HEA) edo haurren zaintza (HAZA).

Laguntza jaso duten prestazioen kopurua

Prestazioak	2021	2022	▲▼ %
Kontingentzia arruntengatiko Aldi Baterako Ezintasuna	158.947	222.294	%39,85
<i>Ordainketa eskuordetua</i>	142.863	206.238	%44,36
<i>Zuzeneko ordainketa</i>	16.084	16.056	%-0,17
Kontingentzia Profesionalengatiko Aldi Baterako Ezintasuna	18.906	19.341	%2,30
<i>Ordainketa eskuordetua</i>	17.270	17.055	%-1,24
<i>Zuzeneko ordainketa</i>	1.636	2.286	%39,73
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua	1.755	1761	%0,34
Kontingentzia profesionalen ondoriozko sekuelak eta heriotzak	863	1.019	%18,08
<i>Baliaezintasunik gabeko Lesio Iraunkorrak eta Ezintasun Iraunkor eta Partziala</i>	705	880	%24,82
<i>Pentsiorako eskubidea ematen duen ezintasuna eta Heriotzagatiko prestazioak</i>	158	139	%-12,03
Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea	235	287	%22,13
Langile autonomoen jarduera etetea	271	341	%25,83
Besteren kontuko COVID-19 espediente kopurua	89.605	93.106	%3,91
<u>Norbere kontuko COVID-19 espediente kopurua</u>	6.448	4.271	%-33,76
Guztira	277.030	342.420	%23,60

Baliaezintasun-, heriotza- eta biziraupen-espedienteak

	2021	2022	▲▼ %
Baremoak (Elbarritasuna eragiten ez duten lesioak)	688	864	%25,58
Ezintasun iraunkor partziala	17	16	%-5,88
Ezintasun iraunkor osoa	79	78	%-1,27
Ezintasun iraunkor absolutua	16	11	%-31,25
Baliaezintasun handia	0	3	-
Hildakoak	63	47	%-25,40
Guztira	863	1.019	%18,08

Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arrisku-espedienteak

	2021	2022	▲▼ %
Haurdunaldiko arriskuko espedienteen kopurua	1.735	1.739	%0,23
Edoskitze naturalaren garaiko arriskuko espediente kopurua	20	22	%10,00
Guztira	1.755	1.761	%0,34
Tramitatze epea (prestazioa kobratzen hasi arte)	23,35	23,30	%-0,21
Batez besteko iraupena (kobratze-egunak)	108,09	108,00	%-0,08

Adingabeak zaintzeko espedienteak

	2021	2022	▲▼ %
HAZA espedienteen kopurua	235	287	%22,13
Batez besteko iraupena (kobratze-egunak)	641	587	%-8,49

07.06 Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak

Lan-istripuak

	2021	2022	▲▼ %
Baja duten laneko istripuak	14.244	15.649	%9,86
Baja duten istripuak lanaldian	12.495	13.759	%10,12
Baja duten istripuak in itinere	1.749	1.890	%8,06
Bajarik gabeko istripuak	18.393	18.589	%1,07
Guztira	32.637	34.238	%4,91

Baja duten laneko istripuak jarduera-sektorearen arabera

Zerbitzuak



%58,20

Industria



%29,71

Eraikuntza



%10,56

Lehen sektorea



%1,53

Baja duten lan-istripuak, istripua izandako lekuaren arabera

Ohiko zentroan



%71,38

In itinere



%12,08

Laneko joan-etorriak



%3,32

Beste zentro batean



%13,23

Baja duten lan-istripuak asteko egun bakoitzeko

%21,50



Astelehena

%18,58



Asteartea

%18,26



Asteazkena

%16,87



Osteguna

%15,51



Ostirala

%5,44



Larunbata

%3,84



Igandea

Istripua nola gertatu zen

	2021	2022
Fisikoa, trauma psikikoa, erradiazioen, zarataren, argiaren edo presioaren eraginpean egotea	%29,24	%29,88
Geldirik dagoen objektu baten gainean edo kontra zapaltzea	%25,49	%24,93
Mugitzen ari den objektu baten kontra talka egitea edo kolpatzea	%16,66	%17,44
Kontaktua, agente material ebakitzailer, zorrotz, gogor, zimurtsu batekin	%8,79	%8,81
Harrapatzea, zapaltzea, anputazioa zehaztu gabe	%3,45	%3,04
Korronte elektrikoa, sua, tenperatura ukitzea	%5,67	%5,39
Hozkadak, ostikadak, etab. (animalienak edo pertsonenak). Zehaztu gabe	%2,37	%2,43
Zehaztu gabeak edo bestelakoak	%8,33	%8,08

Gaixotasun profesionalak

Lanbide-gaixotasunak bajari dagokionez	2021	2022	▲▼ %
Baja duten lanbide-gaixotasunak	410	474	%9,86
Bajarik gabeko lanbide-gaixotasunak	424	489	%10,12
Guztira	834	963	%4,91



Baja duten lanbide-gaixotasunak

Baja duen LGa eragiten duen agentea	2021	2022
Ag. kimikoak	%0,49	%0,85
Ag. fisikoak: Zarata	%0,49	%0,42
Ag. fisikoak: Jarrera eta mugimendu errepikakorrak	%85,85	%85,84
Ag. fisikoak: Bibrazioak	%1,71	%0,42
Ag. fisikoak: Bestelakoak	%1,71	%3,38
Ag. biologikoak	%1,71	%1,06
Inhalazioa (bestelako substantziak eta agenteak)	%2,68	%1,90
Larruazaleko LG (bestelako substantziak eta agenteak)	%4,63	%5,71
Ag. kartzinogenikoak	%0,73	%0,42

Bajarik gabeko lanbide-gaixotasunak

Bajarik gabeko lanbide-gaixotasuna eragiten duen agentea	2021	2022
Ag. kimikoak	0,00%	0,41%
Ag. fisikoak: Zarata	26,00%	21,68%
Ag. fisikoak: Jarrera eta mugimendu errepikakorrak	56,50%	56,03%
Ag. fisikoak: Bibrazioak	0,95%	0,20%
Ag. fisikoak: Bestelakoak	10,64%	15,95%
Ag. biologikoak	1,42%	1,84%
Inhalazioa (bestelako substantziak eta agenteak)	1,18%	1,84%
Larruazaleko LG (bestelako substantziak eta agenteak)	3,31%	1,64%
Ag. kartzinogenikoak	0,00%	0,41%

07.07 Prebentzioko jarduerak

Kontzeptua		2021	2022	▲▼ %
Enpresetara bisitak		199	263	%32,16
Istripugarritasun azterketak		704	754	%7,10
LI eta LGen azterketak		176	181	%2,84
Prebentziori buruzko dibulgazio materialaren hartzaileak		390.740	449.040	%14,92
Prebentzioari buruzko kontsultak		1.411	1.395	%-1,13
Prebentzio kanpainak		73	75	%2,74
Prebentzioko Mutualia Ikasgela	Jardunaldi/tailer kopurua	28	37	%32,14
	Parte hartzaileen kopurua	707	1.015	%43,56
Mutualia Campus Birtuala	Eskainitako ikastaroen kopurua	48	58	%20,83
	Parte hartzaileen kopurua	2.774	1.407	%-49,28

Mutualiako prebentzio-ikasgela

Mutualiako Prebentzio Ikasgelak webinarra baliatu du gehien ikastaroak egiteko formatu gisa, aurrez aurreko ikastaroen kopuruak gora egin duen arren. 2022. urtean 36 jardunaldi eta tailer egin dira, eta 1.015 pertsonak hartu dute parte haietan. Gai hauek landu dituzte:

- Elikadura osasungarriaren eskola
- Estresa kudeatzeko eskola
- Loaren eta atsedeenaren eskola
- Ahotsaren eskola
- Segurtasunez gidatzeko eskola
- Absentziak kudeatzeko tailerra
- Jardunaldi teknikoa: Telelanaren alderdi juridikoak Arrisku psikosozialak eta teknoestresa
- Jardunaldi teknikoa: Ziberpsikologia, arriskuak eta aukerak
- JARDUNALDI TEKNIKOA: LAPa berritu ala ez (Mutualia sarien 9. edizioan)
- Prevención10 programa

36 jardueretatik 28 ebaluatu dira, eta guztira 215 inkesta oso jaso dira. 5etik 4,6ko puntuazioa lortu da.

Mutualiako Campus Birtuala

Campus Birtualak eskainitako ikastaroen kopuruak gora egin du, 2022an 58ko katalogoa osatu arte. Halere, ikasle-kopuruak behera egin du aurreko urtearekin alderatuta; batez ere, izena eman zuten pertsonen kopurua asko handitu zelako pandemian, guztiz onlineko prestakuntza-eredua baita. 2022an, 1.407 pertsona prestatu dira.

GRI 416 1

GRI 416 103

Exoeskeletoa erabiltzeko aholkularitza praktikoa

Mutualiako prebentzio-aholkularitzak exoeskeletoak ditu, eta enpresa elkartuen eskura jartzen ditu, gailu horiek nahasmendu muskuloeskeletikoak murrizteko onuragarriak izan daitezkeen postuetan proba ditzaten.

Mutualiak bi exoeskeleto-mota ditu. Batetik, bizkarreko 2 exoeskeleto mekaniko; bat besoak altxatuta mantendu behar diren lanetarako gomendatzen dute, eta beste bat, aldiz, hanketarako, erdi eseritako posizioak daudenerako. Bestetik, eskuen exoeskeleto bat da, zeinak eskuaren esfortzu muskularra murrizten baitu, heltzeko indar eta erresistentzia gehiago eskainiz eta lesioak izateko arriskua gutxituz.

Zerbitzu hori osatzeko, hainbat liburuxka argitaratu dira exoeskeleto horiek erabiltzeko jarraibideekin.

Prebentzioari buruzko argazki-lehiaketa

Mutualiakurtero antolatzen duten laneko arriskuen prebentzioari buruzko argazki-lehiaketa bat, pertsonei laneko arriskuen prebentzioaren inguruan kontzientzia sorrarazteko. 2022ko ekitaldian, lehiaketa honen 19. edizioa egin zen, eta 163 argazki jaso ziren. Igor Otaegi Gurrutxagak egindako argazkia izan zen irabazlea, "Garaiak aldatu dira zuretzat" izenburukoa, zeina eskuinean ikus baitaiteke. Mutualiaren "Prebentziozko Begiradak" erakusketa ibiltarian sartuko dira argazki irabazlea eta lehiaketa honetako edizio bakoitzera aurkeztutako argazkien hautapen bat.

Era berean, Mutualiak prebentziozko argazkien barne-lehiaketa bat ere egiten du urtero, mutuako langile guztiek parte hartu ahal izateko eta, barrurantz ere, sentsibilizazioa sustatzeko laneko arriskuen prebentzioaren inguruan.



“Prebentzio Begiradak” argazki-erakusketa

2017an inauguratutako “Prebentzio Begiradak” erakusketa 43 argazkik osatutako hautaketa bat da; Mutualiaren Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Argazki Lehiaketan parte hartu duten 1.200 eta gehiago argazkietatik aukeratuak dira. Erakusketa ibiltaria da, eta enpresa elkartuen eskura jartzen da, EAEko txoko guztietan erakutsi ahal izateko. Erakusketa honen helburua zera da, laneko arriskuen prebentzioaren garrantziaz hausnartzen eta kontzientziazten laguntzea.

2022an, erakusketa Euskalduna Jauregian egon da, Mutualia sarien 9. edizioaren banaketa-ekitaldian.



Argazkien bideoa

Mutualia Sarien 9. edizioa

Apirilaren 29an, San Prudentzio egunaren eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Egunaren biharamunean, Mutualiak sarien bederatzigarren edizioaren banaketa-ekitaldia ospatu zuen. Bertan, 250 pertsonak baino gehiagok bisitatu ahal izan zituzten estandak, bide-segurtasunari, enpresa osasungarriari, exoeskeletoei eta enpresetako absentzien kudeaketari buruzkoak.

Jardunaldiaren ekitaldi nagusian, Mutualia Sariak banatu ziren. Enpresa finalista bakoitzak bere proiektuak aurkeztu eta bertaratutakoen eta epaimahai espezializatu baten balorazioa egin ondoren, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Arloko Berrikuntzaren Saria Trienekens enpresari eman zitzaion, “Kudeaketa prebentiboaren integrazio eraginkorra” proiektuagatik. Enpresako Aniztasunaren Saria, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiari eman zitzaion, “Desgaitasun intelektuala duten pertsonen Bizkaiko Foru Aldundiaren antolamendurako sarbidea eta inklusioa” proiektuarekin. Aurkeztu ziren proiektu guztien kalitatea ikusita, epaimahaiak erabaki zuen akzesita merezi zutela kategoria bakoitzeko bi enpresa finalistek: Metro Bilbaok eta Bahía de Bizkaia Gasek, prebentzioaren berrikuntzan; eta Emtesportek eta Gureakek, enpresako aniztasunean.

Mutualia Sariez gain, OBidean aitortpenak banatu ziren, non laneko istripuen murrizketan eta laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa bikainean ibilbide luzea duten enpresak nabarmentzen baitira. Honako enpresa hauek jaso zituzten errekonozimenduak: Ingemat, Salto System, Talleres Escoriaza eta Zigor Corporación.



Enpresetako segurtasunari, osasunari eta aniztasunari buruzko ekitaldi horretan, laneko arriskuen prebentzioko argazki onenaren saria ere eman zen.



Ekitaldiaren
bideoa

IE03: Berrikuntza zerbitzuetan

07.08 Bezero bakoitzaren tipologiara egokitutako zerbitzuak

Mutualian mota askotako bezeroei ematen zaie zerbitzua. Bezerotzat hartzen dira enpresak, langileak —prestazio ekonomikoaren eskatzaile gisa edo osasun-zentroetako paziente gisa—, langile autonomoak, etab.

Zerbitzua ematen zaien erakunde- eta pertsona-mota ezberdinek eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek bete behar dituzten arauzko balditzek, etengabe zerbitzuen zorroa berrikustera behartzen dute, bertara egokitzeko eta Mutualian duten esperientzia onena izan dadin saiatzeko.

Mutualiak bere webgunean argitaratu du balioei lotutako zerbitzuen karta, eta kontrastatu daitezkeen konpromiso batzuk ezartzen dira han.

Bezeroen eskura jartzen diren zerbitzu horietako asko tresna digitalekin lotuta daude. Zentzu horretan, 2022ko ekitaldian, hobekuntzak sartzen jarraitu da enpresen eta langileen aplikazioetan eta web-orrian: segurtasun-neurri berriak ezarri dira eta nabigagarritasuna eta irisgarritasuna hobetu dira, eta Mutualiaren zentroen bilatzaile berria nabarmentzen da ororen gainetik.

Web-tresnen artean, estraneta eguneratu da: aplikazio bat 8.900 enpresa eta aholkularitza-zentro laguntzailek baino gehiagok erabiltzen dutena Mutualiarekin lotutako prozesuen eguneroko kudeaketarako.

Zerbitzu eta tresna digitalak garrantzitsuak dira, bezeroen kudeaketa asko errazten dutelako, baina, zalantzarik gabe, gertuko harremanak eta harreman pertsonalak nagusitu eta mantendu egin behar dira; izan ere, hurbiltasuna da Mutualiaren balio garrantzitsuenetako bat. Argi dago pandemia-egoerak eragina izan duela gertuko harreman horietan; izan ere, kontaktua mantentzen jarraitu da, baina hain pertsonalak ez diren beste bide batzuen bidez.

Mutualia Foroa

Topaleku garrantzitsuenetako bat Mutualia Foroa da; Kudeaketa Arloak bideratzen du, Aholkularitza Juridikoarekin lankidetzan, eta enpresa eta aholkularitza-zentro laguntzaileei zuzenduta dago. 2022ko ekitaldian, foroa berriro egin da pandemia-garaian izandako etenaldi baten ondoren; zehazki, bi edizio egin dira, bata maiatzean eta bestea abenduan, honako xehetasun hauekin:

- 2022ko maiatzeko Mutualia Foroa: “Lan-erreformaren funtsezko gaiak. 32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa” Foro hori Bilbon, Donostian eta Gasteizen egin zen, guztira 429 pertsona bertaratu ziren, eta 10etik 9,16ko balorazioa eman zioten ekitaldiaren garapenari eta antolamenduari.
- 2022ko azaroko Mutualia Foroa: “Langile Autonomoentzako Kotizazio-sistema Berria (13/2022 Errege Lege Dekretua, uztailaren 26koa)”. Foro hori Bilbon, Donostian eta Gasteizen egin zen, guztira 474 pertsona bertaratu ziren, eta 10etik 9,47ko balorazioa eman zioten ekitaldiaren garapenari eta antolamenduari.

Bi foroetako hitzaldiak Mutualiako abokatuek eman zituzten, jardunaldiak grabatu egin ziren, eta Youtube bidez zabaldu ziren, bertaratzerik izan ez zuten pertsonak prestakuntza horretara sartzeko aukera izan zezaten. Izatez, bi foro horien streaming bidezko bistaratzeak 1.232 izan dira.

Iradokizun Onenaren Saria

Urtero, azken hiruhilekoan, Mutualiak sari bat ematen du bezeroek iradokizunak egin ditzaten ematen diren zerbitzuei buruz. Hobekuntzak identifikatzeko eta zerbitzuen kalitatea hobetzen lagunduko duten ideiak atzemateko bide bat da. Enpresa elkartuetako eta aholkularitza-zentro laguntzaileetako langile guztiei zuzendutako ekimen honek haien inplikazioa eta lankidetzatza bilatzen du.

2022an, Mutualian Bezeroen Eguna ospatzearekin batera egin zen banatu ohi den sariaren hamaikagarren ediziorako deialdia. Pandemiaren ondoren, edizio hau baldintza "normaletan" egin ahal izan da, eta, horren ondorioz, iradokizun gehiago jaso dira. Irabazleari ematen zaion sariaz gain, Mutualiak iradokizuna gauzatzeko konpromisoa hartzen du.



Onarpen digitala

2022an finkatu egin da onarpen digitalaren programa, zeina, proba pilotu gisa, Mutualiaren Gasteizko Erabakimen Handiko Ospitalean ezarri baitzen 2021aren bukaeran. Martxan egon den lehenengo urte honetan, pazienteen eta Mutualiako langileen esperientzia oso ona izan da. Sistemak hasierako identifikaziorako kontsola zentrala, txatbota, Mutualiako aplikaziorako eta telefono mugikorretarako konexioa, informazio-kartel digitalak eta abar ditu. Hurrengo puntuan xehetasun gehiagoz azalduko dugu eraldaketa digitalaren gaia. Elkarri eragiteko moduak zenbait soluzio eskaintzen ditu arrakala digitaleko eta irisgarritasun arazoekiko kasu posibleak konpontzeko.



07.09 Eraldaketa digitala

Mutualiaren Lehenengo Eraldaketa Digitalaren Plana 2018an egin zen. Gero, 2021-2025 urteetako Plan Estrategikoarekin bat etorri, bigarren plana sortu zen aldi horretarako, eta 2022an finkatzen joan da eta aurreikusitako helburu asko bete dira.

Plan horri esker, Mutualia teknologia eta azpiegitura moderno eta berritzaileak ezartzen ari da, informazio- eta komunikazio-sistemen abangoardian egoteko.

Plan horri jarraituz, barne-prozesuak eta Mutuialiak babesten dituen enpresa eta pertsonen eskaintzen dizkien zerbitzuak garatu eta hobetu dira.

2022an egin diren proiektu garrantzitsuenen artean, honako hauek daude:

Lan-arriskuen prebentzioko teknikarientzako aplikazioa

Mutuialiak aplikazio bat sortu du prebentzioko teknikarientzat, aukera ematen diena urrutiko lekuetatik azterlanak egiteko Internet erabili gabe. Arkatz digitalak dituzten tabletan edo zuzeneko ahots-diktaketan bidez, txostenak egiten dituzte argazki eta bideoak txertatuz, eta txostenok gailuan gordetzen dira, gero wifi-sare seguru batera konektatzeko eta gure zerbitzariarekin informazioa sinkronizatzeko aukera dutenera arte.

Erizaintza-triajea tabletekin

Larrialdietako erizaintza-triajeak erizainek erabiltzen dituzten tabletetan egiten dira; horrela, bermatzen da pazienteak eta prozedura egiten duen osasun-langilea zuzen identifikatzen direla, eta, horrenbestez, arreta larrialdiaren arabera antolatzen da eta lehentasunak ezartzen dira. Horretarako, pazienteak soinean daramaten eskumuturrekoko barra-kodea irakurrita identifikatzen dituzte erizainek, eta, horrela, beharrezko informazioa jasotzen da aplikazioak premiazko arretaren beharra kalkulatzeko zenbakizko balio batekin; gero, balio hori pazientearen triajerako kode koloredun bihurtzen da, eta arretaren premia modu bisualean zehaztu daiteke.

Proiektu horrek Abangoardismo balioaren saria irabazi zuen Balioak Bizi sarietan. Sari horiek Mutuialiak antolatzen ditu bi urtean behin. Bertan, Mutualiaren balioekin lotutako proiektuak aurkezten dira, eta Zuzendaritza Batzordeak, lurralde-batzarrek eta Mutuialiko kideek hautatzen dituzte balio bakoitzaren proiektu irabazlea eta edizio bakoitzeko irabazle orokorra.

Gure historia klinikoaren irudia modernizatu eta eraldatzea

Mutualia bere historia klinikoaren irudia berritzen ari da, teknologia berri eta modernoetara egokituz. Orain arinagoa eta intuitiboagoa da, eta historia klinikoaren eskuliburuan definitutako rol eta baimenen arabera sarbidea bermatzen du. Historia teknologia berriekin integratzen ari da; besteak beste, Teams, tabletetatik ikusi ahal izateko aukera, Office365eko tresnak... Ekipamendu medikoaren komunikazio-estandarrekin eta kanpoko beste historia kliniko batzuekin ere integratzen ari da. Pazienteen onarpen digitala ezartzen ari gara, maila gorenean automatizatzen ari dira administrazio-lanak, eta pazienteei banatzen zaien paper-kopurua txikitzen ari gara.

Gobernu Irekia – Open Data – Mutualiaren webgunea

Herritarrek, geroz eta gehiago, benetako eta berehalako informazioa eskatzen dute, eta, kontuan izanik Mutualiaren balioetako bat gardentasuna dela, Open Data edo Gobernu Irekiaren atal bat sortu dugu aurten atari korporatiboan. Atal horretan, nahi duten herritar guztiek gure datuak kontsultatu ahal izango dituzte Power BI garatutako aginte-koadro batetik, zeinak informazioa Mutualiaren datu-baseetatik zuzenean eskuratzen baitu.

2022an Atari Korporatiboa sortu da Mutualiaren webgunean, eta webgunea bera ere modernizatu egin dugu irisgarriagoa, arinagoa eta atseginagoa izateko, eta orain, gainera, errazagoa da bertan informazioa aurkitzea.

Adimen artifiziala

Proiektu berritzaileak garatu ahal izan dira hauei esker: adimen artifiziala, Big Data eta Machine Learning bidezko datu-tratamendu masiboa, eta Business Intelligence-n oinarritutako aginte-koadroen bidezko datu-ustiapena.

Proiektu horietako batek baten kontrola eta jarraipenean sartu du adimen artifiziala. 11 urtetako datu anonimizatuak erabiliz iragarpen-eredu bat garatu da, aukera eman duena baliabideak optimizatzeko dira eta osasun-langileek erabakiak hartzeko kudeaketan laguntzeko.

Proiektu hori Osasun Digitalaren Nazioarteko IX. Kongresuan aurkeztu zen, zeina Donostian egin baitzuten 2022ko irailaren 12tik 16ra.

Proiektu hori eta adimen artifizialarekin egiten diren gainerako guztiak bereziak dira, eta, horregatik, Mutualiaren Etika Batzordeak ebaluatzen ditu, bermatuz adimen artifizialeko programetarako printzipio eta betekizun etiko guztiak betetzen direla.

Robotizazioa

Mutualiak efizientzia du helburu, eta, bide horretan, ikusi du beharrezkoa dela oinarritzko beharrak makinei transferitzea, azkarrago eta akats gutxiagorekin egin daitezen. Hala, langileek denbora gehiago izango dute beste jarduerak batzuk balio handiagoarekin egiteko, eta gizakien sormena zerbitzuak hobetzeko aprobeztatzeko da, denbora jarduerak errepikakorrak egiten pasatu beharrean.

2022an, prestazioen jakinarazpenak eskutitz ziurtatuen bidez bidaltzeko lanak robotizatu dira.



Informazioaren segurtasuna - Zibersegurtasuna

Teknologia ezinbestekoa da eraldaketa digitalerako, eta, hari esker, aukera berriak eskain daitezke zerbitzuen garapenean, baina, kontrara, zibersegurtasunarekin lotutako arriskuak gehitu egiten dira.

ISO27001 ziurtagiria eta Segurtasunaren Eskema Nazionalea

Mutualiarentzat oso garrantzitsua da kudeatzen duen informazioa seguru egotea, eta, horregatik, 5 urte daramatza ISO27001 ziurtagiria lortzeko prozesuan, zeinak bermatzen baitu informazioaren arriskuen ebaluazio bat egin dela eta enpresaren, bezeroen eta hornitzaileen informazioa arduraz, segurtasunez eta fidagarritasunez babestu eta kudeatzeko segurtasun-kontrolak diseinatu eta ezarri direla.

Gainera, 2022an Mutualiak Segurtasunaren Eskema Nazionaleko egiaztapena lortu du. Zentro Kriptologiko Nazionalak (CCN) sortu eta sustatutako arauada, eta haren helburuad a herri tarren datuen pribatutasuna babestea izapide elektronikoak egiten dituztenean. Ziurtapen horren bidez, Mutualiak administrazio publikoen informazio-sistemen segurtasuneko oinarritzko printzipioak eta gutxieneko betekizunak ezartzen ditu.

Ordenagailuen eta zerbitzarien babes aurreratua. EDR

2022ko irailera arte, Mutualiak EPP (Endpoint Protection Platform) sistema bat zuen —antibirusa hizkera arruntean—, enpresaren azpiegiturak malware-mehatxuetatik babesteko, bai erabiltzaileen azken ekipoetan, bai eta zerbitzarietan ere. Ikuspegi hori zibersegurtasunaren ikuspegi tradizionala da.

Mutualiak ikusi zuen informazioa babesteko ezinbestekoa zela detekzioan eta erantzunean (EDR Endpoint Detection and Response) oinarritutako babes-tresnakizatea. Ohiko mehatxuen, patroiz gaizkile bakarren eta zibergaizkileen infiltrazio-teknika konplexuetan oinarritutako jarduerak konbinatuta, zuzendutako mehatxu eta erasoak arrisku bihurtzen dira mutuiarentzat. Babes-sistema tradizionalak birusen sinaduretan oinarrituta zeuden, eta teknika hori sobera menperatzen dute zibergaizkileek. Tresna berriek jokaerak etengabe analizatzeko teknikak baliatzen dituzte eta ekimenen arteko korrelazioak aztertzen dituzte, eraso konplexuak detektatu ahal izateko, babesaren oinarri gisa. Ekipo baten jokaera ezohikoa bada, nahiz eta birus bati dagokion kodea ez exekutatu, mehatxu edo gorabehera gisa tratatzen da.

ENS ziurtagiria lortzeko, horrelako babes-sistema bat (EDR) ezarri behar da, eta Zentro Kriptologiko Nazionalak ziurtatuta (ccn-cert) egon behar du. Zerbitzu hori 2022 bukaeran ezarri zen, etengabe aldatzen ari diren mehatxuetatik babesteko sistema batekin, ENSren betekizunak betez eta adimen artifizialean, prozesuen isolamenduan, IoTren eskaneatzean (konpromiso-adierazleak) eta mehatxuen adimenean oinarritutako ikaskuntza automatikoa duten teknologia aurreratuak erabiliz, modu horretan zero eguneko erasoei, eraso jarraitu aurreratuak eta malware zepa ezezagunei erantzuteko eta haiek saihestu eta blokeatzeko.

Komunikazio-ekipoak berritzea

Beharrezkoa da komunikazio-azpiegituren elementu guztiak zentralizatuta kudeatzea: switch-ak, wifi konexio-puntuak, urrutiko konexio-puntuak eta kable bidezko konexio-puntuak.

Kudeaketa integratua egiteko eta elementu guztiei segurtasun-neurriak aplikatzeko, fabrikatzailea bateratu eta sistema integrala ezarri da. Modu horretan, batera integratu eta kudeatzen da komunikazioen segurtasuna.

2022tik, Mutualiak zerbitzu berri bat du sareko sarbidea kontrolatzeko (NAC Network Access

Control), zeinak aukera ematen baitu sarera kable edo wifi bidez konektatzen direnak identifikatzeko eta aplikatzen diren konexio-gaitasunak dinamikoki definitzeko (adibidez, gailua ezagutzen ez badu, ez dio konexiorik ematen; Internet erabiltzeko aukera soilik ematen du, korporazioko datuak ikusten utzi gabe; eta abar).

Eskuratzen diren sareko ekipamendu berriak fabrikatzaile berarenak dira (switch-ak, wifi-antenak, urrutitik lan egiteko antenak...), horrela komunikazioen kudeaketa eta segurtasuna maila gorenean optimizatzeko.

Segurtasun-kopiak hodeian biltegitratzea

Mutualiaren informazio asko Microsoft Office 365en sortzen, kudeatzen eta gordetzen da: agiriak, mezu elektronikoak, elkarrizketak, lantaldeen plangintzak eta abar.

Informazio hori Microsoften "hodeian" dago, segurtasun- eta eskuragarritasun-maila oso handiarekin, baina beharrezkoa da informazio horren historiala beste sistema batean gordetzea, fabrikatzaileak arazoren bat izanez gero informazio hori eskuratu ezin izatea ekiditeko.

Horregatik ezarri da eduki horien guztien segurtasun-kopien sistema bat. Datu horiek bereizita gordetzen dira Microsoften hodeiko baliabideetan.

Urrutiko lana

Urrutiko lana dela eta, esfortzu berezia egin behar izan da zenbait arlotan, urrutiko lanaren segurtasuna Mutualiako zentroetan dauden ekipoetan egiten denaren parekoa izan dadin. Horretarako, ordenagailu eramangarriak eskuratu dira eta Mutualiak urrutitik kudeatutako gailu gisa integratu dira.

Sareko konexioa telelana egiten dutenen etxeetara luzatzeko sistema bat ezarri da wifi-antena baten bidez. Beste modu batera esanda, Mutualiaren sarea urrutitik lanean ari denaren etxera eramaten da, lantokiko segurtasun, irisgarritasun eta gaitasun berberak bermatzeko. Proiektu hori konfiguratuta dago, eta 2023an bukatuko da ezartzen.

Zibersegurtasunari buruzko kontzientziazioa ihes-gela batean

Mutualiako langileak ezinbestekoak dira zibersegurtasunerako. Prozedura, ekipo eta ziurtagiri guztiek ez dute asko balio azken erabiltzaileak delinkuentzia informatikoaren arriskuen inguruan prestatuta eta kontzientziazioa ez badaude. Kontzientziazioa eta prestakuntza horiek lortzeko, informazio-pilulak, artikulak, hitzaldiak, webinarrak eta antzekoak erabiltzen dira aldian-aldian. Baina aurren, prozedura berri eta prestakuntzarako modu erakargarriagoak eskaini nahian, zibersegurtasunari buruzko ihes-gela edo escape room bat sortu dugu.

Informazio Sistemen sailak sortu du ihes-gela, eta istorio nagusia hacker batek egindako pasahitz-lapurretan batean oinarrituta dago. Hala, dekoratuak eta jolasak sortu dira, Mutualiako langileak zibersegurtasunean prestatu eta kontzientziazitzeko.

Jolasa Mutualiaren hiru zentrotan egin da —Bilbon, Henaon; Gasteizen, EHZan; eta Donostian, Pakean—, eta guztira 183 pertsona jolastu dira. Jolastu ondorengo inkestetan esan dute ideia oso ona izan dela eta horrelako prestakuntza-motak nahiago dituztela bestelako tradizionalagoak baino.

08

Ildo estrategiko 04:

**Osasunaren
zaintza,
segurtasuna eta
babes ekonomikoa
humanizatzea**



08.01 Prestazio Berezien Batzordea

Mutualiak urtez urte erakutsi du sentikortasuna eta konpromisoa bereziki zaugarriak diren egoerei arreta emateko, kontuan hartuta zer ondorio izan ditzakeen lan-istripu edo gaixotasun profesional batek hala hura jasan duenarengan nola haren familiakoengan. Halako kasuetako premiei erantzuteko, Prestazio Berezien Batzordeak zorrotz baloratu ditu 2022an aurkeztutako eskaera guztiak, eta gizarte-laguntzako prestazioak onartu ditu abenduaren 7ko 1993/1995 Errege Dekretuaren 67bis artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituztenentzat –Errege Dekretu horrek onesten du Laneko Istripu eta Gaixotasun Profesionaleen Mutualitateen Gizarte Segurantzarekiko elkarlanari buruzko Erregelamendua–.

2022ko ekitaldian, 337.534,80 euroren gizarte-laguntzako prestazioak aitortu zitzaizkien zaugarritasun berezian zeuden 175 pertsonari. Horrek esan nahi du % 18,24 premia gehiago artatu zirela aurreko ekitaldian baino, orduan 148 eskari onetsi baitziren.

Prestazio Ekonomikoen Batzordeak komunikazio-lan handia egin du laguntza horien berri emateko. Guztira, aldi baterako ezintasuneko egoeran zeuden eta prozesu horretan batez besteko alditik gora zeramaten langileei 649 eskutitz bidali zitzaizkien, eta ESKUTIK taldeak (gure bitartekotzarako osasun-unitateko langileek, kanpoko bitartekoek eta prestazio ekonomikoen arloko gizarte-langileek osatutakoa) arreta pertsonalizatua eman zien larritasun medikoak edo gizarte-zaugarritasunak zirela-eta bereziki larriak ziren kasuei. Gure eginkizuna da bat-batean sortutako behar bat baloratzea eta laguntza psikosoziala eta aholkularitza ematea, erabiltzaileek jaso ditzaketen askotariko laguntzak baloratu ahal izateko, bai gure erakundearen aldetik jaso ditzaketenak (eskaerak batzordean kudeatuz), bai eta gizarte-zerbitzuen sare publikotik eskuratu ditzaketenak ere (bide horretan lagunduz).

Prestazio Berezietako Batzordeak emandako laguntzen kopurua eta zenbatekoa

GSAZN ebazpenaren katalogoa	2021		2022	
	Zk	zenbatekoa	Zk	zenbatekoa
Ospitaleratzearekin lotutako gastuak	17	10.728,64 €	48	13.315,45 €
Arautu gabeko protesiak eta laguntza teknikoak	7	33.576,01 €	7	10.103,53 €
Arautu gabeko tratamendu medikoak edo terapiak	17	12.639,36 €	7	8.317,28 €
Lanbide-prestakuntzako eta gizarteratze eta laneratzeko ikastaroak	3	7.641,00 €	0	- €
Ohiko etxebizitzan oztopoak kentzeko laguntza	2	6.792,40 €	2	12.674,99 €
Ibilgailua egokitzeko laguntza	1	2.464,80 €	0	- €
Etxeko laguntza EBOJetarako	11	33.484,55 €	9	28.872,37 €
Heriotza-sorospeneko osagarria	27	100.850,63 €	19	74.286,68 €
Ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntzal	30	82.661,89 €	49	122.345,75 €
Ohiko etxebizitzaren hipoteka amortizatze laguntza	33	89.235,55 €	34	67.618,75 €
Guztira	148	380.074,83 €	175	337.534,80 €

Bereziki garrantzitsuak dira ohiko etxebizitzaren hipoteka edo alokairua ordaintzeko emandako 83 laguntzak. Laguntza horiek eman zitzaizkien enplegua galdu duten edo kontingentzia profesionalen ondoriozko epe luzeko baja medikoetan sortutako zaurgarritasun ekonomikoko egoera antzekoan egon direnei eta baita haien kausadunei ere, kontingentzia profesionalengatik heriotzak gertatu diren kasuetan. Laguntza horien batez besteko zenbatekoa 2.250 euro baino gehiagokoa izan da, eta helburua izan da pertsona horiek diru-sarrera ekonomiko gutxiago izan dituztenean hipoteka-maileguaren edo alokairuaren kuotak ordaindu ahal izatea, eta ekiditea gizarte-bazterketako arrisku-egoerak sortzea.

Gainera, izan da babes berezia jaso duen beste kolektibo bat ere, baliaezintasun handia zuten edo ospitaleko alta jaso ondoren eguneroko jarduerak egiteko (norbere higieena, garbiketa, janaria...) langile kualifikatuen laguntza behar izan zuten 9 pertsonak osatua. Helburu horretarako, 22.872 euro bideratu ziren 2022an.

Bereziki zorigaiztokoak diren egoeretan ere esku hartu du Mutualiak; besteak beste, lan-istripuen edo gaixotasun profesionalen ondoriozko heriotzetan. Guztira, 74.286 euro eman dizkie bizia galdu duten 19 pertsonaren ehorzketa-gastuen kargu egin ziren senideei.



08.02 Eraikinak eta instalazioak

Erabiltzaile guztientzako eraikin seguruak, erosoak eta irisgarriak izatea lehentasunezkoa da Mutualiarentzat, eta hori guztia irisgarritasun-irizpide aurreratuenak betez egiten da.

2022ko ekitaldian hainbat obra eta mantentze-lan egin dira, instalazioak egokitu dira eta zerbitzuen humanizazio-lanak gauzatu dira; besteak beste, hauek:

Bizkaia

- Henao kaleko eraikineko 4. solairuko Kontabilitate Sailean beirazko manparak eta zenbait altzari jarri eta egokitu ziren.
- Henaoko eraikineko solairu horretako Osasun Kudeaketako eta Kanpoko Osasun Laguntzako zuzendariaren bulegoko altzariak egokitu eta jarri ziren.
- Henaoko eraikineko 3. solairuan, Gerentziako idazkaritzako, bulegoetako eta bilera-geletako altzariak egokitu eta jarri ziren.
- Henaoko eraikineko 1. solairuan, Antolamenduko eta Arriskuen Kudeaketako zuzendariaren bulegoa egokitu zen.
- Iurretako zentroko pazienteei arreta emateko eta harrerako mostradorea berritu zen.
- Zamudioko zentroko sendaketa-gelako harraska eta 3. gelako biltegi-irratze-altzariko ekipamendua ordezkatu zen.

Araba

- Gasteizko EHZko larrialdietako irteerako eskailera-maila kendu zen.
- Zentroko zenbait lekutan zeuden gorabeherak konpondu ziren; adibidez eskailerako kutxa, teilatua, komunak edo korridoreak.

Gipuzkoa

- Beasaingo zentroko errehabilitazio-eremuko horman ispiluak jarri ziren.
- Eibarko zentroko errehabilitazio-eremuan hezetasunak saneatu ziren.
- Harraska ordezkatu eta eskoziar dutxa jarri zen Pakeako errehabilitazio-eremuan.

Ekintza horiekin guztiekin, instalazioak hobetzeaz gain, Mutualiaren zentroetako irisgarritasun-ziurtagiriak berriz ere eskuratzeko araua eta lortu nahi ditugun humanizazio-irizpideak eta kalitate asistentzial betetzen dira.

Mutualiaren Bilboko ospitale berria

Mutualia 2021eko ekitaldian egiten hasi zen proiektu ilusionagarrienetako bat Bilboko ospitale berriarena da. Ercilla kaleko klinika ordezkatzeko du, eta, irekitzen denean, osasun-zentrorik jasagarriena eta irisgarriena izango da. Proiektu berriari oniritzia eman zion Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak, eta Mutualiaren Ondare Historikoaren kargura finantzatzeko da.

2022ko ekitaldian, eraisketa-lanak egin eta orubea prestatu zen, eta aurreikusi da 2023an hasiko direla eraikuntza-lanak.

Lehenengo faseetatik, proiektua pertsonetan oinarrituta planteatu zen —bai Mutualiako erabiltzaileak bai eta langileak ere—, osasun-analisi funtzionalean eta ekonomikoan ardaztuta, eta oztoporik gabeko ospitale bat diseinatu zen, irisgarritasunean eta jasagarritasunean erreferentia dena.

GRI
416
1

GRI
416
103

GRI
203
1

08.03 Pertsonak osasun-laguntzaren erdigunean

Osasun-laguntzaren Humanizazio Plana eskaintzen dugun arretari balioa gehitzeko konpromiso aktibo bat da, eta, horregatik, ibilbide-orri bat lantzen ari gara Mutualia hobetu eta erreferente gisa finkatzen jarraitzeko. Era berean, patologiez harago, pertsonei arreta emateko kultura bultzatzen da, mutualistek senti dezaten modu berdingabe eta pertsonalean tratatzen ditugula.

Ekintza eta proiektu horiek erakusten dute Mutualiak konpromiso sendoa duela hobekuntza jarraituarekin eta kudeaketa aurreratuarekin, eta baita osasun-arlo osoan estilo koherente eta partekatua lortzeko nahiarekin ere, erabiltzaileekiko errespetuaren eta haiek kontuan hartzearen erakusgarri. Aurrekoa lortzeko, pertsona abiapuntutzat hartzen duten ekintzak sustatzen dira, eta, ahal den heinean, ekidin egiten dira deshumanizazioa errazten duten efektuak, hala nola teknifikazioa, langileak aldatzea, txandakako lana eta osasun-langileak eta pazienteak bereizten dituzten egiturak.

H espazioa

Humanizazioak ez dio eragiten osasun-laguntza emateko moduari bakarrik. Humanizazioa osasun-espazioetan ere lantzen da, espazio horiek atseginagoak eta erosoagoak izan daitezzen; adibidez, nola iragan ohiko itxarongelareneredutik "Hespazioko" itxarongela batera, non paziente zein laguntzaileak etxean bezala sentitzen baitira. Horrelako itxarongela bat Mutualiaren Pakea Klinikari dago.

Sueño

Ospitaleratuta egotean atsedean hartzeak, erosotasun-mailan eragiteaz gain, errehabilitazio-aldiak hobetzen ditu. Mutualia Sueño proiektuari atxikita dago, zeinaren helburua baita ospitaleratuta dauden lo erraztu eta zaintzea. Proiektua Karlos III.a Osasun Institutuko Osasun Zaintzen Ikerketa Unitateak sustatu du.

2022an zenbait neurri hartu ditugu ospitaleratuta zeuden gaueko atsedena errazteko, eta ospitaleratze aukera duten Mutualiaren bi klinikatan ezarri genituen; atsedenean gehien eragiten duten faktoreak landu genituen, argia eta zarata hain zuzen ere. Hala, beharrezkoak ez diren argiak itzaltzen dira, geletako ateak ixten dira, begi-maskarak banatzen ditugu, korridoreetan hitz egitea ekiditen da, eta tresnak eta gurdien gurrupilak egokitzen dira ahalik eta zaratarik txikiena egin dezaten.



Zeinuka

Eraikinak bezero guztientzako irisgarri egiteko konpromisoa agerikoa da, baina irisgarritasuna hori baino askoz ere gehiago da, eta Mutualiak oso kontuan hartzen du hori.

Zeinuka proiektuak kalitatezko osasun-arreta segurua bermatzen die gorrei eta entzumen-defizita dutenei.

Gaur egun, zeinu-hizkuntzako titulua eta prestakuntza duten 9 pertsona erreferente daude Mutualian, eta talde batek kudeatzen ditu gorren beharrak, haiei erantzuteko eta helburua lortzeko mekanismoak integratzeko.

Gorrek zeinu-hizkuntzan Mutualiako norekin komunika daitezkeen jakin dezaten, identifikazio-txapa batzuk egin ditugu.



08.04 Asistentziaren kalitatea eta pazienteen segurtasuna

Osasun laguntzaren kalitatearen adierazleak

Adierazlea	2021	2022
Ebakuntza egiteko itxarote-zerrendako egunak	7,02	9,25
Pazienteek ospitaleratuta egiten duten batez besteko denbora (egunetan)	3	2,64
Antolakuntzaren ondorioz atzeratutako ebakuntzen tasa	%2,50	%1,29
Errehabilitazioko kontsultarako atzerapen-egunak	1,54	1,75
Fisioterapiarako atzerapen-egunak	1,36	1,63
Baja-prozesuen batez besteko iraupena, Fisioterapian	42,18	44,6
Kontsulta baterako 20 minututik gora itxaroten duten pazienteen ehunekoa	%5,79	%6,41
Kirurgia-prozesuen anbulatorizazioen %	%62,82	%63,28
Gaixo ibiltarien %	%65,12	%64,93
Erresonantzia magnetikoa eta txostena egiteko itxaronaldia (egunetan)	2,97	3,28
Ekografia eta txostena egiteko itxaronaldia (egunetan)	5,75	7,08
Proba biomekanikoa eta txostena egiteko itxaronaldia (egunetan)	7,97	10,07
Larrialdietan edo lehen kontsultan arreta jasotzeko itxaronaldia (minututan)	9'70"	8'93"
Ondorengo kontsultetan arreta jasotzeko itxaronaldia (minututan)	5'79"	6'40"


Osasun laguntzaren kalitatearen adierazle nabarmenak




Ebakuntzarako itxaronaldia (egunetan)



Erresonantzia magnetiko baten emaitzak jasotzeko itxaronaldia (egunetan)



Ondorengo kontsultetan arreta jasotzeko denbora (minututan)



Larrialdietan arreta jasotzeko denbora (minututan)

GRI 416 1

GRI 416 103

Pazienteen segurtasunaren adierazleak

Adierazlea	2021	2022
Berriro ebakuntza egin beharreko kasuen tasa	%8,18	%2,64
Berriro ospitaleratu beharreko kasuen tasa	%3,24	%0,10
Transfusioen ondoriozko erreakzioen tasa	%0,00	%0,00
Alta ematean eskura emandako alta-txostenen ehunekoa	%99,90	%99,70
PSari buruzko gida berrien edo berrituen kopurua	33	3
Presioagatiko ultzeren tasa, ospitaleratutako pazienteetan	%0,00	%0,00
Erorikoen tasa, ospitaleratutako pazienteetan	%0,11	%0,00
Gernubideen infekzioen tasa, ospitaleratutako pazienteetan	%0,00	%0,05
Zainetako kateterragatiko infekzioen tasa, ospitaleratutako pazienteetan	%0,00	%0,00
Zauri kirurgikoen infekzioen tasa	%0,43	%0,78
Asistentzia sanitario anbulatorioarekin lotutako infekzioen tasa	%0,01	%0,00
Osasun-asistentziarekin loturiko infekzioen tasa	%0,43	%0,76
Egindako Checklist kirurgikoen ehunekoa	%100	%100
Dauden baimen informatuen ehunekoa	%99,70	%98,90
Behar bezala betetako baimen informatuen tasa	%98	%98,50
Jakinarazpen Sistemaren bidez jakinarazitako segurtasun-gorabeheren kopurua	13	24

GRI 416 1

GRI 416 103



IE04: Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea

08.05 Bezeroen Defentsa Erakundea

Bezeroen defendatzailearen figura 2019an sortu zen, eta haren helburua da Mutualiaren prestazio ekonomikoak edo osasun-zerbitzuak jaso dituzten enpresei eta haietako langileei zerbitzu ona ematen zaiela zaintzea, haiei emandako zerbitzuen karta betez. Haren zereginetako bat da eraginpeko arloetako arduradunek jasotzen dituzten kanpoko kexen, erreklamazioen eta eskertzen esleipena kudeatzea.

Mutualian jasotzen ditugun kexa eta erreklamazio guztiei idatziz erantzuten diegu, eta 2022an erantzuteko batez besteko epea 10,25 egunekoa izan zen. 2022an, 405 kexa jaso genituen, eta, kontuan hartuta 699.918 zerbitzu prestazio egin zirela (357.498 osasun-arreta eta prestazio ekonomikoen 342.420 eskaera), jasotako kexen portzentajea % 0,0058koa da (hau da, emandako 10.000 zerbitzuko 5,8 kexa).

Garrantzitsua da azpimarratzea aitortza gehiago jaso direla: 2021ean 72 jaso ziren, eta 2022an 128. Neurketa egiten denetik jasotako errekonozimendu-kopururik handiena da.

Kexa eta erreklamazioen arrazoiak

Arrazoiak	2021	2022	▲▼ %
Kontingentziaren kalifikazioarekiko desadostasuna	90	88	%-2,27
Alta ematearekiko desadostasuna	63	59	%-6,78
Jasotako tratuarekiko desadostasuna	66	58	%-13,79
Osasun-arreta desegokia	41	62	% 33,87
Osasun-arreta. Tratamenduarekiko desadostasuna	24	37	% 35,14
Beste batzuk	43	40	%-7,50
Osasun-arreta. Mediku-txostena	24	21	%-14,29
Garraioa	28	20	%-40,00
Osasun-arreta. Emandako arreta atzeratzea	10	3	%-233,33
Osasun-arreta. Diagnostikoa	10	11	%9,09
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua (HEA)	3	1	%-200,00
Instalazioak	4	2	%-100,00
Ondarekoak, kalte-galerengatik	1	1	%0,00
Prestazio ekonomikoak	8	2	%-300,00
LAJE	2	0	-
Ezohiko LAJE	1	0	-
Guztira	418	405	%-3,21




08.06 Gogobetetze-indizeak


Mutualiarekin harremana duten pertsonen asebetetze maila neurtzeko modurik zorrotzena kolektibo bakoitzari bideratutako inkestak era sistematikoan egitea da, jomugatzat hartuta Mutualiaren osasun-zerbitzuetan artatu dituztenak, prestazio ekonomikoak jaso dituztenak edo zerbitzuen kudeaketan bitartekari direnak, besteak beste aholkularitza laguntzaileak.

Inkesta horiek bi urtean behin egin ohi dira, eta enpresa espezializatu batek egiten ditu, Osasun Arloarekiko asebetetzekoa izan ezik, zeina era jarraituan egiten den


Azken 4 urteetako asebetetze-inkesta guztien emaitzak




(1) 1etik 10era bitarteko puntuazioa. Bi urtean behingo inkesta



